Koldo Tapia: "Bertsoaren baliabideak ez ustiatzea barkaezina da"

ARGIA

Euskal Herriko Astekaria

ZINEMALDIA

47 Kursaalaldia hasi da

Kooperatiben Giltzarria

EUSKADIKO KUTXAK 40 URTE



J.M. Atutxa

"Politikook zuhurragoak izan beharko genuke"

DISEINUA

FOTOKONPOSAKETA

INPRESIOA

EDIZIO DIGITALA

BIDALKETA

antza

grafikagintza & komunikazioa

INDUSTRIALDEA, 2 • 20160 LASARTE-ORIA, GIPUZKOA • TEL.: 943 37 15 45 • FAXA: 943 37 34 03
e-mail: antzagraf@antza.com • www.antza.com

1.729. ZENBAKIA - 1999KO IRAILAK 19

Argazkia: Alberto Elosegi
Diseinua: Aitzol Goikoetxea

■ J. M. Atutxa: «Politikook zuhurragoak izan beharko genuke» 9



■ K. Tapia: «Bertsoa herriaren adierazpen kulturala da» 29

Euskadiko kutxa: Kooperatiben giltzarri 14

■ Zerua filmez estali da eta kuboak, gorriz tindatu 37

ORRIZ ORRI

Gora Pro Nobis. *Asisko Urmeneta* 4
Irakurleak mintzo 5

POLITIKA

Euskal Politikaren Termometroa 6
Elkarrizketa: Juan Maria Atutxa.
Mikel Asurmendi 9
Eremu sinbolikotik errealitaterako jauzia.
Xabier Letona 12

EKONOMIA

Euskadiko kutxa: Kooperatiben giltzarri.
Daniel Udalaitz 14

EUSKARA

Hirurak bat: Xalbador, Larzabal... eta Erdozainzi.
Mikel Asurmendi 20

GIZARTEA

Mikel Soraurenen Nafarroako erresuma.
Erlantz Urtasun 22
New York: Lorik egiten ez duen hiria.
Gotzon Garate 24
Mahatsaren orpotik dator 99ko txakolin berria.
Onintza Irureta 26
Elkarrizketa: Koldo Tapia.
Estitxu Eizagirre 29

KULTURA

Euskal Kulturaren Ezpalak 34
Zerua filmez estali da eta kuboak, gorriz tindatu.
Beñat Doxandabaratz 37
Haur eta gazte literatura merkatuaren legepean.
Nagore Irazustabarrena 40

ASTIA HARTUTA

Argitalpenak 44
Agenda 47
Irrati-Telebista. *Beñat Doxandabaratz* 48
Bizia 52
Ihesi 53
Denborapasak 56

IRITZIAK

Politika: *Ibon Arbulu* 8
Kultura: *Andres Urrutia* 36
Azkena: *Elixabete Garmendia* 58

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Euskara Departamendua

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

fundazioa
fundación

Asteasko + XAMAR

I RAILEKO AZTERKETA

BURUKETA

GARAZitik datorren tren batean EAJ, IU, EA eta EH LIZARRAra datoz ttuku ttuku, PSOE eta PPrekin biltzera; Azken hauek, aldiz, ESTELLAtik abiatu den Armadako tren blindatuan VALCARLOS -eraino doaz TARRATATATRAKA. Noiz eginen dute ~~topo~~ talka?



ARGIA
Euskal Herriko Astekaria

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, S.A.L.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.
Kontseilu Editorialeko Arduraduna: Baleren Bakaikoa.
Erredakzioa: Nagore Irazustabarrena, Onintza Irureta, Xabier Letona, Eriz Zapirain.
Maketazioa: Berdaitz Goia.
Grafismoa: Aitzol Goikoetxea.
Administrazioa: Marijo Aierza.
Harpidetzak: Olatz Korta, Edurne Urruzmendi.
Hedapena: Ixabel Bereziartua.
Publizitatea: Iñigo Txintxurreta, Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Argazkiak: Alberto Elosegi.

HELBIDEAK
GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 37 15 45.
Faxak: 943 37 34 03 (erredakzioa)/ 943 36 10 48 (komertziala).
IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 47 60 00.
Faxa: 559 47 60 01.
NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerra. 31011 Iruñea.
Tel.: 948 17 80 78. Faxa: 948 17 80 77.
POSTA ELEKTRONIKOA:
Erredakzioa: kazeta@argia.com
Komertziala: komertzial@argia.com
WEB ORRIALDEA
www.argia.com
LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.
ISSN: 0213-909X.
BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.
INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Harpidetza sariak:
Hego Euskal Herria..15.000 pta./90,5 Euro
Ipar Euskal Herrian....717 lib./109,31 Euro
Espainia.....15.000 pta./90,5 Euro
Beste atzerriak....19.300 pta./115,99 Euro
Airez.....30.225 pta./181,65 Euro

KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea da

Inkultura nagusi Getxoko udalan

«Eskaintza oparoa eta bitarteko ugari Getxon» artikulua irakurtzeko aukera izan dut. Bertan, txekera bidezko kultura goraipatzen zenez eta Getxoko udala (kultur etxearen bitartez) kulturaren alde egindako lana laudatzen zenez, azken egunotan gertatutakoak aipatzea merezi duelakoan nago. Irailaren 1ean, Nazioarteko Folk Jaialdia hasi zen Areetan eta Erromon. Kultura partehartzailea eta bakarrik ikustekoa/entzutekoa den kulturaren arteko eztabaidara bultzatzeko moduko saioa. Baina, ez dut honetaz idatziko gaurkoan. Aurreko egunean, abuztuaren 31n, Iñaki Zarraoak (EAJko Getxoko alkatea) aginduta hondagailuek Erromoko Gaztetxea bota zuten. Eusko Tren, Metro Bilbao, Getxoko udala eta Eusko Jaurlaritzaren utzikeria zela eta zabor eta arratoiz beteta zegoen Erromoko Santa Eugeniako 6. eta 8. atariak biltzen zituen etxea. Era berean, usain txarrak eta arratoien razziak aurreko harategiraino ailegatzen ziren.

Hau guztihau bukatu zen aurtengo ekainean, Erromoko gazteek etxea okupatu, garbitu, desinfektatu, egokitu, margoztu eta bizitza piztu zutenean. Piztu, gizarte eta kultur mailan. Denboraldi record delakoan (abuztuaren 2a epemuga), etxea prestatu zuten herriko jaietan jaigunea izateko: herri bazkaria, mota guztietako kontzertuak, helduentzako zein haurrentzako filmak, eta abar. Eta dena autogestionatua. Eta dena, Erromoko Jai Batzordeak Getxoko udalak emandako dirulaguntza miserablearekin (aurrekontua 7 milioi pezetakoa izanda, udala eta kultur etxeak 1 baino ez dute jartzen), eta kristoren ahaleginarekin egindako jai programa osatzeko. Argi dagoenez, Erromoko Gaztetxeak kultura partehartzailea eta bertako bizilagunentzako ozioa bultzatu ditu.

Herrian egindako auzolanaren truk, Erromoko jaiak baino lehen, lehenengo saria jaso zuen Gaztetxeak. Iñaki Zarraoak bidalitako gutunak zioenez, Gaztetxean kultur ekitaldirik antolatzea debekatuta geratzen zen. Gaztetxekoek ez zuten kasurik egin eta jaietan auzolanean jardun zuten. Jaietan Zarraoak utzi zien. Ez dakigu utzi nahi izan zielako edota beltzen 7 furgona zela medio AAB eta Senideak taldeek antolatzen zuten txosna kenduaraztea nahiago izan zuelako (eta agian bi fronte ezberdinak gehiegi ziren gure alkatearentzat, badakizue Hitlerrek Stalingradon ikasi zuena).

Kultur eta gizarte arloak direla eta, badut gauza bat ziurra: Iñaki Zarraoa EITBko zentsorea izan zena (Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren bertso-teleberria moztarazi zuen EITBko presidentea zela) ez du lekurik Lizarra-Garazin ez baitaki arazoak elkarrizketaz konpontzen. Aldiz, kontrakoa daki: arazo berriak indarrez sortzen.

IÑIGO FDEZ. DE MARTIKORENA
ERROMO (BIZKAIA)

OHARRA: 1.727. alean, Ihesi ataleko artikuluaren egilea (Lierni Arrietak sinatzen zuen) Iñigo Txintxurreta zen eta beraz, bera da testuan jartzen duen katalogaturik gabeko historiaurreko oroitgarria aurkitu zuena.

Hiruko Txikian

PRESOAK ETXERA

Gurekin nahi ditugula. Eta adarra jotzen ari zaizkigula etengabe espainol patriatik alegia. Ez dakit nork esana zuen gure epelkeria zela haien beroa, gure ahulezia haien indarra. Eta aspalditik gure errebindikaziotan preserbatiboa, kondoia jarrita jardun eta etsaia haserretu ez dadin txintxoarena egiten gabiltzala, adarra jotzen ari zaizkigu. Maixa eta Ixiar eta Gozategitarrak euren lehen jaunartzea eta Alaitz eta Maider ama ikastolan hasi zireneko urte haiez geroztik preso dauzkaten herritarrak ditugu gure ahuleziaren neurri. Geroz eta nabarmenagoak diren pentsamendu bakarraren ondorioz, politika ogibidea bilakatu dutenen esku utzi ditugu erabakiguneak antola diezazkiguten, eta plaibakean grabaturiko musikaz gaituzte dantzarazten elbarri mentalak baikinen. Mendeko eta zozotzat hartzen gaituztela alegia. Aznarren gobernuaren erabakia, gure preso batzuk lekuz aldatzearena keinu bat da. Pauso berri bat. Baina jobide zaharrean, zapalkuntzan oinarritua hala fede ●

◆ **JOXE MARI OSTOLAZA**

TERMO

TXANPONA

LAN HERIOTZAK ETA PUBLIZITATEA

Espainiako Gobernuak prentsa, irrati eta telebistan publizitate kanpaina bat martxan jarri du egun hauetan, lan istripuen kopuru handia (Espainian eguneko hiru hildako eta lau elbarritu) murrizteko asmoz. Hego Euskal Herrian, 1998an, 147 langilek galdu zuen bizia; 1997arekiko % 30eko igoera esan nahi du honek. 1999an, jada, 60 langile baino gehiago hil da. Kopuru izugarri horiei lan istripuen ondorioz, gaixotasun larriak jota dauden ehundaka langile gehitu behar zaizkie. Gaitz hau ez da gobernuaren marketingarekin eteten. Are gutxiago, hau programatzen dutenak ezegonkortasuna bultzatzen duen legeria egin dutenean. Legeri hau da gainera hainbeste lan-ezbeharren eragileetako bat (1998ko hildakoen erdiak urtebete baino gutxiago zeraman lanean). Errotik eten dadila arazoa, lan baldintza duinak sortuz, ezegonkortasuna ezabatuz eta prebentzioa, prestakuntza eta informazioa areagotuz. Erabil daitezela Lan-ikuskaritzak, zigor eredugarriak ezartzeko. Behin neurri horiek hartuta, publizitatea osagarri izan daiteke. Bitartean, marketing hutsa besterik ez da izango.

◆ DANIEL UDALAITZ

DEPARTAMENDUAREN ALDE

JOAN den abuztuaren 28an CSA-Sud-Ouestek eginiko iritzi-inkesta baten arabera, Ipar Euskal Herriko bizilagunen % 57 Euskal Departamendu baten alde dago. Inkesta berean, biarnesen % 39k ere begi onez ikusiko luke Euskal Departamendua. Batez beste, euskaldunek eta biarnesek osatzen duten Pirinio Atlantiarrean, % 47 azaldu da oraingo departamendua berritzearen alde. Inkesta honetan, uste zen baino biarnes portzentaia handiagoa agertu da Euskal Departamenduaren alde. Datorren urriaren 9an, Euskal Departamenduaren aldeko manifestazio berri bat burutuko da Baionan, helburu horren alde Ipar Euskal Herrian egin den handiena izan nahi duena.

JOKAERA BASATIA

HONDARRIBIAN, udaletxeko lanpostu arrunt baterako gizonezkoak bakarrik onartuko balira, Justizia Administrazioak eskuhartuko luke. Berdin udalbatzak hala erabaki izan balu ere. Askoz esajeratuagoa izanik, Hondarribiko arrantzuntzi bakoitzean pertsona baten esklabutza onartuko balitz, mendeetan zehar hala egin izan delako, Administrazioak eta Justizia Administrazioak izango lukete zeresanik eta jarriko lirateke bitartekorik esklabutza hori saihesteko, baita herritarren gehiengoak ala erabakiko balu ere. Alardearekin gertatzen dena korapilotsuagoa da, zalantza barik, baina emakumezkoen parte hartzearekiko arazoa apurka gainditu behar den da, gutxienez Irunen gertatu den legez. Gen denborak jarriko ditu gauzak bere lekuan. Ule tezina dena, Ertzaintzaren jokaera bortitza da Eusko Legebiltzarrak eta EAEko Auzitegi Nagusiak agindutakoa betearazi beharrean, Jaizkibelekoen aurka egin zuen. Akaso «betikoak» irudiko zitzaizkien, eta hori onartuago dago.

EGUNKARIAE. KOCH

■Ertzaintzaren eskuhartzea Hondarribian.



ALBERTO ELOSEGI

MASA ETA SANCRISTOBAL ESPETXERA

RAFAEL Masa eta Julian Sancristobal Guardia Zibileko teniente koronela eta Espainiako Estatu Segurtasunerako zuzendari ohiak hurrenez hurren, espetxera bidali ditu 'Brouard kasuko' Jose Luis Gonzalez Armengol epaileak. Uztailean, bermea ordaindu ondoren askatasunean utzi zituen epaileak baina orain, «ihes arriskua dagoela eta», espetxeratzea agindu du. Luis

BAHEA

● **Paulino Baena, AVTko bozeramailea: «Espetxea geografikoki non dagoen baino, garrantzitsuagoa da euskal presoa espetxean egotea».**

● **Nicolas Redondo Terreros, PSE-EEko Idazkari Nagusia: «Balza eta Intxaurraga Euskal Jaurlaritzako minbizi ideologikoak dira».**

● **Jaime Mayor Oreja, Espainiako Barne Ministroa: «Ez dut nahi bakea autodeterminazioa truke, ezta bakea presoen truke; bakea bakearen truke nahi dut».**

E T R O A

Morcillo enpresariak Sancristobali bizkarreratu dio Brouarden aurkako atentatua antolatu izana. Sancristobalek eta Masak, aldiz, Rafael Vera eta Emilio Rodriguez abokatua egin dituzte beraiek espetxera bidaltzeko operazioaren errudun.

PRESOEKIKO EKIMEN BERRIAK

PRESOEN Euskal Herriratzea eskatzeko ekimen desberdinak eta berriak antolatzen ari dira. Gipuzkoako Diputazioak eta EAk bultzatutakoak dira horietako bi. Lehenengoak, Diputazioaren aurrean bilkura isila egitera deitu du datorren ostiral honetarako, hilak 17. EAk gutun bat bidaliko die Europako estatuetako eta Europako Parlamentuko 5.000 kideri, bertan Euskal Herriko eta euskal presoen egoera azalduz.

«TRIBUNA»REN ZEHAZTASUNA

LERRO hauen eskuinean dagoen argazkia, Espainiako «Tribuna» astekariak 1988-1998ko hamarkadari buruz uda honetan ateratako zenbaki berezian agertu da, Jaime Mayor Orejaren iritzi artikulu bat lagunduz. «Ajuria Enea Gernikako Arbolaren atzean». Kazetari guztiok ditugu akatsak eta sarri egiten diogu barre gure buruari, baina akatsa baino ezezagutzaren fruitu da hau.



«Tribuna» aldizkariaren orrialdea.

BOTEREAREN TRESNA

Presoen trasladoaren operazioan adar soinuaren irudia nagusitu da berriro, eta Espainiako Gobernuak, presoena moduko gai sentibera bere interesen defentsarako erabiltzen duela. Ez da berria kontua, eta antzerako gehiago ere etorriko dira. Baina bestetik, apurka, gero eta gehiago bere aurka bihur daitekeen arma ere bada, euskal gizartean presoen Euskal Herriratzeak gero eta garrantzi handiago hartzen ari delako. Alta, oraindik ez dago indar edo presio nahikorik eskaera guztiz gauza dadin, eta hori da Mayor Orejaren mugimendu horretatik egin behar den beste hausnarketetako bat. Ezetza luzatzea, Madrili oso garesti ateratzeko moduan aktibatu beharra dagoela presio hori. Bitartean, bejondeiela Espainian zehar kilometro gutxiago egin behar dutenei, hori behintzat berri ona da eta.

A. ELOSEGI

Iñaki Gerenabarrena.

IZPIAK

Iñaki Gerenabarrenak, Eusko Jaurlaritzako Nekazari eta Arrantza Kontseilariak, gogor salatu du Jesus Posada Espainiako Nekazari eta Arrantza Ministroa. Gerenabarrenak azaldu zuenez, sarri deitu dio eta telefonora ere ez da jarri. Iragan astean Donostian izan zen ministroa eta, agenda arazoak argudiatuz, ez zen Donostiako Jaurlaritzaren egoitzara abiatu ere. Gerenabarrenak euskal herritarrekiko iraintzat jo zuen ministroaren jarrera hau.

Julio Ibarra ETBko «Teleberri» albistegiko editorearen aurka dabil aspaldi PP. Presoen trasladoa zela eta, Ibarrak berriari emandako tratamendua gogor kritikatu zuen Carlos Urquijok, «Teleberri»ri «alderdikeria eta subjetibotasuna» egotziz.

A. ELOSEGI

Julio Ibarra.

- **Juan Jose Lizarbe, PSNko Idazkari Nagusia: «Espainian ez dago adostasunik PP eta PSOEren artean, PP bere kaxa dabilelako. Nafarroan, bake prozesuan adostasuna erabatekoa da».**
- **Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria: «Ez da ona bata bestearekin eztabaidan hastea foro bakoitzaren gauza on edo txarrez; askoz interesgarriagoa litzateke mahai gainean zer jarri behar den adostea».**
- **Julian San Cristobal, Espainiako Estatu Segurtasunerako Idazkari ohia: «Luis Morcilloren akusazioak mendeku zikina dira eta instrukzioaren kolaborazio aktiboa du».**

ERAGINKORTASUN POLITIKOAREN ORDUA

Joan den otsailaren 6an Iruñean, Euskal Herriak egundoko urratsa egin zuen eraikuntza nazionalaren bidean, subirautza eta lurraldetasuna aldarrikatuz eta praktikan gauzatzen hasiaz. Hitzetatik ekintzetara jauzia egiteko determinazio politikoa agertaraziz, Euskal Herriko sei herrialdeetako udal ordezkariak eraikuntzarekiko borondatea artikulatzen hasi ziren.

Lehendabizi, Euskal Herriko historia modernoan, Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko udal hautetsiek, Euskal Herriko hiritartzat ordezkatuko gaituen instituzio amankomuna martxan jartzearen aldeko borondatea adierazi zuten, gure herriak nazio izateko dituen beharrizanak, kezkak, ametsak, proiektuak eta lehentasunak bideratu eta konpartitzeko ezinbesteko aukera izanik.

NAZIO bat garela adieraziko duen erreferente politiko eta instituzionala behar dugu, barnera begira zein nazioartean. Nazio bat garen heinean, hitz propioa izan nahi dugulako. Euskal Herri gisa sentitu, pentsatu eta aritzeko aukera jorratu nahi dutela argiki agertarazi dute udal ordezkariek, euskaldunok guk geuk, inolako kanpoko injerentziarik eta inoren baimenaren beharrik gabe, erabaki dugulako. Abiapuntu berri batetik eraiki nahi dugu Euskal Herria, Euskal Herriaren lurraldetasuna bermatuko duten hainbat espresio, dinamika edota instituzio nahiz bilgunetatik, alegia.

Jadanik, Euskal Herria nazio bat dela adierazten duen lurraldetasunaren lehendabiziko espresio instituzionala martxan jartzeko borondate politikoa finkatua dago; nazioartean Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela islatuko duena, nazio eraikuntzean tresna dena, erakunde iraunkorra izateko asmoarekin sortua, eta ez bestelako erakunde batean bilakatzeko bokazioz. Euskal Herriaren eraikuntza helburu izanik, eraikuntzarako estrategikoak diren arloetan lankidetza esparruak zabalduko ditu, oinarrizko diagnostikoetatik abiatuz eta lan ildo bateratuak ahalbideratuz, eta Euskal Herriak dituen beharrizan nazionalei erantzuteko behar den etrokizuneko artikulazio instituzional zein politikoa egituratzeko asmoz behar diren eztabaidak piztuz eta bideratuz.

Ibon Arbulu
HBko Mahai Nazionaleko kidea

"Nazio bat garela adieraziko duen erreferente politiko eta instituzionala behar dugu, barnera begira zein nazioartean. Nazio bat garen heinean, hitz propioa izan nahi dugulako"

ZAZPI hilabete pasa dira instituzio nazional honek bere lehenbiziko urratsa egin zuenetik, bere helburuak finkatu zituenetik. Irailaren 18an Euskal Herriko lehen instituzio nazionalaren eratze eta jardunerako urratsa emango da, eta hortik aurrera, milaka euskal herritarrek emandako herri ordezkaritzak dakarren erantzunkizunari erantzunez eta gure herriaren ukazio praktikoa dakarren zatiketa ororen gainetik, herri izate horren adierazle eta tresna eraikitzaile bilakatu behar du. Erantzunkizun horrekin bat eginik, Euskal Herriaren eraikuntzarako oinarri sendoak eraikitze bidean, urrats zehatzak eta eraginkorrak gauzatzeko premia indar biziz sentitu eta adieraziko du. Hain zuzen ere, inolako bazterkeriarik gabe eta inolako kanpo injerentziarik gabe, euskal demokraziaren eraikitze bide bakarra bere gauzatze praktikoa delako, euskaldun guztion artean eta guztiontzako bitarteko instituzional eta politikoak osatzearena, alegia.

Erakunde berri honen erreferentzialtasuna eta eraginkortasuna ezin da soilik plano instituzionalean kokatu. Instituzio honek erreferentzialtasun instituzionalaz kanpo, soziala ere izan behar du. Nazio eraikuntzan, tresna honek euskal gizarteko hainbat eragilerekiko elkarlana eta etengabeko komunikazioa eta kolaborazioa bultzatzea eta gizarte eragileak zein norbanakoak parte-hartzaile zuzenak direla irudikatzea ezinbestekoa suertatuko da. Eraikuntza nazionalak euskal herritar ororen parte hartzeari irekia izan behar du.

Instituzio honi sinbolikotasunetik eraginkortasun politikora jauzia egiteko garaia iritsi zaio, erreferentzialtasunean, interlokuzioan, eraginkortasun politikoan sakonduz eta bere potentzialitatea Euskal Herriko gizartean lehertuz ●

JUAN MARIA ATUTXA

Espainiako Gobernuak 105 preso lekuz aldatzea iragarri ostean hartu gintuen Eusko Legebiltzarreko presidenteak. Juan Mari Atutxaren gusturako, neurria berandu datorren urrats txikia besterik ez da. Iragana eta orainaren arteko ardatza da solasaldi hau.

"POLITIKOOK ZUHURRAGOAK IZAN BEHARKO GENUKE"

Herrizaingo sailburua izan zinen, 1991tik 1998ra bitarte. Hemeroteka ikusirik, estatuko hedabideek euskal arazoa ordenu publiko arazo soila bezala agertzen dute, baita zu tarteko azaltzen zaren artikuluetan ere. Ez al zinen haien alde erabilia sentitu inoiz?

Beno, halabeharrez sarri askotan irteten nintzen komunikabideetan. Edozelan ere, estatuko beste lurraldeetara joaten nintzen bertako unibertsitateek gonbidatua, eta nagusiki zera esaten nuen: «*Begira, guk gatazka bat dugu, eta bere sustraia badakigu zein den: politikoa. Baina, gatazka horretan erahil egiten duen jendea dago, eta onartezina da. Baina, kontuz, Euskal Herriko gatazka ez da behin betikoa*». Hori izan zen komunikabideei luzatzen nien mezu nagusia. Ez dut uste erabilia izan nintzenik. Gatazka konpontzeko irtenbide bat lortu behar genuen. Esaterako, ni ez naiz inoiz ezelako negoziaketan, alderdiaren ordezkari bezala aritu. Neure zeregina —nire alderdia eta ideologia alde batera—, gizarte eta justiziaren mesedean, katua sakatzen zebiltzanak, zelako-halako hausnarketa egitera eramatea izan zen. Eta esan zezaten, iazko irailaren 16an esan zutena: gelditzen gara, baina gure ideologiari ukorik egin gabe, beste bide bat hartuko dugu.

■ Uneon, estatuko komunikabideek gatazka politikoa bailitzan jokatzen dutela uste duzu?

Estatuko komunikabideek batez ere, ikaragarrizko indarra daukate, eta arazoa euren aldera bideratzen dute. Beti eduki dut garbi baina, bazekitela gure gatazka, gatazka politikoa zela, eta ETA gelditutа ere, arazoa ez zela horretan gelditutko.



JOSEBA OLALDE

■ «Makina bat bider begiratzen dut atzera, zeregin benetan astuna izan bainuen 8 urtez».

■ Bi legealdietan Herrizaingo sailburua izan zara. Ez al zinen EAJ zure alderdiak «erabilia» sentitu nolabait ere?

Makina bat bider begiratzen dut atzera, ze, zeregin benetan astuna izan nuen neure eskuetan, eta benetan diotsut, nire kontzientzia oso lasai dagoela. Ni ez naiz alderdian erabilia izan, ezta ezertarako ere. Lehendakariari hauxe esaten nion: «*Alderdiak noiz edo noiz esan behar badit neure jokabidea ez duela gustuko, esan diezada-*

la. Nire jokaerak ez badira mugen barruan sartzen, esaidazu, eta hausnartuko dut. Nire norabidea aldatuko dut edo etxera joango naiz». Nik neuk nire kontzientzia markatu izan dut ibilitako bidean. Alderdiak ez zidan inoiz deitu zer egin behar nuen esateko.

■ Herrizaingo sailburua izateari utzi ondoren ere, ETAren munduarekin norgehiagoka segitzen duzu antza. Abuztuan atxiloturiko Jokin Etxeberriaren aitak zure jarrera gaitzetsi zuen eskutitz publiko baten bidez.

Nire ohitura izaten da, holako eskutitzak azaltzen direnean, berriro ere publikoki ez erantzutea. Gehienetan, pribatuki erantzuten diet. Bertan ohartxo bat ipintzen diet: *«Zurea da, eta zuk nahi duzuena egin ahal duzu».* Kasu honetan, Mallorkan nengoen —laneko bidaian— eta kazetariek galdetu zidaten: *«Ustezko ETAkide bat atxilotua izan da Frantzian. Zer diozu horretaz?».* Nire erantzuna betikoa izan zen: *«Pertsona horrek zelako-halako delitu bat burutu izanaren indizioak badaude, pozten naiz justiziaren eskuetan ipintzeagaz»* Baina ni ez nintzen poztu bera atxilotzeagatik. Jokin Etxeberriaren aitaren aldetik erantzuna etorri zait, eta bere balorazioa egin dut. Berriz diotsut, nik erantzuna pribatuki ematen dut. Dena dela ere, mundu horrekiko harremana iragana da.

■ Iraganari begira oraindik. Barne sailburua zinenean, ETAren negoziatzeko ahalmenaz duda egiten zenuen. Orain ere bai?

Nik banekien, eta badakit jakin, nortzuk diren ETAko buruzagiak, baita negoziatzeko gaitasuna dutela. Baina, sarritan gauza horiek esan behar dira. Ea egun batez negoziatzera eseritzen diren, froga dezaten badutela gaitasuna. Sarritan, erronka bat bezala botatzen da halakorik, politika arloan egin beharrekoa, ea bestea ausartzen den. Ez pentsa, inoiz nire barruan bestelako usterik zegoenik, ez dut inoiz pentsatu ETAn bizpairu astopotro bakarrik zeudela, eta ezelako mahainguru batean jartzeko gai ez direnik. Ezta behin ere. Baina, bota egin behar zen, eta orain frogatzen hasi duten gaitasuna frogatzen segi dezaten espero dut.

■ ETA gaitasuna erakusten ari da, baina badago EAJri ausardia gehiago eskatzen dioenik.

Ez dut uste EAJri ausardia falta lepora dakiokenik. Alderantziz, neurri handi batean, nire alderdiaren beharrari esker bizi dugu oraingo bake egoera. Dena dela, guk badakigu, ematen den urrats bakoitzean ordain bat pagatzen dugula. Hala ere, orainartekoa mesedegarria izan da. Nahiz esan behar dudan, bakeak ez duela ezelako ordainik behar. Bakea eskubide bat da.

> **"Botoa ematen duenak beti du hanka sartzeko arriskua, baina konpromisoa hartu behar da"**

■ Eskubidea da ere presoak Euskal Herrian egotea. Zer iritzi duzu, Espainiako Gobernuak harturiko azken neurriari buruz?

Urrats txiki bat da, beranduegi datorrena zoritxarrez. Ze, orain urte bat Eusko Legebiltzarrak presoak Euskal Herriratzea eskatu bazuen, eta Madrilgo kongresuak espetxeetako politika flexibilizatzeko erabaki bat hartu bazuen ere, erabakioi entzungor egiten diote Espainiako Barne Ministeriotik. Bide txarretik goazela uste dut, zelako-halako lasaitasun baten truke, presoak instrumentalizatzen ari dira. Eta eskubideek ez dute trukerik, eta trukean erabiltzen ari dira, eta estatuko komunikabideen bitartez lortzen ari dira zoritxarrez: *«Esto es a cambio de la consolidación de no se que...».* Eskubide bat da, eta eskubidea bete behar dute, eta kitto.

■ Eskubide bat da, eta ez da betetze. Honek garamatza pentsatzera, gatazk honetan erabakiaren sujetua ez dela agitu oraindik. Zuretzat argi al dago?

Nik ez dut ezelako zalantzarik: Euska Herria.

■ Eta euskal gizartea ere, baina alferri



JOSEBA OLALDE

kakoa da...

Badakigu jakin. Eta gizarte honek be rriz ere ozenki aldarrikatu behar du, gu gare la etorkizuneko erabakiak hartuko ditugunak.

■ Lizarra-Garazi adierazpenak harturiko bidetik betiere...

Lizarra-Garazi oso demokratikoa da eta berean biltzen diren alderdi politikoen eta pertsonen eskubidea. Baina, Lizarra-Garazi herren dago herri honen parte bat falta delako. Ajuria Eneko mahaia herren zen bezalaxe. Han, % 15 falta zen, eta oraingo honetan beste parte bat falta da ere. Lizarra-Garazi eskubide bat da, baina ez da behar den neurriko topaleku bat.

■ Neurriko topaleku izan dadin PSOE eta PP bildu beharko lirateke berean. Ametsa dirudi...

Ametsa zirudien duela urte bat HB edo EH horrelako mahai batean ezarrita egongo zenik. Une honetan hor dago. Baina ez da nahiko, ez gagozelako denok. Denok jarri behar dugu kartak ahoz gora ipini, lasai hitz egin.

■ Ajuria Enea eta Lizarra-Garazi artean eratu bide liteke hirugarren mahai bat. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria gai ikusten duzu beraz gauzatzeko?

Ibarretxe lehendakaria ahalegintsua da, ez da une batetik bestera ahultasunean jausten den pertsona. Hala ere, datorren hauteskundeak igaro ar-

POLITIKO GRINATSUA

Arratiako Areatzan sortua 1941ean. 1977an sartu zen EAJn. 83tik 91ra Bizkaiko Batzar Nagusietako ahalduna izan zen. 91tik 98ra, berriz, Herrizaingo sailburua. Pozik bete omen zuen bere betebeharra, eta kontzientzia oso lasai duela dio. Ez omen du bere bizitza gorrotoan oinarritu, eta iraganarekin lasai bizi da. Eusko Legebiltzarreko presidente bezala askoz lasaiago bizi da, ordea. Gaua gaua delako eta asteburua asteburu.



JOSEBA OLALDE

■ «Europan zehar ozenki esan behar dugu, gure herria normalizatu gabeko egoera batean bizi dela. Hitza da herri honen oraingo bidea».

te gauzak ez dira aldatuko. Ze, zoritxarrez, bai bakea edota espetxeratuen mugimenduak, etekin politikoa ateratzeko erabiltzen dira. Negargarria da. Hauteskundeak igaro ostean beste une batean sartuko gara.

■ Bien bitartean, alderdi abertzaleak Udalerrien Biltzarra eratzen ari dira. EAJrekiko errezelu puntu bat ageri da. «Zazpiak Bat» baino «Hirurak bat» ote da EAJren ikurra?

Nire bihotzean Euskal Herria dago: «Zazpiak Bat», baina horrek ez gaitu erotu behar. Pausorik pauso joan behar dugu. Gure gatazkarik handiena epe laburrean Madrilekin da, baina epe luzera ez. Zeren eta herri honek nahiko balu Espainiagaz edo Frantziagaz moztea ezinezkoa litzateke gelditzea. Madrilen edo Parisen arazoa izango litzateke. Horretarako baina, herri honen gehiengoa behar da, % 80tik gora. Indar hori balego, ez legoke borondate hori zapalduko lukeen armadarik. Arazoa da, gure herri honen borondatean ez dela halako gehiengorik. Baina gehiengo hori etorri egingo da. Hamar urte, hogei urte edo berrogei urte igaro beharko dute, baina etorriko da. Horretarako, gure eguneroko ekintzetan zein munduan gagozen sartuta kontuan hartu behar dugu.

■ Iragan azarotik Eusko Legebiltzarreko presidentea zara. Zer suposatu du zuretzat aldaketak? Zer espero duzu?

Euskal Herriko zati baten gehiengo baten borondatea kokatzen den erakundearen presidentea izatea ohore handia da niretzat. Ikaragarrizko poza daukat, inoiz ikusi gabeko argazkia ikusten dudalako; gizarte guztia ordezkatua dagoelako. Lehen ez zeuden denak, eta gaur ni nagoen lekutik argazki hori ikusteak hunkitu egiten nau. Lehen politika egiten ez zutenak, edo euren politika mota egiten zutenak, gehiengoak egiten zuen politikara sartu dira zorionez. Bide onetik goaz, baina akordioetara iritsi beharko da. Politikan botoa eman behar da, konpromisoa hartu behar da, hanka sartzeko arriskuagaz, zeren botoa ematen duenak beti du hanka sartzeko arriskua. Konpromiso horretan sartuta gagoz, eta itxaronpetsua naiz.



JOSEBA OLALDE

"Ez dut pentsatu inoiz, ETAn hiruzpalau astopotro bakarrik zeudela"

■ Ikasturte politikoa hasi da, eta politikoak gizartearen atzetik doazela dirudi. Gatazkaren ebazpenean, kasu.

Politikoak gizartearen atzetik doaz sarri askotan, ez kasu honetan bakarrik. Zuhurrago eta bizkorrago izan beharko genuke politiko guztiok. Behintzat gizarteak zer gura duen usaintzeko. Euskal gizarteak bazekien gurea gatazka politikoa zela, eta berau konpontzeko gogorkeria gelditu behar zela. Gogorkeria gelditu da, eta gure izaera eta gure arazo politikoa hobekiago bideratuko dela itxaroten dut.

■ Dena dela ere, Eusko Legebiltzarrak ez du bermatzen herri honen berezko izaera. Kurduekiko harremanaz ari naiz.

Esan nuen, eta berriro diot: lotsagarrizkoa da Madrilgo Gobernuaren jarrera. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak guri arrazoia emango digula itxaroten dut. Erabakia hartu barik dago oraindik. Guk gure aretoan nor hartu behar dugun ez digu inork agindu behar, gure eskubidea da, gure herriaren eskubidea da. Benetan penagarria da Madrilgo Gobernuak kurduen asuntoa Espainiako Auzitegi Konstituzionalera eramatea.

■ Baina egin egiten dute. Europako Auzitegian autonomia fiskalari buruz jarritako helegitea ere hor dago...

Horregatik, guk egunero apurka eta urratsez urrats behar dugu gure gizartearekin bat egin, jendeagaz berba egin, eta gauza horiek ez daitezen gerta lortu. Europan zehar ozenki esan behar dugu, gure herria normalizatu gabeko egoera batean bizi dela. Baina normalizatzeko hitza da bidea.

■ Legebiltzar honetako Rakel Peña mahaikideak, herritarrek bertan parte hartzeko aukera gehiago zabaltzea eskatu du oraindik orain.

Herri ekimena leku askotatik etor daiteke. Baina nagusiki, herriak lau urtean behin aukeratu eta hemen biltzen diren 75 pertsona hauengandik dator, nik uste. Kontuan hartu behar da, ezin dela herria zoratu egunero. Sinadura bitarteko bidea irekita dago hala ere. Une honetan badugu aurreko legealditik datorren herri ekimen bat eztabaidan. Gehiago azkartzea eta zabaltzea guztion egitekoa da ●

◆ MIKEL ASURMENDI

UDAL HAUTETSIEN BILTZARRA

1917an eta 1931n ere egin ziren Euskal Herriko udalen biltzarrak eta, oraingoan legez, ez burrundara barik gainera. Oraingoan, Bilboko Euskalduna Jauregiak hartu dio txanda Iruñeko Gaiarre Antzokiari; hantxe bilduko dira ehundaka hautetsi datorren larunbatean.

EREMU SINBOLIKOTIK ERREALITATERAKO JAUZIA

ALBERTO ELOSEGI

■ Aurreko eta lehenengo Biltzarra Iruñean egin zen, otsailaren 6an.

Datorren larunbatean, hilak 18, bilduko da Udal Hautetsien Biltzarra Bilbon, goizeko 11etan Euskalduna Jauregian. Bere lehenengo lan biltzar ofiziala izango da, Iruñean otsailaren 6an egin zena ekaineko udal hauteskundeen ondoren Biltzarraren eratze deialdia egiteko baitzen.

Iruñeko haren atarian giro aldrebesa sortu zen Biltzarraren inguruan, alderdi estatalistek —Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak— eta komunikabide nagusienek gogor egin zuten Biltzarraren izaeraren aurka, egungo marko juridiko-politikoaren erakundeen aurka zela zabalduz. Eusko Alderdi Jeltzaleari egokitu zitzaion erasoaldiaren zamarik handiena bizkarreratzea. Beste giro batean dator Bilbon egingo den hau, nahiz eta PP eta PSOE aspalditik ari diren Biltzarraren aurkako adierazpenak egiten.

Edozein modutan, otsailekoarekin erkatuz, erabateko beste giro batean dator Bilboko biltzar hau. Batetik, Lizarra-Garaziko hitzarmena gauzatu eta ETAk suetena iragarri zuenetik urtebetera; eta bestetik, Espainiako Gobernuak euskal preso politikoen hurbilketa operazioaren zurrunbiloan. Popular eta sozialistak ez bide daude ekimen politikoa Lizarra-Garazikoen esku uztekotan. Presoen traslado operazioa —Espainian bederen— espero bezain ondo saldu du Jaime Mayor Oreja Barne Ministroak. Sozialistek ere iragan larunbatean egin zuten beren ezohiko agerraldi publikoa, Lizarra-Garaziko Adierazpenaren urteurrenaren bezperan: *«Bigarren mailako aktorearen sindromea atzean utzi eta aurrerantzean lehen mailako zeregina betetzeko asmoa du PSE-EEk»*, adierazi zuen Nicolas Redondo Terrerosek. Jarrera hau sustatzeko bidean, sozialistek jadanik iragarri dute beren alkateak bilduko dituztela, *«euskal herriturrek dituzten benetako kezkak EUDELera eramateko»*.

Bost lan batzorde dira: naziogintza, nazioartea, egituratze instituzionala, diagnosia eta teknikoa

Ezker Batuari dagokionez, buruzagitzatik behin baino gehiagotan kritikatu da udal hautetsien biltzar hau, beren ustez egungo egoeran liskarra dakarrelako eta Lizarra-Garaziko Adierazpena horretarako ez zelako. Koalizioko sektore batzuen ustez, alabaina, ez dute gaizki ikusten ekimena eta pentsatzen jardun dute ekitaldian parte hartu ala ez, «Ekaitza» kolektibokoak, esate batera.

EUSKAL HERRIA NAZIO. Zer da, baina, udal hautetsien biltzar hau? Bilera honen deialdia iragartzerakoan, honakoa zioen zuzendaritzako alkate taldearen agiriak: *«Euskal Herria nazioa dela, eta bere lurraldetasuna duela aintzatetsita, euskal sei lurraldeetako udal hautetsien ekimen bateratua proposatzen dugu politika, kultur, soziologi eta ekonomi erkidego gisa definitzen gaituzten lan eta lankidetza esparru guztien inguruan lan egiteko»*.

Iruñetik Bilbora arteko tartean, Batzorde Iraunkorra osatzen zuten hamar alkateek lan proposamen bat egin dute eta datorren larunbatean lan proposamen hori onartu beharko da. Horrez gain, Batzorde

Iraunkor berria eratuko da, lehengo 10 kideko batzordea 15era zabalduz. Lehen bezala, EAJk izango du nagusitasuna batzordean baina oraingoan gehiengo nagusia gal dezake. Prentsan atera izan dira filtrazioak osaketari dagokionez (7 alkate EAJkoak, 4 EHkoak, 3 EAkoak eta bat Iparraldekoa). ARGIAri adierazi zaionez, banaketa hau ez da erabat zehatza, *«gora beheraren bat izan dezake eta»*. Edozein modutan, osaketa honetan hiru irizpide nagusitzen dira: lehena lurraldetasunarena da, Euskal Herriko lurralde historiko desberdinen ordezkapena bilatuz; bigarren irizpidea, alderdi bakoitzak lortutako boto kopuruari lotua dago (hor galduko luke EAJk egungo gehiengo nagusia); eta hirugarrena, hautetsi independenteei ere leku egitea da.

Lana behintzat ez zaio faltako Batzorde honi, zelanbait esateko dena egiteke dago eta. Orain arte alderdi politikoen esku —EAJ, HB, EA eta AB nagusiki— egon da Biltzarraren izaera eta etorkizunera begira, ezin pentsa alderdiak albo batera geratuko direnik, finean udal hautetsi gehienak alderdietako kide baitira, baina biltzarretik ateratako ordezkariak izango dira izaera eta proiektuak finduko dituztenak.

LAN BATZORDEAK. Larunbatean bost batzorde eratuko dira Bilbon. Lehena naziogintza batzordea da: nazio izaera erakusten duten jarduera eta kontuak jorratuko ditu, esate baterako euskal selekzioen kontua. Bigarrena nazioarteko lan taldea: biltzarrak egindakoa edo proiektuan duena atzerrira zabalduko duena eta, oro har, atzerriko harremanez arduratuko dena. Diagnosi batzordea: hau da, apika, batzorderik esanguratsuena, Euskal Herriak bizi duen egoeraren diagnosia egin behar baitu eta honen arabera emango direlako urrats asko. Hasteko, diagnosi batzorde honetan Euskal Herriarentzat estrategikoak diren alorrak landuko dira: euskara eta euskal kultura, irakaskuntza, sare ekonomikoa, lurralde antolaketa eta komunikabideak.

Laugarrena, egituratze instituzionalaren lan-taldea da: diagnosi taldetik ateratako ondorioen arabera egingo du lan, ikusitako gabeziak eta beharrak aurrera eramanez; egungo egituratze instituzionalaren azterketa ere egingo du. Eta, azkenik, batzorde teknikoa, izenak berak dioen legez, kontu teknikoagoez arduratuko da: izena, egoitza, finantzaketa, barne funtzionamendua...

Hau da, besteak beste, egungo Batzorde Eragileak landu duena eta larunbateko biltzarrak onartu beharko duena. Proposamena aurrera ateraz gero, Batzorde Eragile berriak aipatu batzordeak martxan jarri beharko ditu. Batzorde Eragile berria eta batzordeen proposamena onartuz gero, adierazpen politiko bat onartuko da, Iruñean egin zen bezala. Ez da adierazpen honen edukiaren berririk baina, antolatzaileen esanetatik jakinarazitakoaren arabera, *«Euskal Herriak nazio izateko duen bokazioari eutsiko dio»*. *«Iruñeko ekitaldia eremu sinbolikokoa izan bazen, oraingo hau plano praktikoan bilakatuko da»*, diosku biltzarraren antolatzaileetako batek.

Izaera mistoa izango du, udal osoak ordezkatuak egon ahal izango dira eta baita zinegotziak bakarrik ere

Gauza asko dago airean oraindik, izenetik hasi eta bere zeregin eta eraginkortasuneraino. Iruñeko otsaileko bilkuraren izena Udal Ordezkarien Biltzarra izan zen. Oraingoan Udalen eta Udal Hautetsien Biltzarra izan liteke baina oraindik erabat zehaztu barik dago; aipatu izen honi erreferentzia egin diezaiokeen hitz bakarreko beste izenen bat ere izan liteke. Edozelan ere, izen proposamenak berak biltzarraren izaera mistoa azaleratzen du: udalbatzak onartzen duenean, udaletxe osoa egongo da ordezkatua biltzarrean, baina helburu hori lortzen ez denean, zinegotziak beren kabuz eta beren botoen ordezkaritzarekin izango dira biltzarrean.

Aurrerantzean, beraz, neurgailu bat gehiago izango dugu abertzaletasunaren indarrak neurtzeko, kontatzen dakienak hasieratik kontatuko baitu zenbat udal dauden ordezkatuak eta zer eratako udalak diren, bai populazioari zein beste ezaugarri batzuei dagokienez. Euskal hiriburuetatik Iñaki Azkuna Bilboko alkatea izango da Euskalduna Jauregian agertuko den bakarra. Zinegotzitan, aldiz, Biltzarrean izango diren alderdiek zinegotzi gehiago daukate. Hiriak eta herriak, berriz aurrez aurre?

Aro garaikidean, Euskal Herria bere osotasunean ordezkatuko duen lehen instituzio politikoa izango da. Ezker abertzaleko buruzagi desberdinek sarri adierazi izan dute udal izaeradun biltzarra izango dela lehena baina gero etorriko direla beste batzuk. ETA bera, abuztuaren bukaeran ateratako komunikatuan, Euskal Herri osoa ordezkatuko duen parlamentuaren beharraz mintzatu zen.

Ez du lan samurra izango biltzarrak, jarritako helburuak txantxetakoak ez direlako eta ingurune mediatikoa ere ideiak bidean zangotrabatze lanetan trebea delako. Dena den, praktikaren eramu gaitzean nola moldatzen den ikusi ahal izango dugu datozen hilabeteetan ●

◆ XABIER LETONA

ALBERTO ELOSEGI

■ Zinegotziak beren presentziaren sinadura idazten, Iruñeko Biltzarrean.

KOOPERATIBEN BIZIRAUPE

Euskadiko Kutxak (EK) 40 urte beteko ditu irailaren 23an. Erakunde hau 1956an Arrasate inguruetan sortutako mugimendu kooperatiboaren diru beharrei erantzuteko sortua da, eta gaur egun Euskal Herri osoan zehar dago hedaturik, munduko hainbat lekutan eredutzat ere hartzen delarik. 40 urte hauetan etengabe hazten joan da Euskadiko Kutxa, eta urtez urte mozkinen batez bestekoak gora egiten du. 1998ko azken ekitaldian 18.509 milioi pezetako (740 milioi libera inguru) etekinak izan ditu zerga aurretik. Txosten honetan, EKren historiako gertaera esanguratsuenez gain, egungo zuzendaritzari eginiko elkarrizketa, Mondragon Corporación Cooperativari buruzko edota euskal mugimendu kooperatiboaren arima izan zen Jose Maria Arizmendiarretaren inguruko berri ere aurkituko duzu.

■ Arrasaten, Olandixoko magalean du Euskadiko Kutxak egoitza nagusia; orotara 256

Gaur 40 urte jaio zen Euskadiko Kutxa (EK), Leintz haraneko kooperatiba hasberrien beharrei erantzuteko asmoz. «*Kooperatiben biziraupen eta hedapenari mesede egingo liokeen ingurune propioa sortzea zen helburua, berez haien kontrakoa den ingurune kapitalistari kontrajarriz*». Hala dio behintzat EK-k bere garaian «Gure esperientzia kooperatiboa» izenburupean argitaratutako eskuorri batek, zeinak euskal erakunde honen jatorriaren gaineko hainbat daturen berri ere ematen duen.

40ko hamarkadan Leintz harana gerraren ondorioak pairatzen ari zen oraindik eta burdin industrian tradizio luzea izanda ere, faltan zituen garapen ekonomikorako aukerak alor askotan, hezkuntza alorrean batez ere. Egoera honetan zeudela iritsi zen 1941ean Arrasatera Jose Maria Arizmendiarreta, gaza kontzientzia eta lan gatasun handiko apaiz gaztea. Gutxik uste zuten orduan euskal mugimendu kooperatiboak izan duen hedapena izango zuenik. Eta ar gutxiago EK bezalako erakunde batek jaio eta 40 urtera horrenbesteko arrakasta izatea, bere kaudimenari esker nazioarteko oniritzia ere jasoz. Garai hartan hain famatu bilakaturiko «libreta edo maleta» lelo hark aurreztearen garrantzia azpimarratzea zuen

> **"Ingurune propioa eratu beharra zeukaten definizioz aurka zuten ingurune kapitalista batean biziraun eta garatzeko"**

ETA HEDAPENAREN GILTZARRI

ALBERTO ELOSEGI

zka eta hauetan 1.445 pertsonak egiten du lan.

helburu, bai kooperatiben eta bai Euskal Herri osoaren garapenari begira.

ARRASATEKO LANBIDE ESKOLA. Apaiz gazte honek egindako lehenengo gauza 1943an Lanbide Eskola sortzea izan zen. Demokratikoki kudeatua eta eskualdeko gazte guztiei zuzendua, bertako oinarrizko hezkuntza aukera bilakatu zen. Lanbide Eskola erabakigarria izan zen esperientzia kooperatiboaren jaiotza eta garapenean, gazteak bi arlotan heziz: arlo tekniko-profesionalean, eskualdeko industriaren beharrei erantzuteko, eta arlo sozialean, doktrina sozial eta kristauan oinarriturik.

Horrela, lan eskerga egin ondoren, Leintz haranean autokudeatutako lehen lan elkarteak sortu zituzten gazteak irten ziren Eskolatik, ikasketekin batera enpresa ka-

MCC-ko Finantza Taldearen ardatz

Euskadiko Kutxa Mondragon Corporación Cooperativako Finantza Taldearen ardatza dugu, Lagun Aro eta Aroleasingekin batera. Talde boteretsu honek bilioi bat pezetatik gorako (40.000 milioi liberatik gorako) salmentak espero ditu aurtengo ekitaldian, iaz baino % 15 gehiago. 90.000 milioi pezetako inbertsioak ere espero dira, iaz baino % 24 gehiago, plantila 46.000 langilera iritsiz. Etekinak, berriz, 75.000 milioi pezetakoak izatea espero da aurten.

MCCren salmentak 884.617 milioi pezetakoak izan ziren 1998an: 390.133 milioi Industria Sailari esker eta beste 494.484 milioi Banaketa Sailari esker. Inbertsioak 68.279 milioi pezetakoak izan ziren: 28.575 milioi Industria Sailean, 36.494 milioi Banaketa Sailean, 2.702 Finantza Sailean eta beste 508 Jarduera Korporatiboetan. Langileak 42.129 ziren 1998ko abenduaren 31a arte: 19.585 Industria Sailean, 20.182 Banaketa Sailean, 1.858 Finantza Sailean eta beste 504 Jarduera Korporatiboetan.

Pixkanaka, MCC gero eta nazioartekoago bilakatzen ari da, bere Industria Sailean bereziki. Aipatzekoa da orain lau urte bere fakturazioaren % 35 esportatzen bazuen, 1999rako % 50 izatea espero dela, fakturazioa 430.000 milioi pezetakoa izanik, hau da, aurreko urtean baino % 10 gehiago

Antonio Cancelo da MCC-ko lehendakaria.

EUSKADIKO KUTXAREN DATU ESANGURATSUENAK

Urteak	1998	1997	1996
Negozio-bolumena *(milioi pezetatan)*			
Baliabide propioak	111.289	98.183	85.537
Bezeroen gordailuak	697.279	601.551	607.434
Bitarteko baliabideak	949.769	839.075	734.711
Kreditu inbertsioa	526.256	451.814	369.677
Baloreen zorroa	168.462	130.000	170.289
Emaitzak *(milioi pezetatan)*			
Marjin normala	40.482	36.688	33.489
Esplotazio gastuak	15.664	14.569	13.546
Esplotazio marjina	18.071	17.728	15.542
Zergen aurretiko mozkinak	18.509	16.340	14.020
Zerbitzuak			
Bulegoak	256	243	233
Kutxazain automatikoak	338	278	274
Txartelak	390.979	349.585	314.231
Giza baliabideak			
Lan bazkideak	1.445	1.404	1.372

EUSKADIKO KUTXAREN LEHEN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

Arrasateko Esperientziaren Oinarrizko printzipioak 1987ko urrian onetsi ziren gure lehen Kooperatiba Biltzarrean eta bertan gure kooperatiba ibilbidearen bizitzan zehar eratu diren ideiak jaso ziren. Hona hemen ideia horien laburbilduma:

I. Atxikimendu Librea
Printzipio honen arabera, irekita gaude sortzen ditugun lanpostuetarako egokiak direla erakusten duten pertsona guztiei.

II. Antolamendu Demokratikoa
Bazkide langileen berdintasunean oinarritzen da eta horrek "pertsona bat botu bat" arauaren araberako antolamendu demokratikoa izatea dakar.

III. Lanaren subiranotasuna
Lana da natura, gizartea eta gizakia bera aldarazten dituen eragile nagusia eta, beraz, sorturiko aberastasunaren banaketan hartzekodun nagusia.

IV. Kapitalaren Tresna Izaera eta Menpekotasuna
Kapitala Lanaren menpe dagoen eta enpresaren garapenerako behar-beharrezkoa den tresna da; eta muga batzuen barruan eta lortu diren emaitzak zuzenean kontuan hartu gabe ordainduko da.

V. Gestioan Parte hartzea
Printzipio honek autogestioa etengabe garatzea dakar eta, beraz, bazkideek enpresa-gestioaren eremuan parte hartzea.

VI. Ordainketa Solidarioa
Kooperatiba bakoitzaren benetako ahalmenen araberakoa eta solidarioa bai Korporazio barruan bai inguru sozialean.

VII. Interkooperazioa
Kooperatiba guztiak batzetik, emaitzen birmoldaketatik eta bazkide langileen transferentziatik datozen sinergia potentzialak bilatzen saiatuta.

VIII. Gizartearen Eraldaketa
Emaitzak berriro inbertitu, lan kooperatiboko lanpostu berriak sortu eta garapen komunitariorako ekimenak bultzatzearen bidez.

IX. Izaera Unibertsala
Bake-, justizia- eta garapen-helburuak bere eginez demokrazia sozialaren alde lan egiten duten guztiekin solidarioa.

X. Hezkuntza
Kooperatiba- eta enpresa-prestakuntzari beharrezko giza eta ekonomi baliabideak zuzenduta.

pitalistetan lan egin eta gero. Eskola horretako bost gazte izan ziren, hain zuzen, 1956an gaur egungo talde kooperatiboaren lehen unitate ekoizlea sortu zutenak: ULGOR. Petrolio bidezko berogailu eta sukaldeak egiten zituen bere hastapenetan eta lehenengo harria apirilaren 14an jarri zen, Arrasateko San Andreseko lursailetan. ULGOR sortzeak demokratikoki kudeatutako enpresa moderno bat eraikitzea zuen helburu, honako hau azpimarratuz: «*Berau osatzen dugunon asmoa langileek bere duintasunari zor zaizkion eskubide guztiak izatea da, horretarako ekoizpen prozesuan ezinbestekoak diren gainontzeko elementuak estrukturalki eskubide horien menpean jarriz*» (ULGORen barne arautegian jasoa).

Horrexegatik hartu zuten, hain zuzen ere, Elkarte Kooperatibo izaera Espainiako legeriak eskaintzen dituen enpresa eredu guztien artean, sustatzaileen asmoei hobe egokitzen zitzaiena zelako.

ULGOR ez dugu kasu bakarra, ordea: kooperatiba berriak sortu ziren ingurune horretan 50eko hamarkadaren azken urteetan, hala nola: Funcor, Arrasate eta Cooperativa de Consumo San José delakoa, gaur egun Eroski dena. Guztiek ere antzeko arazoak zituztela ikusi zuten laster: nahi bezala garatzeko baliabide ekonomikorik eza; Gizarte Segurantzarik eza, bazkideek zeukaten norberaren konturako langile izaeragatik; koordinaketarik eta laguntza tekniko zein ekonomikorik eza, kooperatiben tamaina txikiagatik.

Bere arduradunen esanetan, azken batean «*ingurune propioa eratu beharra zeukaten definizioz aurka zuten ingurune kapitalista batean biziraun eta garatu ahal izateko*». Oinarrizko arazo hori ikusteak eta aipatutako beharren premia ulertzeak ekarri zuten gorago aipaturiko lau kooperatiben elkarketa 1959an, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito sortuz. Garai berri baten hasiera ekarri zion honek Euskal Herriko mugimendu kooperatiboari, etengabeko elkartze prozesu bat ateak zabaldu baitzizkion. Horri esker Grupo Cooperativo Asociado eratu zen.

Arizmendiarreta, euskal mugimendu kooperatiboaren arima

Duela ia 60 urte, 1941ean Arrasateko San Juan Bautista Parrokiara lagunkide gisa bidali zuten Jose Maria Arizmendiarreta apaiz markinarra Euskal Herriko gerra osteko mugimendu kooperatiboaren arima eta sustatzailea izan zen. Gurean eta atzerrian, hala da eta hala izango da beti aitortua. 1915eko apirilaren 22an Markinan jaioa, ordenatu aurretik gerra zibilean hartu zuen parte, «Gudari» eta «Eguna» egunkarien sorrera eta zuzendaritzari esker gure herria hondatu zuten gertaera odoltsu haien lekuko izan zelarik.

Elizaren doktrina sozialean aditua, pragmatismo eta lan gaitasun handiko gizona, don Jose Mariak —horrela deitzen baitzuten— gerra osteko euskal mugimendu kooperatiboaren etengabeko sustatzailearen rola bete zuen bere heriotza arte, 1976ko azaroaren 26an, kooperatzaile guztien erreferentzia puntu naturala bilakatuz. Izanda zuen jada 1968an bularreko angina zantzu bat, eta hori zela-eta, velosolex batekin ordezkatu zuten bere bizikleta famatua. 1974an bihotz ebaketa egin zioten baina bi urte geroago hil zen.

Ez litzateke bidezkoa izango don Jose Mariarekin batera euskal mugimendu kooperatiboan berebiziko garrantzia izan duten beste batzuk aipatuko ez bagenitu: ULGORen sortzaile izandako Luis Usatorre, Jesus Larrañaga, Alfonso Gorroñogoitia, Jose Maria Ormaetxea eta Jabier Ortubai, hain zuzen ere. Gizon horien esanetan, Arizmendiarreta apaiz gaztea izan zen prozesu osoaren giltzarri. Bere kooperatibismoaren inguruko pentsaeraren berri izan dezagun, hona hemen bere bizitzan zehar egindako zenbait gogoeta:

«*Kooperatiba multzoak kooperatiba edo enpresa bakarrak izan duen kontzeptu familiarra behar du izan; are gehiago, esan genezake kooperatiba berri hauek aurretik zeuden zentroetan federatuta behar dutela, bere garapena babestu zuzenduko duen azpiegitura izan dezaten hasiera hasieratik*». (1968ko iraila)

«*Esperientzia kooperatibo honek eta garbi utzi du langileak etorkizun handiko jarduerarako prest daudela. Kooperatiban guztiok gara guztiaren tzule*». (1969ko maiatza)

«*Lan Kooperatibek, enpresa gisa, har bezalako baliabideak izan zitzaten baki zen Cooperativa de Crédito sustatu. Sustapen lana ez da enpresa moderno ten lan garrantzitsuena, gaur egungo rapen azkarrak eskatzen duen ondoren mantentze eta garapen lana bai*». (1969ko maiatza)

«*Elkartasun irekia da, hedakorra, presa jarduera jakin horretan interesa dagoen komunitateko taldera mugatu*

gaur egungo Mondragón Corporación Cooperativa (MCC), alegia.

Euskadiko Kutxaren lehenengo bulegoa Arrasateko Ferrerias kalean zabaldu zen 1960an eta zertxobait beranduago Don Jose Maria Resusta kalera aldatu zuten, gaur egungo Iturrioz kalera, alegia. EKren lehenengo hedapen mugimendua 1962an gertatu zen, Aretxabaletako bulegoa zabaltzearekin batera. Urtebete beranduago, beste sukurtsal bat ireki zuten Oñatin. Talde kooperatiboa handituz zihoan heinean (36 ziren jada 1966an), Euskadiko Kutxa ere hazten zihoan eta 1966an Gernika, Eibar eta Legazpiraino hedatu zen. 24 bulego zituen ordurako.

1968an EK-ko Ezohiko Batzar Nagusiak Lagun Aroko estatutu berriak onartu zituen, kooperatibek eta bazkideek epe luzean zein laburrean jasan zitzaketen arazoei aurre egiteko asmoz.

1971rako 100.000 aurreztaile zituen EK-k. Gordetako aurrezkiak 1970ean baino % 50 gehiago ziren, banketxeen batez besteko hazkundea % 22koa eta Aurrezki Kutxena % 19koa izan ziren bitartean.

Bere 25. urtemugan, 1984an, 155 sukurtsal zituen EK-k (18 Araban, 55 Gipuzkoan, 28 Nafarroan, 51 Bizkaian eta 1 Madrilen). Baliabide propioak 11.987 milioi pezetakoak (480 milioi libera inguru) izan ziren, hartzekodun baliabideak 119.144 milioi pezetakoak eta banku inbertsioa 63.458 milioi pezetakoa. EK pixkanaka hedatuz joan da eta 1998ko azken datu ofizialak zein aurtengo lehen sei hilabetetako datuak nahiko dira bere hazkundea baieztatzeko. Gauzak horrela, orain arteko azken ekitaldia denak, 1998koak, zera dio: EK-k 256 bulego eta 1.445 langile ditu, 11.289 milioi pezeta dauzka baliabide propiotan, 697.279 milioi pezeta bezeroen gordailutan, 576.256 milioi pezeta mailegu inbertsiotan eta 18.509 milioi pezetako mozkinak zerga aurretik. Aurtengo lehen sei hilabeteetan berriz, 15.542 milioi pezetako etekinak izan ditu, 1998ko epe berean baino % 10,3 gehiago. Gordailu erakartzean izandako % 12,6ko igoerari zor zaio hazkunde hau ●

◆ DANIEL UDALAITZ

EUSKADIKO KUTXA

■ Eraikin honek barne hartu zuen EKren lehen bulegoa.

dena. Elkartasun horren izaera dinamiko eta hedakorra honako hauen bitartez gauzatzen da: aurrerakinak eskualdeko batez besteko soldatari egokitzea, kontsumo maila solidarioa bereganatzea eta aktibitatearen emaitza orokor zein garbiak aplikatzea, bazkideen izpiritu eta batasun sentimenduaren adierazgarri». (1969ko azaroa)

«Ezerk ez ditu gizaki eta herriak bereizten, bizi dituzten baldintzen aurrean harturiko jarrerek baino gehiago. Historia egin eta gertaeren norabidea euren kabuz aldatzeko apustua egiten dutenek alde handia aterako diete aldaketa horien ondorioen zain geratzen direnei». (1973)

«Gure herrian ulertu eta gauzatu dugun bezala, kooperatibismoak eginkizun zehatza du, ez beste indarren berdin-berdina baina bai elkarren osagarri eta Herriaren kausaren protagonista diren besteak bezain garrantzitsua». (1973ko apirila)

■ Jose Maria Arizmendiarreta apaiz markinarra 1976an hil zen.

«Orainak, bikainena izanik ere, galkortasunaren aztarna dakar bere baitan etorkizunetik urruntzen den heinean. Ezin dugu ez gelditu ezta etorkizun horretan sartzeari uko egin ere, aldaketa eta lastertasuna jaun eta jabe ditugun garaiotan zentzugabeki jokatu nahi ez badugu behintzat». (1974)

«Enpresak ez du eraginkortasuna ekartzen dion bertuteetatik bat bera ere galtzerik; aitzitik, giza baloreak baliabide ekonomiko eta materialen aurretik jartzeak eraginkortasuna eta kalitatea areagotu beharko lituzke» ●

Egungo Euskadiko Kutxako arduradunak gero eta globalagoa den mundu honetan bere nortasuna mantenduz aurrera jarraitu ahal izango dutelakoan daude, nahiz eta elkarlan formularen bati ez lioketen uko egingo.

"GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALEAN LAGUNDU DUGU"

■ EK-ko lehendakari Juan Maria Otaegik kutxa honen eraginkortasun eta kaudimen ratioak nabarmentzen ditu.

Euskadiko Kutxako arduradunak pozik ageri dira Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta sozialari mesede egin izanagatik. Era berean, Euskadiko Kutxak hasitako «olio orban» moduko hedapenak jarraitu egingo du seguruenik, 2001-2004rako prestatzen ari diren plan estrategiko berriaren arabera. Hori da behintzat EKren 40. urtemuga dela-eta bertako zuzendaritzak ARGIAri erantzundakoetatik labur daitekeena).

■ Zein da 40 urteotaz egin dezakezuen balorazioa?

Oso baikorra oro har, zehazki euskal gizarteari eskerrak eman nahi dizkiogu beti eman digun konfiantza eta laguntzagatik, eta benetan pozten gaitu Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta sozialari lagundu izanak.

■ Zeintzuk izan dira aurrera egiteko izan dituzuen oztoporik zailenak?

Zailtasun nabarmenenak hasieran sortu ziren, jakina; hori bi arrazoi nagusik eragin zuten: alde batetik, gure hasierako tamaina txikiak, eta bestalde eragiketa mailan legeak ezarritako mugak, zeinak arrisku handiegia kontzentratzea ekar zezakeen.

Momentu honetan, Euskadiko Kutxak tamaina ertaina du Espainiako Kreditu Erakundeen artean (berriki bilioiaren marka gainditu dugu bezero baliabideen kudeatzeari dagokionez) eta ez dauka inongo muga berezirik, beste erakundeekin berdintasun egoeran lehia dezakeelarik.

■ Zein da gaur egun EK-k MCC barruan duen lekua?

Euskadiko Kutxa Korporazio hau osatzen duten hiru taldeen artean dago eta honen Finantza Taldeko ardatza da. 1991z geroztik, lehen Euskadiko Kutxak kooperatibako kideekiko garatutako promozio, aholkularitza eta kontrolaren gaineko funtzioak Korporazioko Zerbitzu Zentraletara pasa dira, gure entitatearen jarduera banku

esparrura mugatuz. Hala eta guztiz ere, Euskadiko Kutxa bere Kooperatiba kideen finantzatzaile nagusia da, nahiz eta orain hori arrisku-sakabanatze esparru batean egiten den, Kooperatibekiko eragiketei lehentasunezko merkatu egoera ekonomikoak aplikatuz.

■ Zer etorkizun du Euskadiko Kutxak finantza munduaren globalizazio testuinguru honetan?

Merkatu zabaltzeek eragiten duten lehen ondorioa konkurrentzia bortitzagoa sortaraztea da, horrek entitate eraginkorrenei etorkizun ikuspuntu hobea ematen dielarik. Zentzu horretan, Euskadiko Kutxaren eraginkortasun eta kaudimen ratioak oso nabarmenak dira banku sektorean: Financial Times Taldeko «The Banker» aldizkariak 65. postuan kokatzen gaitu kaudimenari dagokionez, eta 90.ean banku eraginkortasuna kontuan hartuta.

Horrez gain, aski jakina da enpresen errentagarritasunak eskuratzen duten merkatu kuotarekin lotura estua duela, baina ez kuota orokorrarekin, enpresak bere esparruan duen merkatu kuotarekin baino. Hau da, zenbat eta sartuagoa merkatu konkretu batean, orduan eta handiagoa izango da enpresaren errentagarritasuna. Bertako merkatuan, gure esparruan dugun merkatu kuota gure lehiakideena baino handiagoa da, gure aurretik lurralde bakoitzeko kutxa nagusia bakarrik kokatzen delarik. Beraz, badugu etorkizunarekiko baikor izateko arrazoi franko.

■ Posible al da Euskadiko Kutxak bere kasa lan egiten jarraitzea, azkenaldian banketxe eta kutxetan gertatzen ari diren bategite eta kontzentrazio prozesuetatik at?

"Euskadiko Kutxan badugu gure lankide izatea nahiko genukeen entitatearen erretratu robota"

Gogorra litzateke entitate batek bategite edo kontzentrazio joera orokorretatik at lan egiten jarraitu beharko lukeela baieztatzea, eta zalantzarik ez izan beste kutxa edo bankuekiko hainbat lankidetza formularen bila gabiltzala. Euskadiko Kutxan badugu gure lankide izatea nahiko genukeen banku entitatearen erretratu robota ere, baina oraindik ez dugu aukera zehatzik hautatu, ez baitugu momentuz orain arte Espainia mailan egiten ari garen hedapen arrakastatsuak baino balio handiagoa emango digun lankidetza alternatibarik topatu.

■ Euskadiko Kutxak bere hedapenarekin jarraitzeko asmoa al du etorkizunean?

Indarrean den 1997-2000rako Plan Estrategikoan «*olio orban*» moduko hedapen eredua ezarri zen entitate honi hobe doakiona delakoan, dagoeneko sukurtsalak ditugun leku berrietan garrantzia handiagoa hartzeko asmoz. Orain arte hedapen hori Errioxa eta Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoetara mugatu da, non 2000. urtean zehar hedatzen jarraituko dugun.

Momentu honetan 2001-2004 eperako estrategia adosten ari gara, eta hedapenak jarraituko duela aurreikusten dugu, nahiz eta momentuz ez dakigun zein lekutan gauzatuko den ●

◆ DANIEL UDALAITZ

IRAKASKUNTZA

Herri Urratsen karietara zabaldu zen berria: «Seaskak hirugarren kolegioa zabalduko du barnealdean». Ikasturte berria heldu da, eta erran bezala, Oztibarre eskualdeko Donaixti herrian plantatu ere. Manex Erdozainzi-Etxart oztibandar poetaren izena darama kolegioak.

HIRUAK BAT: XALBADOR, LARZABAL... ETA ERDOZAINZI

ALBERTO ELOSEGI

■ 19 ikasle ditu Manex Erdozainzi-Etxart kolegioak.

■ Iragan astean hasi zituzten eskolak, alokatutako eraikinean.

Garapena da Seaska azken urteotan definitzen duen hitza. Orain 30 urte, lehen Ama Ikastola zabaldu zen Seaska izenez. Aurten, Haur Hezkuntzan 19 eta Lehen Mailan 13 ikastola abiatu dira berriz: 1.300 ikasle guztira. Bigarren Mailan —kolegioak deituak— 348 ikasle hasi dira ere bai: Xalbador, Piarres Larzabal eta Manex Erdozainzi-Etxart. Baionako Lizeoan, bestalde, 100 inguruk dihardute.

MANEX ERDOZAINZI-ETXART. Izenak duen sinbologia erakusten du Iparraldeko barnealdean Bigarren Mailako kolegio bat ireki izanak. Orzaize, Donibane-Garazi, Izura, Donapaleu, Maule eta Atharratzeko ikastoletako gurasoek pausoa emana dute jada: «*Duela bi urte, ikastola horiek kudeatzen ditugun gurasoek ikerketa bat zabaldu genuen. Ohartu ginen barnealdetik jende gutti joaten zela Kanboko Bigarren Mailara. Lehen Maila bukatu ondoren, % 20k bertzerik ez zuen Seaskan segitzen; kostaldetik % 80k egiten zuelarik*» adierazi digu Odile Falxa zuzendariordeak. Barnealdetik Kanboko Xalbador ikastetxera aldatzen ziren ikasleek aste osoa barnetegian eman behar izatea zen arazoa. Seaskako Bigarren Maila zabaldu zenetik, Iparraldeko ikasleen arteko harremana biziki onuragarria izan da. Hiri eta laborari munduko izaeren uztartze aberasgarria, alegia. Jagoitik ez da hola izanen. Ordea, barnealdeak bere kolegioa izateak barnealdea eta kostaldearen arteko indar sozialaren orekatze joera erakusten du. Gainera, pedagogia aldetik bere alde ona ere badu. Hots, etxetik beretik hasten bada pedagogia, Seaskan diharduten ikasleen gurasoek beren seme-alabak egunero ondoan dituzte hezitzeko.

OZTIBARREKO DONAIXTIN. Zuberoa eta Nafarroa Behereko aipatu ikastolak bat zetozen barnealdean kolegio bat irekitzeko ideiarekin. Arberatzeko Gazteluan —Amikuze eskualdean; Donapaleutik iparrerantza— plantatzeko aukera eskaini zitzaien gurasoei. Lekua ez zen erdigunea, ordea. Erdibidean Donaixti dago, eta Arroxelako elkarte batek bertan udalekurako erabiltzen duen egoitza baliatzeko aukera izan dute Manex Erdozainzi-Etxart elkartea osatzen duten gurasoek. Elkarteak eman dio izena kolegio berriari, Odile Falxak argitu digunez: «*Elkartearen lehendakaria Maite Etxeberria da, guraso eta irakasle. Zuzendaria Kanboko kolegioko Maite Andiazabal bera da, eta ni berriz, zuzendariordea. Gure kolegioa, funtsean, une honetan, Kanbokoaren adar bat da. 6. Mailako gela bat ireki dugu Donaixtin*».

Euskara sailaren babeslea:
LEZOKO UDALA
Kultura eta Euskara Batzordea
Etxean ere euskarari emaiozu!
FAMILIAK EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA

OREKATZE BIDEAN. 348 dira Seaskako Bigarren Mailan ari diren ikasleak une honetan: Kanbon 217 eta Ziburun 112; gainontzeko 19 ikasleak Donaixtin. Desoreka handia da oraindik. Funtsean, Iparraldeko populazioaren hedapenaren proportzioa halakoxea da. Nolanahi ere, ziurtzat jotzen da, barnealdeko ikasle kopurua haziko dela hemendik goiti. Izan ere, Seaskako ikasleak frantses kolegioetan ari diren ikasleen baldintza berean mugitzen dira eskolara joan-etorriak egiteko. Lehen pausoa emana da; Odilek dioskunez: «*Une honetan, ikasleak ez dira barnetegian gelditu behar, eta gainera, urrunen bizi direnek beren etxetik oren bat eskas lehenago ateratzearekin aski dute eskolara tenorez iristeko. Seaskako bertze bi kolegioetan ere hola da*». Garraioaren ordainketa, Xalbador, Larzabal eta Lizeoaren kasuan bezala, Kontseilu Nagusiaren gain dago Donaixtikoan ere.

BI URTE BESTERIK EZ. Manex Erdozainzi-Etxart elkarteak hartu duen egoitza bi urterako besterik ez da baliatuko. Alokairuak 4.000 libera (100.000 pezeta) balio du hilabeteko. Anartean, Donaixtiko bizilagunek eta agintariek begi onez ikusi dute bere zabaltzea. Gurasoek ez dituzte izan Ziburuko kolegioko gurasoek agintarien aldetik izan zituzten oztopoak: «*Ziburun ez zuten aise onartu, eta hemen bederen ez da nehor kontra agertu. Areago, jendea kontent da. Oztibarren autista zentro bat zabaldu da berriki, eta aldi berean, Eztigar sagarno kooperatiba handitzen ari da. Bada bizi bat*».

Zalantzarik gabe, kolegio berri honen proiektua abiatzeak itxaropenezko aro berri bat zabaltzen du barnealdeko munduarentzat. Azken hamarkadetan ekonomia aise lerratu da kostaldera, barnealdea hustuz. Honelako ekimenek bertan bizitzeko erronkari aitzi egiteko ahalmena badagoela erakusten dute. Larrazkenean inauguratuko da ikastetxea, eta aldi berean, eraikin propio baten gauzatzeko posibilitateak aztertzen hasiak dira engoitik: «*Lehen pausoa emana da, eta geroari buruzkoak nondik nora eman hasi gara finkatzen*». Barnealde eta kostapartearen arteko harremanen gauzatzeari dagokionez, Seaskak zubi izaten jarraituko du: «*Proiektuak baditugu horri buruz. Aurrerantzean, Ziburu eta Kanboko ikasleekin harremanak landuko ditugu, bistan da*» ●

◆ MIKEL ASURMENDI

A r t u r o r e n k a i e r a

EUSKALDUNTZE KANPAINAK

Euskalduntze-alfabetatzean diharduten elkarte eta taldeek matrikulazio kanpainak abiatu dituzte azken asteotan. Azkenekoak udal euskaltegiak izan dira. Iragan ostiralean EUDELek (Euskadiko Udalen Elkarteak), HABEko zuzendari nagusiarekin eta Udal Euskaltegietako arduradunekin batera, eskaintza eta publizitate kanpaina aurkeztu zuen. Urria aldera hasiko dira eskolak eta ordurako jakin ahal izango da zer-nolakoa harrera izan duten kanpainok.

GELA ELEBIDUNETAN SALTSA

Mendiben (Nafarroa Beherea) Ergarai auzoko eskola okupatzeak ondorio positiboak ekarri ditu: gela elebidunerako irakasle postua onartu egin zuen inspekzio akademikoak. Hendaiako Joncauz auzoko eskola egoera berean zegoen eta honentzat ere irakasle postu bat onartu da elebitasuna ziurtatzeko. Bidarraiko eskola elebidunean haatik, ez dute irakasle berririk onartu oraino.

"HIK HASI"-REN GIDA

«Hik Hasi» euskal heziketarako aldizkariak «Euskal Herriko Baliabide Pedagogikoen Gida»ren bigarren edizioa kaleratu du. Duela bi urteko lehen edizioak irakasleen artean izan duen harrera ona ikusirik, berriro argitaratzea erabaki dute, «berritu, egokitu eta osatua». Orotara 148 orrialde dauzka eta zazpi ataletan banatuta dago: Historia eta Artea, Zientzia eta Ingurugiroa, Kirolak, Nekazaritza Prozesuak eta Aterpetxeak, Zerbitzuak, Irakaskuntzako Erakundeak eta Ikasmaterialak.



D EREDUAK GORA NAFARROAN

Urtero errepikatzen den kontua da. Berriki eman dituzte ezagutzera 1999-2000 ikasturteko hiru urteko haur nafarren matrikulazio datuak eta D ereduak nabarmen egin du gora. Haurron % 28,8k eredu honetan ikasiko du (% 1,6ko hazkundea) eta % 28,5ak A ereduan (% 0,7ko hazkundea). Beraz, hezkuntza sisteman lehenengoz sartuko diren haurron % 57,3k euskaraz ikasiko du.

U r r e a

■ Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak «Kirola Euskaraz» programaren —zazpi urteko ibilbidea egin du jada— ekimen berri bat jarri du abian. Kasu honetan Deba arroan zentratuko dituzte ahaleginak eta helburu nagusiak euskaraz jardutea eta kalitatea hobetzea izango dira, lehentasuneko eragin arloak kirol klubak eta eskola kirola izanik.

I k a t z a

■ ErNEk, Ertzaintzan gehiengoa duen sindikatuak, bere webgunea (www.erne.es) gaztelania huts-hutsean dauka ipinita. Euskararen presentzia bakarra «Ertzainen Nazional Elkartasuna» izenean datza. Gainerakoan, loturen atalean «La Voz de Almeria» egunkariarekiko esteka aurkituko duzu baina euskarazko komunikabide bakar bat ere ez.

Iruñeko Pamiela argitaletxeak udaberri honetan kaleratu zuen «Historia de Navarra» izeneko bildumaren lehen alea: «La Navarra Marítima». Bigarren alea ere kalean da: «El Estado Vasco» Mikel Soraurenen liburua, eta Erlantz Urtasunek beraren mamia laburbildu digu.

MIKEL SORAURENEN NAFARROAKO ERRESUMA

Martxoan, korrika kulturala zela eta Nafarroako Erriberako hainbat lagunek «La Navarra Maritima» erosi zutela jakinarazi zidaten. Lasai, Daniel, irakurri dut eta! Bada, ez nekiena zen nolabaiteko jarraipena zetorrela, hau da, aspaldidanik hain beharrezkoa zen eta, gezurra badirudi ere, gure artean hagitz zokoraturik zegoen nafar olatu zintzo honen bigarren kolpea karrikaratzear zegoela.

Maiatzean plazaraturiko liburuaren eskaintzaren mamia laburbiltzeko Mikel Sorauren historialariaren lanaren izenburua nahikoa dugu: «Historia de Navarra. El Estado Vasco». Urzainkiren enbido sendoari Pamielak berak argitaraturiko Jimeno Jurio alkalinoaren «Navarra, Gipuzkoa y el euskara» lanak (ARGIA 1.724) «bortz gehiago» ihardetsi zion, eta hona hemen hordagoa. Ea zeintzuk diren Mikel Soraurenen kartak.

BEHARRA. Edozein beharri «la bearra» diote Nafarroako Erriberan erdaldundutako herrietan. Alta, liburuaren zergatiaren gakoa hori da: «Nafarroako historiaren ezohiko ikuspuntua erakutsi». Izan ere, Iruñeko institutu batean eskolak ematen dituen egileak berak eginiko sarrera sendoa da, erabakiorra, ez du zirrikiturik uzten, era apalean idatzirik dagoen arren.

Erraite baterako, nahiz eta «El Estado Vasco» nabarmendu, sarreran Soraurenek nafar erresumaren balizko garrantzia ere erlatibizatzea txalogarria da. Jende guti ausartuko litzatekelakotz gai tabu honi ekiterat. Zergatik? Errealitatea aberatsagoa zelakotz. Nafar erresuma, euskal porrotaren irudia, bertzerik ez baita! Harritu al zara, irakurle? Nafar erresuma kristaua zen, europar sistemaren zipaio bat zen, eta hori azpimarratu behar da. Bere garaian, «mende ilunak» (*dark ages*) deituriko epe historikoaren amaieran, armada inperialeko soldaduek bertze bideren bat aukeratu zuten euskaldunak erail zituzten, Burgostik Kataluniaraino. Ez dituzue hitz hauek liburu honetan topatuko, baina iradokiten dena atzeman beharra dago. Beharra.

Soraurenek nafar erresumaren balizko garrantzia ere erlatibizatzea txalogarria da

Edonola ere, irakurlea bertan idatzirikoarekin ados egoten ahal da edo ez, baina mahai gainean erronka botata dago, eta bi aukera ditu, hordagoari muzin egin ala Mikelek erakutsiriko kartak ikusi, hots, hain ezezaguna baina benetakoa den proposaturiko euskal abenturan murgiltzea. Lehen atalan, alegia: «Origen del Pueblo Vasco».

Liburuak laurehun bat orri du eta ardatza, agi denez, historia da. Ez ditugu, orain eta hemen pasarte garrantzitsuenak aipatuko, baina bai daturen bat edo bertze islatu. Honela, hasieratik 1512 ospetsua arte liburu erdia baino gutiago luzatzen da, hau da, ia liburu erdia azken bi mendeetan gertaturikoaren gainean aritzen da.

Ez da harritzekoa. Izan ere, egileak 1973. urtean aurkezturiko Ikerketa Egitasmoak (lehenago «tesina» deitu ohi zena) «La Desamortización y las Cortes en el Trienio Constitucional (1820-1823)» izenburua zuen. Eta are gehiago, 1982an

■ Erromatarren eragina begibistakoa izan zen eta gerra karlisten gune garrantzitsua izan zen Euskal Herria.

argitaraturiko «Historia Contemporánea de Navarra» izenekoan XVIII. mendetik eta 1875 arteko tarte historikoa jorratu zuen.

Ildo beretik, Foruak, Karlismoa da lan honetan orri gehien jaso duen azpigaia, hainbatetan karlisten programa politikoa (274 o.) edota Marxen ikuspegi hunkigarria (269 o.) nagusituz. 1982. urtean plazaraturiko «El Carlismo. Bases sociales e ideológicas», baita «Las Guerras Carlistas, causas del conflicto y negociación» ere, honen gibelean dira. Edota 1990eko «En el 150 aniversario de la Ley de 25 de octubre de 1839: Presentación» lana ere bai, jakina.

Honi loturik, gizarte eta ekonomia arloari eskainirikoaren oinarria ere bistan da: 1984ko «Navarra ¿revolución industrial frustrada?», 1986ko «Algunos aspectos de la agricultura de Navarra en el tránsito del Antiguo al Nuevo Régimen» eta «El comercio en Navarra y la unidad de mercado estatal», 1988ko «Política monetaria del Reino de Navarra al final del Antiguo Régimen (1747-1838)» eta «Interpretación de la crisis del Antiguo Régimen en Navarra». Azkenik, 1991ko «La sociedad navarra a la luz del catastro de 1817» ere hagitz aipagarria zaigu.

HISTORIA DE NAVARRA, EL ESTADO VASCO

■ Erresumako Foruen alde zin egin ondoren, altxamendu erritoa zetorren.

Dena den, XX. mendean gertaturikoak ez du horrenbertze arreta jaso, 1936tik aitzinerat deus guti egia erran, baina balizko hutsune hori lau orrialdeko «ondorio gisa» delako baten laguntzaz konpondu du. Hau egitea nahikoa logikoa iruditu zaigu, egilearen asmoa Nafarroak garai batean edozein estatuk zituen egiturak izan zituela jakinaraztea zelakotz. Eta asmo hori Erdi Aroko (erraiterako, Erriberako musulmanak bertakoak zirela oroitaraztea) zein Gerrate Karlisten (gudari karlista arrunten ideologia, nahia zein zen berriro ere argitzea, kasu) inguruko azalpen nahiz hausnarketekin biribildu egin du.

Bertzalde, ez dugu balizko hutsune hartan nolabaiteko utzikeria ikusi behar, gertaera latzen aitzinean egilearen jarrera argi eta garbi erakusten delakotz. Honela, adibide gisa, Errepublika eta Gerra Zibila deiturikoei buruzko atalari «De la Esperanza a la Tragedia» izenburua ezarri die, hots, atal hau irakurtzen hasi aurretik «Nafarroa 1936. De la Esperanza al Terror» liburu ezagunaren izu erraldoia iradokin digu. Gero, lerro artean, 1936ko uztailaren 18aren ondorengo errepresioan (nafarren % 1a fusilatu zuten, Pinochetek eginikoa baino hamabi aldiz gehiago, alegia) eliza katolikoak egin zuena ere azpimarratu du: «batik bat jaunartutako hiltzaileek asasinatuak eta parroko eta antzeko jendilajeak aholkatuak, guztiak katolikoak eta bihotza fedez betetakoak». Egileak hausnarketa hau idazterakoan, apika, Azagrako apaiz hiltzailea, bertzeak bertze, buruan zuen.

BIBLIOGRAFIA ETA ADENDA. Finean, dibulgazio lana den eta hagitz ekarpen interesgarria esan nahi duen liburu honetan bibliografia eta adenda ere aipatu beharrekoak direla uste dugu. Batetik, ehun liburu edota artikulu baino gehiagoren berri ematen baitzaigu, bertan mahaigaineratuan sakondu ahal izaitekotz. Bertzetik, gehigarri gisa aurkezturiko agiri zaharrek, adenda delakoek hain zuzen, antzinateko nafarren, arbasoen ikuspegi politiko eta kulturala erakusten digutelakotz.

Eta ez dira txantxetako gauzak, «Exposición dirigida al Congreso nacional por la Diputación Provincial de Navarra. Año 1820» edota euskararen aldeko jarrera erakusten duen «Memorial de ratonera de las Cortes de Navarra», kasu.

Ezin ditugu ahantzi, azkenik, Hego Euskal Herria Erdi Aroko Nafarroako erresumaren baitan zela ongi jasotzen duen mapagintza arloa (1054. nahiz 1200. urteak gogoratu) edota Fidel Azkoagak eginiko margoak, testua aberastu baitute anitz: Tuterako mezkita, 1512ko guda, Kontu Ganbara, guda karlisten ondorengo okupazio militar espainola, 1893ko Gamazada, 1936ko errepresioa eta bertze.

Pena bakarra, lastima handia, euskarari ematen dion garrantziaz inongo zalantzarik ez badago ere, liburua gazteleraz idatzirik egotea («La Navarra Marítima» bezala, bertzalde), zeren eta euskal jendeak, tamalez, honen beharrik ere baitu, nafarrak ziren Bermeotik Eskiularaino eta nagusiki frantsesez bizi diren lapurtar, zuberotar, biarnoar eta hainbertze nafar (!) kasu ●

◆ ERLANTZ URTASUN

BIDAIAK

Gotzon Garate Estatu Batuetatik etorri berria da. Udaro bezala bi hilabete baino gehiago egin ditu Manhattanen. Tenisean jokatu eta liburuak erosteaz gain, drogak eta familia hautsiek eragindako egoera larriak ezagutu ditu.

NEW YORK: LORIK EGITEN EZ DUEN HIRIA

Munduan badira hiri kilikagarriak. Zein bere alderdi miragarri, hunkigarri eta lazgarriei lotua. Mosku, Bombay, Dakar, Calcuta, London... Hiri horietan bizi izan bazara, haseran batez ere, heldu berrian, misteriozko giroak atxemango zaitu eta buru-bihotzak lehenago ez sumatu sentimenduz eta oihuz beteko zaizkizu. Hala ere, hiri guztietan harrigarriena eta aberasgarriena New York da. Askoren ustea da hauxe. Nirea ere bai.

Urtero-urtero hantxe ematen dut uda, bi hilabete eta erdi. Orain hogeita hamaika urte joan nintzen lehendabiziko aldiz. Bronxen bost urte igaro nituen. Gainerako urteak Manhattanen. Hogei urte honetan Washington Heightsen bizi naiz, drogaz beteriko auzoan. Irakurrita nago auzo horretan gertatzen direla hilketarik gehienak mundu guztian, biztanleen batez bestekoa kontuan hartuta. Jendea New Jerseyko kasinoetatik, Washington zubia igaro eta gure auzora droga erostera etortzen da, merkeago dagoelako. Droga saltzaileek, berriz, beren eztabaidak eta konpon ezinak tiroz garbitzen dituzte. Lo gaudela kaleko tiroen hotsa entzuten dugu.

New Yorkera lanera joaten naiz. Larrialdietan dagoen jendeari aholkatu eta laguntzera. Eta bide batez Fordhan Universityn lanean jardun. Udako literatura ikastaroetan parte hartu eta hango liburutegi bikainean lan egin. Neure atsotitz liburuaren sarrera (teoria), ia osorik Fordhanen burutu nuen. Eta laster azalduko den euskal polizia eleberriaren hasiera ere bai.

Gure auzoko familietan % 65 hautsiak daude. Haurrak amarekin bizi dira. Istilu gorriak sortzen dira

Guk Deustun polizia eleberriari buruzko libururik ez dugu. Fordhanen berriz, 200 baino gehiago. New Yorken liburu asko erosten dut. Ez dut uste munduan beste inon dagoenik liburuak merke erosteko horrelako aukerarik. Ni Alemanian, Ingalaterran, Frantzian... bizi izan naiz. Liburu erosteko paradisua New York duzu, baina. Liburu onak eta merkeak aurkitzen dira. New Yorken liburuak argitaratu eta bizpahiru urte igaroz gero, liburutegietara igortzen dituzte merke. Nik urteotan ehunka eta ehunka erosi izan ditut. Gero Deustura untziz bidaltzen ditut. Bi hilabete barru heltzen zaizkit. Hegazkinez bidaltzea garestiegi izango litzateke.

Filmak, antzerkiak eta *musicals* deitzen direnak ikusteko, ez dago New York bezalakorik. Ni Broadway kale entzutetsuaren ondoan bizi naiz. Eta tenisean jokatzen dut. Goialdeko Manhattanen bizi bazara eta teniszalea bazara, zoaz Riverbank Parkera. Tenistegi zoragarriak daude han eta dohainik. Ni udan ia egunero joaten naiz. Lagun onak egingo dituzu: juduak, irlandarrak, japoniarrak, poloniarrak, latinoak, beltzak, zuriak eta horiak. Tenistegira joan eta lagunen bat bakarrik dagoela ikusten baduzu, galde: «*Have you a partner?*», «*Ze, jokatzeko lagunik ba al duzu?*». Ezetz esaten badizu, tira, berarekin jokatu. Jokalarietan nire lagun kuttunak bi dira: Wolfgang, Manhattango Night Club



New Yorken era guztietako egoerak eta jendea ezagutu ditu Gotzon Garatek. Manhattanen, Night Club batean saxofoia jotzen du

batean saxofoia jotzen duen alemaniar gaztea eta Tessy, 23 urteko irlandar andereño polit, musu gorri bat. Iaz gertakaritxo bat jazo zitzaidan. Gizon ezezagun batekin jokatu ondoren, elkarren ezagutzak egin genituen. «*Judua naiz eta sendagilea*», esan zidan. «*Euskalduna naiz eta irakaslea*», ihardetsi nion. «*Nongoa?*», berak. «*Bilbokoa*». Orduan berak, ahoa zabal-zabal eginez eta irri goxoz, esan zidan: «*Bilbao, Guggenheim!*». Egia esan, Guggenheim museoak entzutetsu egin du Bilbo. Lehenago zenik ere ez zekien jendeak. Haseran esan dudan bezala, nire lan nagusia New Yorken, jendearekin lan egitea da. Ni Incarnation parrokian aritzen naiz. Parroki horrek badu jendea hartzeko eta jendeari laguntzeko sail bat, «counselling center» bat. Sail horretan egiten dut nik lan.

Jende asko etortzen da. Asko eta asko ezkontza problemekin. Gure auzoko familietan % 65 hautsiak daude. Haurrak amarekin bizi dira. Istilu gorriak sortzen dira. Haurrek beren barrunbeetan pairatzen dituzte ezkontza apurtuen ondorioak. Maitasun eskasiaz gainera, diruaren falta, gehienetan aita izaten baita diru sortzailea. Beste sail handia paperik gabe dauden latinoena da. Ezkutuan, legearen isilean sartu dira. Guk paperak lortzen laguntzen diegu, batzutan gezurtxo batzuk esanez.

EMIGRANTE ILEGALEI PAPERAK EGITEN. *Green card* eskuratzeko, EEB-Betan urte batzuk eman dituztela frogatu behar dute. Guk agiri bat egiten diegu, horrenbeste urtean ezagutzen ditugula esanez. Barkatuko ahal dizkigu Jaungoikoak, egoera larrian dauden horien alde esandako gezurrak. Jendea etsita dabilenean ere deitzen digute. Behin, adibidez, polizia etorri zitzaidan. Terraza batean neskatxa bat zegoela, bere burua kalera botako zuela esanez. Zatoz, ea zeuk burutan sartzen diozun jauzi ez egiteko. Han zegoen 26ren bat urteko neskatxa, terraza ertz-ertzean, koska baten gainean, zut-zutik. Ez zaizkit sekula ahaztuko negar baten esaten zituen hitz erdiragarriak: «*Nobody loves me, nobody loves me*». Behin eta berriz esaten zituen. Azkenean lortu genuen eskutik oratu eta salbatzea. Etxetik ihes egin duten gazteak ere etortzen zaizkigu. Atx, nolako hutsa egin nuen behin. Goizeko zortziak ziren. Idazkariak: «*Begira, 8 urteko neskatila bat zain dago, laguntza eske*». Lehenago ez zitzaidan holakorik gertatu. Zortzi urteko neskatila! Joan naiz. Bai, etxetik ihes egina zen. Amak ez zuen maite, haurraren aitak ihes egin ziolako. Amak alabatxoa gaizki hartzen zuen. Aitaren kulpak alabatxoak ordaindu!

Neskatila eta biok elkarrekin gosaldu genuen. Oso lagun egin ginen. Maitasun handi-handia hartu nion. Zer egin? Amarekin hitz egin nuen, ahal nuen modurik onenean. Haur gaixo errugabea ondo hartzeko. Haurra berriz ere etxera. Egunero deitu nion. Hamarren bat egun geroago, ordea, amak alde egin zuen auzotik alabatxoarekin. Sekula ez dut gehiago neskatilaren berririk izan. Huts egin nuen kasu honetan. Hobe haurra familia jator batera eraman izan banu. Nire erruaren handia! Zauri sakona dut bihotz zolan. Benetan, ezin dut neskatila hura ahaztu ●

◆ GOTZON GARATE

CARLOS VILLAGRAN

■ Manhattandik New Yorkeko parroki batera egunero joaten da udan Gotzon Garate.

CARLOS VILLAGRAN

...aniar teniszalea topatu zuen; terrazatik bere burua bota nahi zuen 26 urteko neskarekin ere egon zen.

ARDOA

Bizkaiko eta Gipuzkoako zeruetara begira daude txakolin bodegetako jabeak. Uda ona egin omen du, baina harriaren beldur dira. 76 bodega irailaren amaieran hasiko dira mahats biltzen, uzta bikainak edari bikainagoa emango duen esperantzan.

MAHATSAREN ORPOTIK DATOR 99KO TXAKOLIN BERRIA

■ Getaria, Zarautz eta Aiaren artean 95 hektarea mahasti dituzte; Bizkaian berriz 120 ha. daude.

Aurten mahats bilketan aritu eta txakolina ekoitziko duten bodegak 76 izango direla esan dugu. Kopuru hori Bizkaiko Txakolina Jatorri Izena eta Getariako Txakolina elkarteko ekoizleek osatzen dute. Bizkaian 59 bodega dira izen horren azpian txakolina egiten dutenak eta Gipuzkoan berriz, Getariako Txakolinaren izenpean 17 ekoizle biltzen dira.

Bizkaiko Txakolinaren izenpean edaria komertzializatzen dutenek ia Bizkaia osoan dituzte mahastiak; Bilboko gune industrialean, gune menditsuetan eta Kantabriatik gertu ezik. 300 metrotik beherako lursailetan landatzen dituzte mahastiak. Herri asko dira txakolin ekoizle, neurri handiagoan edo txikiagoan. Horietariko batzuk: Bakio, Muskiz, Zaratamo, Forua, Gatika, Urduña, Gamiz-Fika eta Zamudio.

Langileak mahastizainak, txakolin egileak eta saltzaileak dira. Edariaren prozesu guztia kontrolatzen dute

Une honetan 120 hektarea mahasti osatzen dituzte 59 mahastizainek eta hektareako 2.500-3.000 mahatsondo enbor landa dezakete. Hektareako 13.000 kiloko ekoizpena baino gehiago ez dute uztem. Salmentari dagokionez, nekez ateratzen dira txakolin botilak Euskal Herritik. Denda espezializatuetan eta Madrilgo eta Bar-

tzelonako hainbat jatetxetan saltzen da pixka bat. Ekoizpenaren % 100 botiletan saltzen da, gehienetan Rhin motako 75zl.- ko euskarrian. Bizkaiko Txakolinaren Jatorri Izena daramaten txakolin motak hiru dira: Hondarrabi Zuri eta Folle Blanche txakolin zuriak eta Hondarrabi Beltza, izenak dioen bezala txakolin beltza. Urteko txakolina da, arina, graduazio baxukoa, fruta gustukoa, pixka bat mikatza. Ekoizpenaren % 80 txakolin zuria da, % 15 gorria. Txakolin beltza kostaldean soilik egiten da, gune epelagoetan.

ALBERTO ELOSEGI ALBERTO ELOSEGI

■ Botila guztiek bodegaren izena (Aizpurua kasu honetan) eta elkartearen etiketa daramate.

IZOTZ MADARIKATUA. 1998-99 ekitaldian 59 bodega daude izena emanda Bizkaiko Txakolina Jatorri Izena elkartean. 189 mahastizainen artean 2.450 hl. ekoitzi zituzten, 120 hektareatan. Datu hauek guztiek gorantz egiten dute urteak igaro ahala. 1994-95ean adibidez, 28 bodega zeuden soilik izena emanda (ezjakintasuna medio eta instalazioen baldintzak egokiak ez zirela-eta, poliki-poliki bodegak elkartean sartzen joan dira) eta 1.400 hl. ekoitzi ziren. Mahastizainak 125 ziren eta 60 hektareako lursaila ustiatu zuten. Salbuespena 1997-98 urtea izan zen. Bodega, mahastizain eta hektarea kopuruak gora egin bazuten ere, Bizkaiko txakolin gutxiago edan zen urte honetan. Murrizpenaren errudun handiena apirilean iritsi zen izotza izan zen. Batez ere barnealdeko haranetako uztak zigortu zituen.

GETARIA, ZARAUTZ ETA AIA. Gipuzkoako hiru herri hauetan ekoizten da Getariako Txakolina izena daraman txakolina. 17 bodega daude; 10 Getarian, 6 Zarautzen eta bat Aian. Mahastien % 74 Getarian dago, % 24 Zarautzen eta % 2 Aian. 1989an hiru herrietako mahastiek 60 hektarea osatzen zituzten, horietarik 6 Zarautzen, 0,5 Aian eta gainerakoa Getarian. Urtez urte ordea, txakolinaren ekoizpenak gora egin du, bai Gipuzkoan eta baita Bizkaian ere. Hamar urte geroago, 95 hektarea landatzeko dituzte Gipuzkoan. Hiru herrien arteko banaketa berdintsu mantentzen da: Aian bi hektarea mahasti daude, Zarautzen 20,5 eta gainerakoa, kopuru altuena, Getarian. 17 bodegek batez beste urtean 850.000-900.000 txakolin botila ekoizten dute. Ez da kopuru ikaragarria. Kontuan

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

iraila 16 - 25 septiembre 1999

ZINERIK ONENAREN
600 EMANALDI

BILA EZAZU
ZURE FILMEA

Babesle Ofiziala
CANAL+

arte&maria

ALBERTO ELOSEGI

■ Gipuzkoan 900.000 litro inguru merkaturatzen da urtero.

izan behar da bodegak familienak direla eta beraz ekoizpena ere neurrikoa da. Lanerako gutxi badira ere, azpiegitura eta makinetan teknologia aurreratua darabilte. Gaur egun txakolina altzairu herdoilgaitzezko depositoetan egiten da. Hartziduraren kontrola berriz, hotzean egiten da.

17 bodegetako langileak mahastizainak, txakolin egileak eta saltzaileak dira. Edariaren prozesu guztia beraiek kontrolatzen dute, hasi mahatsa landatzetik eta txakolin botila dendara eraman arte. 0,75 litroko Rhin motako botilak merkaturatzen dira. Txakolinaren prozesu guztia bodegakoek kontrolatzen dutela esan berri dugu, baina kalitate kontrola Getariako Txakolinaren esku dago. Horregatik, botila bakoitzak bodegaren izena eta jatorri izendapena izaten ditu. Urteroko 900.000 txakolin botila inguru Euskal Herrian saltzen dira gehienbat. Espainiara esportatzen dira batzuk eta baita Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Estatu Batuetara ere, neurri apalean bada ere.

GETARIAKO TXAKOLIN ZURIA.

Zuria eta gorria erabiltzen badira ere txakolin zuria da Getariakoa. Hondarrabi Zuri (mahastien % 85-90 hartzen dute) eta Hondarrabi Beltza (mahastien % 10-15), bertako bi barietateak nahasten dira eta ondorioz ardoa zuria da. Urtekoa da txakolina, 10,5ºkoa eta bere mikatz puntu bereziarekin.

FAMILIAKO NEGOZIOA.

Gipuzkoako zein Bizkaiko txakolinak izen beraren pean saltzen dira, alegia, Getariako Txakolina eta Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapena etiketapean. Boteila bakoitzak bodega jabearen izena badarama ordea, etxe jakineko txakolina egiten baita. Ardo zuri hau familiako negozioa da.

Bodegako txakolin egile baten dimentsioa eta ezaugarriak ikusteko asmoz, Getariako bi eta Aiako bodega bateko hainbat datu bildu dugu. Getariako Agerre baserrian, Emilio Ostolazak «Aguerre» markako txakolina ekoizten du. Iaz adibidez, 30.000 litro ardo zuri saldu zuen. Litro hauek guztiak ateratzeko 4 hektareatan ditu mahastiak. Bi langile aritzen dira lanean, mahats biltze garaia (aurki) ez denean, bederen. Orduan etxeko eta ingurukoek lagundu behar izaten dute. Txakolin botilak herrian bertan, Zarautzen eta Zumaian banatzen dituzte. Getariako Txakolina elkartean egotearen abantailak zein diren galdetu diogu Emiliori. Elkartuta izanda azpiegituretako diru laguntzak lortzen dituztela dio. Bestalde, kalitate kontrola egiten zaie eta gainera, elkartean zehazten dute bakoitzak urtero mahastietarako prestatuko duen hektarea kopurua. Aurten datorren txakolina oso ona izango dela aitortu digu, bai kopuruz eta baita kalitatez ere. Emiliok orain arte ezagutu duen onena.

Getariako Akarregi Txiki baserriaren kasua zertxobait berezia da. Lasalde Elkartean aipatu baserria eta Lasalde baserria biltzen dira. Bien artean 38.000 litro ekoitzi dituzte. Hiru langile aritzen dira eta salmentak Donostia eta Zarautzen egiten dituzte. Getariako Txakolina elkartean egoteari esker, laguntza ekonomikoak eta gaitzei aurre egiteko erraztasuna dutela dio Jose Manuel Eizmendi, Akarregi Txikiko nagusiak.

Aiako Franzisko Errastik Zudugarai izenpean 18.000 litro txakolin merkaturatu du. 3,5 hektareatan ditu mahastiak, landare zaharrak eta berriak, batzuk oraindik abian jarri gabe. 3 lagun aritzen dira lanean. Zudugarai txakolina Gipuzkoan batez ere eta Madrilen eta Bartzelonan saltzen dute. Aurtengo uzta ona izatea espero du, nahiz eta uda gorriak asko lagundu ez duen. Elkartean egoteari alde on asko ikusten dizkio: «*Sektorea defendatzen dugu, elkarren berri jakiten dugu eta hitzaldietan-eta ikasi egiten dugu, bai gaitzei buruz eta baita beste makina bat gauzaz ere*» ●

◆ ONINTZA IRURETA



ALBERTO ELOSEGI

■ «Hondarribi zuri» moetako mahats sorta, ia helduta.

KOLDO TAPIA

"BERTSOAREN BALIABIDEAK EZ USTIATZEA BARKAEZINA DA"

Zizurkilen jaioa 1946. urtean, egun Oiartzunen egiten du lo, eta bizi ia Bertsozale Elkartearen egoitzan bizi da, buru-belarri lanean. Bertsolaritza eremuko hamaika egitasmok lapurtzen diote orain denbora: telebistako programa berriak, 2001. urtean Euskal Herrian antolatu daitekeen nazioarteko inprobisatzaileen topaketak, argitara atera daitezkeen liburuek, hastear den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak... Batetik-bestera dabil oraindik, sekula geldi egon zalea izan ez dena. Herri Gaztediko liberatu garaiak, sindikatu eta grebetan mitinlari aritutako urteak eta beste hainbat bizipenen errepasoa egin digu, baita Elkartearen egungo erronken berri eman ere.



ALBERTO ELOSEGI

■ «Burgosko juizioa izan zen gure bizitzako akontezimentua».

Egun Bertsozale Elkarteko bulegotik eragiten duzu bertsogintzaren mundua, baina lehenago ere gizartea astintzen aritu izan zara beti... Koldo Tapia Herri Gaztediko liberatu ezagutzen dute askok oraindik...

Bai. Herri Gaztediko garaiak oso gaztetakoak dira. 65ean ETArekin lehen kontaktuak izan nituen, harrapatu egin gintuzten eta kartzelatik pasa nintzen... Ondoren soldaduskara joan nintzen, eta handik bueltan zuzen Herri Gaztediko liberatu egin, 69tik 71ra. Elizaren inguruko mugimenduetatik euskalzaletasuna pizten aritu ginen eta elizatik piska bat urrunduaz amaitu genuen.

■ Burgosko prozesua ere ez duzu ahaztua izango...

Burgosko juizioa gure bizitzako akontezimentua izan zen. ETAko 6 kiderentzat heriotz zigorra eman zuten sententzian, eta Francok atzera egin behar izan zuen nazioarteko mugimendu ikaragarri bat izan zen, bertako borrokarik handienetakoa. Gaur egunean eskuindarrek berak aitortzen diote izan zuen garrantzia politikoa. Euskal Herriak ez du ezagutu beste horrelako mugimendurik, 8-10 egunetan dena egon zen paralizatua. Borroka espontaneo ikaragarri bat egon zen, anarkia handia ere bai antolakuntza guztian, baina herri oso osoak erantzun zuen. Poliziak bere lanean segi zuen, eta handik gutxira Nafarroan erorketa bat gertatu zen, ni inplikatuta nengoen eta ihes egin behar izan nuen Bartzelonara.

■ Bartzelona duzu bizitzako beste hito bat...

Euskal Herritik nindoan, kale borrokaren mugimenduaren gune gunetik, eta Bartzelonan egin nituen kontaktuen bidez konturatu nintzen berehala, han beste gogoeta eta kultura maila batetik analizatzen zirela bai Euskal Herriaren arazoa bera, bai frankismoarena, bai etorkizunarena... Hara

joatean ohartu nintzen Burgosko prozesuaren ostean frankismoaren amaiera zetorrenaz, transizioa zetorrenaz... Katalanek oso garbi zuten aldaketa hori ezinbestekoa zela. Gogoeta bide hori oso garrantzitsua izan zen niretzat. Nahiz hemen garai hartako marxismoaren ildoan sartuta ginen, erakutsi zidan doktrina politika batetik doktrina analitikora pasatzeko pausuak nondik nora ematen ziren. Hortik abiatutako konpromezuarekin etorri nintzen 74an hona, Bizkaira, Bartzelonan 3 urte pasa ondoren. Hemen eskua bota zigun poliziak, eta barrura joan ginen berriz. Orduan hasten da 70ko hamarkada irauten duen beste etapa bat: beste jauzi bat dago politikagintzara, langile mugimenduari lotuta: Franco hila, transizio-garaia, hauteskundeak hasten dira, gu mugitzen ginen sektore politikoaren gainbehera eta porrota dator, gure barne-eztabaidak hasten dira... 79an erabaki nuen mundu hori uztea, jabetu nintzelako sindikatuen bideari jarraitzeak zekarren instituzionalizazioa ez zitzaidala batere interesatzen. Erabaki nuen ikasten hastea, eta unibertsitaterako akzesoa egin nuen 33 urterekin. Euskaran alfabetatu, eta itzulpen ikastaroak egin nituen. Santurtzin itzultzaile plaza atera eta funtzionari izan nintzen bederatzi urtez, euskara zerbitzuburu eta itzultzaile.

■ Santurtziko euskara sailburu izan zinen garaitik zer inpresio geratzen zaizu?

Desertuan predikatzea... Baina oso urte politak eman nituen. Nire bizitzan garai denek izan dute halako xarma bat, eta ilusioarekin bizitakoa izan zen. Gipuzkoako egoerarekin alderatuz oso giro berezia zen, batez ere Gipuzkoan jendeak baduelako atxikimendu ideolojiko bat euskararen mugimenduekiko, eta izugarri esker onekoa delako egiten den ahaleginarekiko. Santurtzin sasoi hartan euskaldun zaharra izatea auskalo zer izatea zen...

Beste garai batzuk ziren, 82tik 91ra, eta alde batetik udal hautetsien bidez osatutako udalen egituraketa finkatzen ari zen garaia zen. Nolabait herri mugimenduen eta erakundeen arteko transizio prozesu guzti hori uztartu edo eten egin zen garai horretan, gatazka, borroka, egon zen. Euskararen berreskuratze politika pizten hasi zen unea zen, AEK eta HABEren arteko liskarrak izan ziren, eta tartean tokatu zitzaidan lehen polizia nazionalak euskaltegietan sartzen hasi zireneko garaia. Santurtzin oso famatua izan zen, eta han bizitu nuen... Herrian euskararen aldeko mugimenduak, eta ikastolak jaiotzen ari ziren urteak ziren.



■ «82ko txapelketan jasotako adarkadak oraindik atera gabe dauzkat!».

Azkenik 86an bertsolaritzarekin lotu nintzen, txapelketa antolatzeko mugimendua sortu zenean, eta Bertsolari Elkartean sartu nintzen.

■ Elkartean sartu aurretik, zer harreman izan duzu bertso-munduarekin?

Lehenengo harremana amonaren bitartez izan nuen. Amonak erakutsita buruz ikasi nituen lehen bertsoak «Markesaren alaba» eta Xenpelarren «Betroiarenak» izan ziren, 8-10 urterekin. Amonak su gainean berotutako plantxa egiten zuen bitartean, sukaldean, kantatzen genituen, eta gero ahoz musikatu, eta dantzan aritzen ginen etxeko sukaldean. Hortik aurrera plazaz-plaza garai hartan ibiltzen zen giroarekin eduki nuen bertsoekiko harremana, pixka bat entzule bezala. Herrira etortzen ziren Basarri eta Uztapide, Lopategi eta Azpillaga geroxeago... Ondoren etorri ziren bertsoarekiko beste harreman batzuk. Bilbon Amurizak «Zu ere bertsolari» material liburua prestatuta zeukan, eta bertso-eskoletan martxan jarri nahi zuen. Hor bertso-eskola bat sortu zuen, gero Santutxuko bertso-eskola izatera iritsiko zen hura, eta Bilboko Arkeologia Zentruan eman genituen klaseak hiru hilabetez edo, Jose Ramon Etxebarria, Joserra Bilbao, Jon Aurre, Iñaki Lasa eta abarrek... Saltsa hartan berotuta jarraitu, eta 82ko txapelketan parte hartzera ere iritsi nintzen. Gainera halakoa tokatu zitzaidan: Sebastian Lizasorekin ofizioka jardun nuen, eta ofizioko gaiean ni toreroa, eta hura zezena izan ginen. Oraindik jasotako adarkadak atera gabe dauzkat!

■ Noiz, nola eta zertarako sortu zen Bertsolari Elkartea?

Elkartea 85ean sortu zen, Euskaltzaindiak bertsolariei txapelketa antolatzeko egin zien proposamenetik sortu ziren desadostasunetatik: bertsolariek pentsatu zuten txapelketa beraiek antolatzea, eta inguru horretan genbiltzan zenbait jenderi deitu ziguten: Joserra Bilbao, Jon Aurre, Jon Lasa, Joseba Etxeberria, Jexux Murua, Juanjo Uria... Eta hortik abiatutako eztabaida prozesutik sortzen da. 87ko ekainaren 18an Donostiko Udal Batzar Areto Nagusian egin zen Elkartearen aurkezpen ofiziala. Uste dut hasera hartan intuizio gehiago zegoela, planteamendu serio bat baino. Ordurako bizi-bizian zegoen bertso-eskolen gaia: bertsolariak berezkoa, edo ikasia behar duen eztabaida. Jada bertso-eskoletako jendea mugitu ginen 82ko txapelketan... Eta eztabaida ugari piztu zuen, bertso-eskoleta-

"Bartzelonako esperientziak erakutsi zizkidan doktrina politikatik analitikorako pausuak"

Hamarrekoa

ANDONI EGAÑA

«Zeharka zuzen ikusten dituen bertsolaria»

AITA ZABALA

«Ahozkotasunaren altxor paregabe baten eragilea»

MARI KARMEN GARMENDIA

Hitzik gabe utzi duen emakumea

XIPRI MUÑAGORRI

«Erre askodun pieza egoskor gaitza»

BINGEN ZUPIRIA

«Bilboko gauetan parrandakide, eta orain 'Hitzetik Hortzera'ko negoziaketetan mahaikide»

JOXERRA GARZIA

«Gaur egungo bertsolaritzaren puntako ikerlaria»

BERTSOZALE ELKARTEKO BAZKIDE BAT

«Herri honen ondareetako baten euskarri»

JEXUX MURUA

«Bertsolaritzaren alde egoskorturik edozer egiteko gai dena»

SAKONA

«Aintzinako laguna, gaur pixka bat apartatuta dagoena»

JOXE GOIKOETXEA

«Asko hunkitu nauen heriotza. Zintzotasunaren eredu, mundu aldakorrak irentsia»

ko jendea ez zela bertsolaria, bertsoak osatzen zituzten harren ez zekitela bertsotan egiten, berezkotasuna garrantzitsuena ote zen edo ez... Elkarteak hori bereganatu egiten du, jabetu zelako bertsolaritzak historikoki izan duen berezko transmisioa bukatzen hasi zenaz, eta eskolak leku hori bereganatzen ari zirenaz. Beraz, bertsolaritzak trasmisio-bidea izan dezan norbaitek heldu beharra zion. Horrez gain, beste helburu garbietako bat zen bertsolaritzaren hedapena, komunikabideak, adibidez. Eta egiten ziren bertso-saioak jasotzeko beharra ere ikusten zen, eta hor sortzen da Dokumentazio zentrua. 86ko estatutuetan beraz, jadanik Dokumentazio zentrua aipatzen da, hedapena aipatzen da, eta transmisioa ere bai.

■ Eta zein dira Elkartearen egungo helburuak?

Panorama argitzen joan da, eta haseran Bertsozale Elkarteak aurre egin behar izan zien hainbat deskonfiantza egoerei. Batetik bertsolari askorentzat elkartea zen egiten ziren bertso saioak planifikatzeko erakundea. Bertsolari, eta bertsolaritza, bi kontzeptuak nahas-mahasean zeuden. Bertsolari askok elkarte bat sortzean, elkarteak eurei onurak ekarri behar zizkiola uste zuten, saio gehiago egiteko balio behar ziela, eta ez saioak batzuk bakarrik egiteko. Hori betiko eztabaida izan da: batzuk oso saio gutxi egiten dituzte, eta gutxi batzuek egiten dituzte saio gehienak. Hor Elkarteak haseratik hartu zuen jarrera izan da berak ez planifikatu, eta merkatuak erabakitzea. Zeren eta nork ordaindu behar du bertsolaria? Kontsumitzaileak. Orduan, berak erabakiko du zer bertsolari ekarri nahi duen. Egun, eztabaida hori gaindituta dago. Horrek argiago jarri du elkartearen zeregin nagusiak bertsolaritza osoari begira egon behar duela, eta ez bertsolariari bakarrik. Ez da bertsolarien elkartea bakarrik. Haseran izena horrela zuen, baina gero aldatu egin zitzaion, jabetu ginelako kontraesan bat zegoela elkartearen estrategian eta bere izenean. Nahiz bertsolariak ardatz izan, mugimendu oso bat planifikatu behar da. Bertsogintzari begira, garai hartako intuizioak asko argitu dira, eta transmisioak hartzen duen garrantzia inoiz baino handiagoa da.

■ Nola lantzen du Elkarteak transmisioa?

Une honetan Elkartearen barruan egitura oso bat dago transmisioari eskainia. Bertso-eskolez ardura berezia dugu, uste dugulako bertso-eskolak oraindik nahiko umezurtz daudela izan behar duten erantzunkizunari aurre egiteko, eta une honetan esperimentatzen jarriko da proiektu bat ikastoletan bertsolaritza erakusteko. Beste modu gehiago egon litezke irakasteko bertsogintza bera eta bertsogintzak oinarrian dituen elementu ezaugarri nagusiak: komunikazio espresabideak, komunikazio egoera ezberdinetan bertsolaritza nola egokitzen den, eta zer estrategia lantzen dituzten bertsolariek, nahiz inkonszienteki egiten duten. Elementu horiek hezkuntzara modu razionalizatu, sekuntziatu eta didaktikoan eraman behar dira. Lau ikastola sartu dira proiektuan: Zarauzko Mitxelena, Ordiziko Jakintza, Irungo Txingudi eta Hernaniko Urumea, eta lau horietan esperimentatuko da euskara taldeetan metodo berri bat izan nahi duena. Metodoa landu eta prestatzen dela hiru urte hasi ginen eta Joxerra Garziaren tesi doktoralean bukatu da. Ondoren Joxerrak, Andoni Egañak, Iñaki Muruak eta Pedagogia fakultateko

"Bertsoa gure herriaren adierazpen kultural bat da. Ez da izan behar lotsarik mundu mailan erakusteko"

PABLO S. QUIZA

■ «79an utzi nuen sindikatu mundua, bide hark zekarren instituzionalizazioa ez zitzaidalako interesatzen».



ALBERTO ELOSEGI

■ «Nire bizitzan garai denek izan dute halako xarma bat».

irakasle eta katedratiko Felix Etxeberriak taldean osatu dute metodoa.

■ **Horrekin guztiarekin, bertsolaritzak irakaskuntzan zer presentzia edukitzea duzue helburu?**

Hor bi maila daude: irudiaren gizarte honetan geroz eta gehiago planteatzen dugu ahozkotasunaren garrantzia, eta aho-espresabideak izaten ari diren galera. Hizkuntzaren espresabidea klitxe esterotipatu batzuetara murriztu dugu. Badituugu klitxe batzuk denetarako balio dutenak, baina norbaitek egoera jakin batean zirrara bat, komunikazio bat edo arreta sortu nahi duenean, klitxe horiek ez digute balio hori sortarazteko. Paradoxikoa da, Euskal Herrian, nonbait badaukagu aho espresabide horren adierazpide gorenetakoa, bertsolaritza da, eta gure ustez barkaezina litzateke herri honentzat, bertsolaritzak dituen baliabideak ustiatzen jakingo ez balu. Ez bertsozaleen eremuan bakarrik, baizik hizkuntzaren irakaskuntzan, garapenean, espresabidean eta komunikazio mailan. Gure ahalegina, hezkuntzari begira planteatu dugu. Hizkuntza beti erabili dugu nor-nori-nork eta baldintza eta baldintzapekoak, eta gramatika ikuspegitik, baina gero ez dakigu non erabili, eta zertarako. Hizkuntzaren funtzio nagusia komunikatiboa da, eta komunikatiboari gehitu behar zaizkio balio tekniko-gramatikalak, hori hareagotu eta indartzeko. Uste dugu bidea alderantziz egin izan dela, eta guk esaten duguna da komunikazio elementuetatik lan egin behar dela. Egoera komunikatibo errealetara hurbildu behar dugu hizkuntzaren lanketa egiteko.

"Elkartearen zeregin nagusiak bertsolaritza osoari begira egon behar du, eta ez bertsolariari bakarrik"

Guk landutako prozesuan ez dira teknikaz ariko, baliabideez baizik. Ez dugu planteatzen bertsolaritza irakatsi behar denik, bertsolaritzak ematen dituen ikasbideak landu behar direla baizik, ahozko espresabide bezala. Gero beste gauza bat da planteatzea, prozesu guzti horretan batzuk bertsolaritza landu badute, bertso-eskolak egongo direla bertsolari

Tantoa

Belarri asko moztutako toreroa

■ *Andoni Egaña*

Bertsolaria

Bertso kantari ezagutu genuen. 1982.eko Txapelketa Nagusiaren kanporaketa bat zen. Ez zuen suerterik izan. Berari torero papera tokatu zitzaion. Zezena Sebastian Lizaso zen. Emaitza, jakinekoa: bizkarrean atera zuten toreroa plazatik. Bizkarrean, baina hil-kutxan, antiaju eta guzti. Errukiz eta burlaizez begiratu genion. Ez ginen konturatu torero hura zein ona zen. Jakin ere ez genekien Bizkaiko ezkerraldeko lantegien krisialdi garaian sindikalista zen aldetik Madrilen Abril Martorellekin eskuz esku toreatu zenik. Baina duela hamabi urte, Bertsolari Elkartearen sorreran, negoziatzaile—eta torero— on guztien bi dohai nabarmendu zituen: pazientzia eta bista. Pazientzia, berez sormenera eta jan-festara jotzen genuen bertsolari saldo hura autoantolakuntza proiektu baten aurrean kokatzen laguntzeko. Eta bista, proiektu hartako apustu estrategikoak—irakaskuntza, Dokumentazio Zentrua, hedabideekiko harremana...—zein ziren bereizteko. Borondatezko lanean hasi zen gurekin eta hazten joan ginen neurrian profesional bihurtu zen. Zertan? Torerotzan. Itzulinguruka egingo dio harrera zezenari, ez baizen alferrik hitzontzi lehiaketa bat irabaztera iritsi. Distantzia emango dio gero, zein zezeni berea. Eta zezena muletaren atzetik batera eta bestera nekarazi duenean, ezpataren bila joango da. Ez du beti nahi duenik lortzen, tokatu zaizkion zezenak ere ez baitira nola halakoak izan: «Jaurlarito», «Kutxas», «Etebe»... Baina setoso segiko du. Behin, aspaldian, kartzelaldi bat jasan eta etxera itzultzean aitak galdetu omen zion:

—Eta zahatoa? Ez al duk etxeko zahatoa bueltan ekarri?

—Ez... Lagunak han geratu dira eta... han utzi dut.

—Ongi egin duk —erantzun zion aitak. Izango duk hik ere haren premia ●

izan nahi duenak, bertsozale aditu izan nahi duenak, gai-jartzaile, epaile, bertsolari-kazetari izan nahi duenak eta abar, bere alorra landu dezan. Bertso-eskola izango da zerbait espezialdua bertsolariak, eta beste egiteko. Baina hezkuntzari begira, zerbait orokorra izan behar du, eta ez ghetto moduko bat. Uste dugunez, bertsolaritza kurrikulum tronkalean txertatu behar da.

■ Zer beste erronka nagusi ditu Elkarteak?

Hezkuntza eta hedapenaz gain, dituen erronka nagusiak dira azken urteetan abiatutako bide nagusiak finkatzen joatea, perspektiba nazioarte mailara irekitzea, eta barne-kohesioa, barne dinamika sendotzea. Dauzkagun 1.400 bazkideren arteko komunikazioari indarra ematea, alegia.

■ Nazioartera begira, zertan dira beste herriekiko harremanak?

Kanpora begira, uste dugu bertsolaritza badela Euskal Herriaren adierazpen sortzaile eta kultural bat, bere matizazio eta kakotx guztien barruan, eta ez dugula izan behar lotsarik, mundu mailan daukagun hori erakusteko. Topo egin dugu munduan zehar funtzionatzen duten beste errealitate batzuekin, eta errealitate hauen aurrean, beraiekin erkatu, egindako ikerlanak trukatu, harremanak bideratu eta elkarlanean zer egin dezakegun ikusi nahi dugu. Oraindik goizegi da kanpaiak jotzen hasteko, baina 2001. urtean dimentsio horretako ekintzaren bat egon liteke, nazioarte mailakoa eta Euskal Herrian bertan antolatua. Euskal Herritarrei kanpoan eta munduan zer egiten den, zer ikertzen den eta egoera nola ikusten duten ezagutzera emateko balioko luke.

■ Proiektu hauek guztiak teknologia berriekin uztartzeko asmorik ba al da?

Gu uztarriarekin hasi ginen, astoa kabestroekin genuela... Baina bai, dudarik gabe bertsolaritzak bere urratsak eman behar ditu. Hurrengo urteetan izango dugun apustuetako bat izango da, agian, «Bertsozale» berripapera sarean jartzea, edo Dokumentazio Zentrua... Gauza asko dago egiteko. Arazoa da presa gehiegi hartzea gauzak egiteko, eta nora goazen jakin gabe, bidean galtzea. Ni iritzi pausatuago baten aldekoa naiz. Uste dut teknologia berriez baliatu behar dugula, baina ez mozkortu. Interneten egon behar dugula, baina Interneten egoteak bertsolaritzaren mugimendua ez duela sendatuko. Baina ez zaie teknologia berriei zertan erreparorik izan behar.



ALBERTO ELOSEGI

■ «Bartzelonan ikasi nuen nondik nora eman doktrina politikatik doktrina analitikora pasatzeko pausuak ».

■ Eta bertsolaritza erdal jendearengana iristarazteko saiakerarik egin duzue?

Hori oraindik gainditu gabe daukagun ikasgaia da, oso ahalegin gutxi egin baitugu. Erronka hori gure erantzunkizuna da. Gure gizartean sektore bat badago euskara menperatzen ez duena, eta guk azaldu behar diogu bertsolaritza zer den, zer esan nahi duen, zer ematen duen eta fenomeno osoa zertan oinarritzen den.

"Irudiaren gizarte honetan geroz eta gehiago planteatzen dugu ahozkotasunaren garrantzia"

■ Bertsolaritzak bere burua aurrera ateratzeko Lanku proiektua sortu du. Zer da, kultur munduko salbuespena edo euskalgintzan dirua egin daiteke?

Lankuren istorioa ez nuke esango oraindik zerbait emankorra denik, ezta gutxiagorako ere. Haur jaio berri bat da, ikusiko dugu oinez ikasten duen, baina ez korrika egiteko, ibiltzen ikasteko baizik. Erronka handia da, zeren ez da helburu finantziero eta ekonomikoekin planteatzen. Helburu ekonomikoekin planteatuz gero, merkatuan azeriaren politika landu behar da. Lankuk ez du azeriaren politika landu nahi. Noski, errentagarria izan nahi du, eta hortan ahalegindu behar du, baina bertsolaritzaren beharretara makurtu behar du, bertsolaritzaren azpiegitura izan behar du, eta ez onurak bereganatu eta alde egiten duen azeria.

■ Zein da, bada, Lankuren xedea?

Bertsolaritzak hurbileko etorkizunean premia larriak ditu. Gizarte aldaketak bertsolaritzaren azpiegituran du eragina, eta Lankuk erantzun nahi die bertsolaritzaren azpiegituran sortu daitezkeen beharrei. Bertsolaritzak historikoki izan du saioak antolatzeko ohiko azpiegitura bat: borondatezko jendean oinarritua, koordinaziorik gabea, bakoitzak bere kasara moldatzen zuena... Baina geroz eta muntaia konplexuagoak dira, batzuk derrigor profesionalizazioa eskatzen dutenak (txapelketa finalak...) eta horrelako ikuskizunetan ez dago inprobisatzerik, trebatutako jendea eskatzen dute... Eta horiek Lankuk bereganatuko ditu. Bestalde Lankuk erantzun nahi dio bere aldetik sortu ditzakeen ekoizpen propioen dinamikari. Eta Lankuk erantzun nahi dio gizarteak bestela erantzuten ez dien fenomenoei, bertsolari gazteena bezelakoei, hauei irtenbide bat eman, eta horrela bertsolari gazteek aurrera egiteko edo behintzat bere gaitasunak frogatzeko aukera izan dezaten. Lankuk erantzun nahi dio Elkarteak izan ditzakeen behar finantzieroei, baina oraindik ez dago bermatua bere bideragarritasuna●.

◆ ESTITXU EIZAGIRRE

EZPA

PRINTZA

HIZKUNTZ POLIZIA

***Kike Amonarriz** honela mintzatu zen gazte euskaldunen inguruan «Euskaldunon Egunkaria»n:*

«(...) nabarmena da euskarazko irakaskuntza ereduak (D ereduak) eta irakaskuntza eredu elebidunak (B ereduak) izan duten gorakada. (...) Azal dizdiratsu honen azpian ordea, euskaldungoaren gorputza ustel dezakeen gaitzaren arrastoak ere soma daitezke (...). Gazte euskaldun gehienak jatorriz erdaldunak dira eta ez dute euskararik erabiltzen irakaskuntza esparruan izan ezik (...). Euskararen 'asignaturizazio' prozesua oso modu bortitzean ari da gertatzen, hizkuntzarekiko motibazioetan honek guztiak dituen ondorio negatiboekin. (...)

Asko dira bestalde, gazteen arteko erabileran %1era iristen ez diren herri garrantzitsuak. Euskararen aldeko politikak 20 urtetan aplikatu eta gero! (...) Gazte askorentzat euskara adierazgarritasunik gabeko hizkuntza formala bilakatu da (...). Gazte hizkera fresko bat sortzeko behar den askatasun giroa galarazi du «hizkuntzaren poliziak». (...) Azkenik, esan dezagun, gazteek ez dituztela merkatuan dauden euskarazko kultura produktuak kontsumitzen (...) Zerbaitek huts egiten du, gazteria gero eta euskaldunagoa eta 'euskaltzalegoa' izan arren (...), erabileran eta euskarazko produktuen kontsumoan (motibazioan alegia?) aurrerapen nabarmenik ez bada».

LORE JOKOEN MENDEURRENA

EUSKO Ikaskuntzak, Euskaltzaindiak eta Aramaioko Udalak antolaturik Lore jokoen mendeurreneko ospakizunak egingo dituzte Aramaion iraila osoan zehar. Anton Abbadia izan zen lore jokoen bultzatzaile orain ehun urte. Euskal Herriko hainbat herritan egin ziren lore jokoak, euskal kultura sustatzeko helburuarekin. Baina Araban, Aramaiok bakarrik onartu zuen parte hartzea. Mendeurrena ospatzeko antolatuta dauden ekitaldien artean, hilaren 18an Euskal Herriko bertsolari eskolen kontzentrazioa egingo da. Eta 24an Eusko Ikaskuntzak «1899ko Aramaioko Lore Jokoa» liburua aurkeztuko du.

«ETXAHUN-IRURI»REN URTEURRENA

PIERRA Bordazarre «Etxahun-Iruri»ren heriotzaren 20.urteurrena gogoratzeko asmoz, Urdiñarbeko herriak «Iparragirre» pastorala taularatuko du. «Etxahun-Iruri» 1979ko urriaren 1ean hil zen eta ez zuen ikusi 1980ko udan Urdiñarben egin zen «Iparragirre» pastorala. Hori izan zen Iruriko olerkariak idatzitako 9 pastoraletatik taularatutako azkena. Bi emanaldi izango dira, bata irailaren 26an arratsaldeko 15:00etan eta bestea urriaren 2an, 20:30etatik aurrera. Lehenengoz taularatu zenetik 19 urte igaro direnean, pastoral bera antzeztuko dute urdiñarbetarrek. Berrikuntza gisa, pastorala lehen aldiz oihal aterpe batean egingo da.

Iparragirre pastorala Urdiñarben, 1980.ean

OLBE

NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA

NAFARROAKO Artxibo Nagusiaren egoitza berriko lehen harria jarri zuen Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanzek hilaren 7an. Rafael Moneo arkitektoaren proiektuak Nafarroako Jauregian dauden agiri historikoak hartuko ditu, eta 45.000 metro lineal izanen ditu. Copisa-Torrecilla enpresa arduratuko da egoitza berria eraikitzeaz. Guztira, 2.500 milioi pezetako aurrekontua du proiektuak eta gutxienez, bi urte iraungo dute lanek.

DEKANOEN KARGU HARTZEA

DEUSTUKO Unibertsitateko Dekanoek karguak hartu zituzten hilaren 7an eginiko ekitaldi akademikoan. Jaime Oraá Zuzenbide Dekano-

HITZ BITAN

● Pello Elzaburuk honela zioen «Euskaldunon Egunkaria»n: «(...) Mutiko euskaldun batek badaki Euskal Herrikoa dela, hizkuntzak halako batasun bat ematen duelako. Baina erdaraz ikasten ari diren milaka ume horiek zer Euskal Herri ikusten dute? Euskal Herrian ez da bi hizkuntzatan ikasten, baizik eta bi eduki desberdin ikasten dira».

● Tomas Yerrok adierazpenok egin zituen «Euskaldunon Egunkaria»n: « (...) Administrazioak argi izan behar du Kultura zuzendaritza nagusiak ekimen pribatuaren esparrutik kanpo

L A K

OPERA EUSKALDUNA JAUREGIAN

Iragan larunbatean, irailak 11, OLBEk, Operaren Lagunen Bilboko Elkarteak, 1999-2000 denboraldia inauguratu zuen Euskalduna Jauregian. Eraikin berria izango da hemendik aurrera opera denboraldiaren gunea. Lehen emanaldirako Verdiren «Rigoletto» hautatu dute OLBEkoek. Ondoren Wagnerren «Das Rheingold», Meyerbeeren «Les Huguenots», Rossiniren «Il barbiere di Siviglia», Straussen «Der Rosenkavalier», Verdiren «La Traviata», Donizettiren «La Favorita» eta, bukatzeko, Masseneten «Manon» izango dira. Opera bakoitza hiru aldiz eskainiko da «Manon»en azken emanaldiak, apirilaren 14an, denboraldiari amaiera emango diolarik. Zortzi opera orotara, orain arte OLBEk eskaini duen denboraldi luzeena betetzeko.

tzaren irakasle titular berria izango da eta Víctor Urcelay Yarza Ekonomi Zientzietako eta Enpresaritzako Dekanotzarena. Datozen hiru urtetarako kargua berritu dute bestalde, Filosofia eta Letrako Dekanoak, Roberto Pérezek, Ekonomi Zientzietako eta Enpresaritzako Dekanoak, Susana Rodríguez Vidartek, Zientzia Politikoetako eta Soziologiako Dekanoak, Francisco Garmendiak eta Ingenieritzako Dekanoak, Juan Luis Gutiérrezek.

LERTXUNDI, EUSKADI SARIA

ANJEL Lertxundik irabazi du bigarrenez Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Literatur Saria Alberdania argitaletxeak kaleratutako «Argizariaren egunak» liburuarekin. Lertxundik bi milioi pezeta garbi jasoko ditu eta beste milioi bat katalogoa eta itzulpena egiteko. Bestalde, Andoni Egañak Zabalpen Saria jaso du, «Pausoa noiz luzatu» eleberriarekin, eta Juan Garziak Itzulpengintza Saria Jorge Luis Borgesen «Ipuin Hautatuak» lanarekin. Azkenik, Juan Kruz Igerabide suertatu da Haur eta Gazte Literaturako Sariaren irabazle, «Jonas eta Hozkailu Bildurtia» liburuagatik.

ALBERTO ELOSEGI

■ Anjel Lertxundik irabazi du Euskadi Saria.

gelditzen diren zerbitzuak bultzatu behar dituela bereziki».

● Anjel Lertxundik zera esan zuen «Euskaldunon Egunkaria»n jasotako sariaren inguruan: «Gaztetan sariak akuiluak izaten dira, eta oraingokoak halako onespen modukoak norberaren ibilbideari (...) Liburuak jada bere ibilbidea egin duenean, halako sari batek aukera ematen du (...) bigarren enkontru bat izateko irakurleekin (...). Hori da saririk inportanteena».

● Jexux Murua honela mintzatu zen «Galtzaundi»n: «(...) Komunikabideetan bertsoaren azalpen okerrak kalte egin dezake. Ezin dira bertso saioak behin eta berriro errepikatu».

EUSKALDUNON EGUNKARIA

■ T. Gonzalez

IZENAK

Tinieblas Gonzalez zinemagile laudiarraren azken lana Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean emango dute. «The raven» izeneko film laburra ingelesez filmatua izan da eta hilaren hasieran aurkeztu zuen Tinieblasek Gasteizen. Oraingoa zinemagile laudiarraren bigarren lana da, eta bertan Edgar Allan Poeren poesiaren aldeko apustu berezia egiten du.

Ainhoa Agirreazaldegi bergararra nagusitu zen irailaren 3an jokatu zen Zarauzko XXIII. Lizardi Sarian. Iñigo Manzisidor «Mantxi» zarauztarra suertatu zen bigarren postuan.

Mikel Urdangarin kantari zornotzarrak urrian argitaratuko den «Taller Canario»ren hurrengo diskoan parte hartuko du. Disko berean esku hartuko dute Pedro Guerrak eta Polito Ibañez kubatarrak.

ALBERTO ELOSEGI

■ M. Urdangarin

EKI ETA MENDEBALDE, BIAK DEBALDE?

Poto egin dut goiburuan. Aitor dut. Nik ere, bertsolaririk eskastxoenen antzera, ezin amaiera hoberik asmatu hementxe eskaintzen dudana baino. Izan ere, poto bera egin daiteke edozein unetan, euskara batuaren eta euskalkien artekoa eztabaidapean jarriz gero.

Hamaikatxo aldiz errepikatu ohi diren hainbat eta hainbat ideia, kontzeptu, bizipen eta abar burura etorri zaizkit arrapaladan —eta halaxe dabilzkit oraindik ere, kolpeka eta minsor—, euskaldun batzuek eguneroko auzi dugun horren gorabeheretan gure burua murgildu ahala.

Noizbait esana eta idatzia dut euskalgintza ez dudala norabide bakarrekoa. Are gutxiago, piper, gustu edo zaporerik gabekoa. Horra hor lehen arrazoia.

DUELA hogeita hamar urte, idatzirako jaio zen, neurri handi batean bederen, batuarena. Formala eta jasoa genuen, hizkuntzaren barruan, haren egitekoa. Goi mailako haren haurgintza minetan, indarge eta desnorabideraturik ibili zen ahozkoa luzaroan, maila formalaren zurrunbiloan itota eta etxekokeriatzat hartuta. Molde horretan gutxietsi genuen mendeen mendeetan jatorrizko eta bertako zena.

Idatz eta mintz bataiatu zuen behinolako Mikel Zarate bizkaitarrak, aspaldiko urteak direla, bikoiztasun horren muina. Ordutik hona ere, badirudi penduluaren lege hautsezinean bizi garela, erdibidetik muturretaraino eta muturretatik erdibideraino, aldian aldiko eraginak batera edo bestera eramanda.

Idatziak, dudarik ez dago, bereak irabazi ditu. Estandarra genuen beharren eta horren bidetik gatoz, errepide berria ireki nahian. Errepide diot eta ez autopista, bigarren horretarako oinarrizko herri lan batzuk falta ditugulako.

Errepide berri horrek, idatzirako errekastoan, mintzoaren esparrua ukitu du. Bidezidor anitzetik zetozen euskalkiak, flora eta fauna bizia barne, euskararen errepide berriaren menpe ditugu, gehiago zein gutxiago, oraingo honetan.

Errepide berriaren albo banatan, Eki zein Mendebaldean, bidezidor horien nondik norakoak galtzen eta argaltzen ari dira. Sasoi bateko Ekialdearen bide sendo eta jasoa bertan behera doa, Mendebaldeko paisaia agortzen eta idortzen ari den bitartean.

Bi-bion bidezidorrak ez doaz, alabaina, euskara batuaren errepidera, ezpada «frantses» edo «gaztelania» txartel handietan jarririk dituzten autopista erraldoi horietara.

ITZIAR D. DE DURANA

Andres Urrutia
Abokatua eta euskaltzaina

"Batzuek Eki zein Mendebaldeko bidezidorretik egin dute bide erdia, eta aspalditik errepide handian ibili arren, aurreko ibilaldietan ikasitako molde eta manerak sarri-sarri erabiltzen dituzte. Beste batzuk, ostera, hasiera-hasieratik dabiltza errepide berrian, ibiltzen ere bertan ikasi dutelako"

ERREPIDE berri horretatik datoz ibiltari euskaldunak. Ibiltari eta ibiltaun. Batzuek Eki zein Mendebaldeko bidezidorretik egin dute bide erdia, eta aspalditik errepide handian ibili arren, aurreko ibilaldietan ikasitako molde eta manerak sarri-sarri erabiltzen dituzte. Beste batzuk, ostera, hasiera-hasieratik dabiltza errepide berrian, ibiltzen ere bertan ikasi dutelako, lehendik etxekoa zuten bidezidorraren gainean egin baita errepide berria.

Guztiok ikasi behar izan ditugu errepide berri horretan historiak jarri dizkigun bide-seinale berriak. Teknologia, zientziak, administrazioa... Horien aurrean erne ibili behar dugu. Bide erakuslea eta zaindaria aspalditik daukagu jarrita. Euskaltzaindia du izena euskalgintzaren kamineru zaharberritu horrek. Bera ibili behar da bazterreko sasiak ebakitzen, hango galipota berritzen, bateko eta besteko norabideak markatzen eta abar.

Anartean, badira bazterrean, errepide nagusi horretatik joateaz batera, bidezidorra ere ahaztu ez dutenak. Zilegi bekie horiei euskaldun ibiltari guztiok egin behar dugun errepide berri horren izenean berezko dutena zaintzea, eta errepide handira bildurrik gabe ekartzea, inork kamineru horri galde ez diezaion hemen goiburutzat jarri dena, alegia, *Eki eta Mendebalde, biak debalde?* ●

ZINEMALDIA

Zerutik, kuboetan behera jaitsiko da Audrey Hepburn zena. 16tik 25era arte. Donostiako Zinemaldiaren 47. edizioan, beti irrikatu izan den zentralizazioa heldu da. 600 film eta ikusle uholdea. Orain, urrezko proba gainditzea falta zaio: sail ofizialeko filmek neurria ematea.

ZERUA FILMEZ ESTALI DA ETA KUBOAK, GORRIZ TINDATU

Victoria Eugenia, ederra bezain deserosoa zen. Aurten, Moneoren Kursaal gune berria topagune nagusi bilakaturik, iazko 150.000 ikusleak aise gaindituko dira. Bestalde, aspergarriak izan arren, sarrerak erosteko ilada itzelek ikusleen inplikazioaren neurria damaigute. Zinemaldia osasuntsu dabilen seinale. Baina, zerk bereizten du Donostiakoa beste zinemaldietatik? *«Dudarik gabe, bere izaera gizatiarra. Giro familiarra dugu Zinemaldiaren xarma. Hotel gehiago izango balitu, askoz jende gehiago erakarriko luke, erraldoi bihurtzeraino; ez nuke hori nahi»* erantzuten digu Diego Galan zuzendariak. Berari eta hautaketa batzordeari irriñoa nabari zaie, urtez urte askatasun osoa dutelako gauzak ongi kudeatzeko, berezko indarguneak atzeman dituzten arte. Egun, «Canal +» babesle ofiziala bihurtuta, estatu mailan duen oihartzuna paregabea da; orain nazioarte mailakoa hobetzea falta zaio. Canneseko zinemaldi ahaltsu bezain impertsonalean, artista nahiz zaletuak zoroen pare ibiltzen dira harat honat. Canneseko makineria industriala alde batera utzita, Venezia eta Berlinen ondotik, Donostiakoa da Europako entzutetsuena. Edinburgh, London, Locarno eta Deauvilleren aurretik. Era berean, amaitu berri den Montrealeko festibala kili kolo dabil, Estatu Batuetako merkaturako atea den Torontoko festibalak hari erabateko itzala egin baitio, krisialdian murgilaraziz.

VENEZIAKO ITZALPEAN? Mussolinik oniritzia eman ondoren, Veneziako Mostra 1932an sortu zen turistak erakartzeko. Dezente handiagoa izan arren, Donostiakoaren gisan, Veneziako Mostra ere zinemaldi lasaia da, gondola batean patxadan ibiltzea bezalakoa. Felice Laudadiok bi

ALBERTO ELOSEGI

■ Aurtengo edizioak aro berri bati eman nahi dio hasiera. Glamourra ere ez da faltako.

■ Lawrence Kasdanen «Mumford» faboritoen artean da urrezko maskorra irabazteko.

urte egin ditu Veneziako Zinemaldiko buru. Nahiz eta iaz pribatizatu egin zen, Italiako politikoen hatzaparrak oraindik pastelaren gainean zeudela ikusi eta potrotaraino, kargua utzi zuen. Bere ordezkoa den Alberto Barberak egin duen lehenengo gauza Hollywoodera barkamenak eskatzera joatea izan da. Intelektualek zinema komertziala baztertu eta izen berrien aldeko apustua egina zuten, Halaxe, Barberak Mostra lurrin sasi-erotikoaz mozorrotu badu ere, izenen kalitatea ez da galdu batere. Kubricken «Eyes wide shut», Woody Allenen «Sweet and lowdown», Scorseseren «Il Dolce cinema» italiar zinemari buruzko hiru orduko dokumentala, gehi lehian dauden Kiarostami, Zhang Yimou, Mike Leigh eta abar. Antonio Banderasek ere nahiago izan du bere «Crazy in Alabama» Venezian aurkeztu. Ondorioz, honek guztiak zenbat espazio uzten dio zinemaldiari bere amarauna ehuntzeko? Diego Galanen irudiko, Veneziako Mostran Alberto Barbera zuzendari berriaren jokamoldea ezustea izan da, Hollywoodeko estudioen esanetara makurtu baita. Barberaren aburuz, sail ofizialerako hautaketa egiterakoan, ez zen espainieraz egindako filmik lehian egotea merezi zuenik. Galan ez dago batere ados horrekin: *«Berari erakutsi zizkiotenak izango ziren kaskarrak. Aldi berean, hori mesprezu bat da Donostikoarekiko, hemen espainieraz dauden filmak erdipurdikoak direla esan nahi duelako».* Jakina denez, Veneziakoa zein Donostiakoa irailean izanik, lehia bizia egoten da filmak lortzeko. Diegoren esanetan, *«Veneziak batzuk kendu dizkigun arren, guk ere bai haiei».* Kontuak kontu, Donostiakoak muzin egin dio Hollywoodeko filmen lehorreratzeari. Aurten bederen ez da susmagarri den zinta estatubatuarrik emango, iaz «Very bad things» hiperkomertzial hura sail ofizialean lehian jarri zuten-eta. Beraz, sail ofizialeko 14 filmeen kalitatean egongo da beste behin koska. Izen berrien aldeko apustu tinkoarekin jarraiki, gaur egungo zinema norabide guztien ikuspegia emango da, errealitatean sakontzen duten filmetan arreta berezia jarriz. Lawrence Kasdanen «Mumford» edo Mike Figgisen «Miss Julie» filmak Zinemaldian lehian aritzea garaipentzat har liteke, Veneziakoaren kaltetan. Halaber, ezin ahantzi Madrilgo prentsak egingo duen indarra film espainiar batek urrezko maskorra eskura dezan; Bigas Lunaren «Volaverunt» eta Gracia Kerejetaren «Cuando vuelvas a mi lado» biak lehian arituko baitira.

FESTA NEW YORKEN. Glamourrik gabe, jakina, zinemaldi bat hankamotz dabil. Nahiz eta askorentzat apar hutsa den, beharrezko osagaia da. Azkenaldian gainera, Julian Schnabel artista ospetsua Igeldon bizitzea amu ona izan liteke Zinemaldiarentzat, bere lagunak diren zinema munduko izarrak limurtu baititzake Donostiara etor daitezen. Halaxe, Cannesen egin beharrean, joan den udaberrian Zinemaldia aurkezteko festa bat egin zuten Schnabelen New Yorkeko etxean, besteak beste, Robert de Niro, Dennis Hopper, Harvey Keitel, Sigourney Weaver (bera protagonista duen «Map of the World» filma sail ofizialean lehiatuko da aurten) eta David Bowie bertan zirela.

Mamitsua da sail paraleloen eskaintza. Zabaltegik antzoki zaharra utzi eta emanaldi guztiak kubo txikian eginen ditu; horrek hoztasuna ekar liezaioke Zabaltegiri. Europar zinema nagusi dela, zuzendari berrien sarirako (25 milioi pezeta, milioi bat libera) 35 filmen artean 11 soilik izango dira lehian. Bestalde, «Bertrand Tavernier ezagutu» izeneko zikloa (munduaren kontraesanei buruzko hausnarketak dira bere filmak); «Boom italiar erara» edo John M.

■ Tinieblas Gonzalezen «The Raven» film laburra sail ofizialean estreinatuko da.

«Adar bakar», edo dragoi bat daukat gelan niri begira

Eroetxera iritsi den ero bat gela batean giltzapetuko dute. Bertan, dragoi batekin egingo du topo, bien arteko solasaldi arinari hasiera emanez. Anartean, zaindari bat dago, bideozaintza kamaren bidez, dena kontrolatzen. Berak ikusiko duena ostera, arras bestelakoa da. Hori du kontagai Koldo Almandoz donostiarraren «Adar bakar» euskaraz egindako film labur berriak, Zinemaldian ikus ahalko den euskarazko zinta bakanetakoak.

«Errealitate ezberdin bat islatu nahi izan dut. Badakit gehiengo batentzat ez dela ulergarria izango, duen kutsu surralistarengatik, eta erakutsi baino iradoki egiten duelako. Ez dago halako matrakarik. Baina tira, inor ez aspertzea nahi nuke. Jendeak esan beharko du zer iruditu zaion, nik perspektiba galdu dut eta. Hala ere, istorio nahikoa pertsonala da, nire aitonaren oroimenez-edo egindakoa. Iaz zendu zen, eta urteak eman zituen alzheimerrak jota. Beraz, hark bizi zuen mundu hura irudikatu nahi izan dut. Aitona burutik jota zegoela zioen jendeak, baina berak bizi zuen errealitate hori benetakoa zen. Ideia hori buruan nuela Harkaitz Canori komentatu, berari gustatu eta lanari ekin genion. Emaitza ikusita, lehen planoen indarra nabarmenduko nuke». Istorioa bi ikuspuntutatik dago kontatua: bata, bideozaintza kamaren bidez; eta bestea, eroetxera iritsi berri den gizonaren ikuspegitik.

Zestoako bainuetxean asteburu batean filmatu zuten, 35mm-tako ordu erdiko pelikula erosita. Aspaldi bertan behera utzita dagoen eraikuntza batean, Koldok bere lagunak bildu eta dena txukuntzen ibili ziren, baita hormak pintatzen ere. *«Azpimarratzekoa da lantaldearen inplikazioa: Xabier Lozano, Jose Mari Salinas, 'Argilun'ekoek ere materiala utzi digute. Ondoren, REC estudioetan egin dugu soinuaren ekoizpen-ostea».* Ekoizpen xumea izan da, milioi bateko aurrekontuarengatik baino, baldintzek eraginda: *«Dena asteburu batean egiteko eta pelikula gutxi edukita, aurretik entsegu franko egin genituen aktoreekin».* Horren ildotik, aipa dezagun ustezko eroaren rolean Madrilen ikasten dabilen Asier Hernandez dugula; zaindaria Jose Ramon Argoitia dela eta dragoiaren ahotsa aldiz, Manu Etxezortu irrati esatariak sartu duela.

Filma, munduan zehar dauden zinemaldietan aurkeztu nahi dute, azpititulez baliaturik. Lehen emanaldia ordea, Zinemaldian izango dugu, euskal zinearen egunean hain zuzen, hilaren 23an eta IBAIA elkarteak antolaturik ●

Stahl-i eskainitako atzera begirakoak. Hitchcocken jaiotzaren mendeurrena dela kari, «Hitchcockek ilehoriak nahiago zituen» izeneko maratoia eskainiko da. Almodovarren «Todo sobre mi madre» filmari «Fipresci» kritikarien sari handia emango zaio; Fernando Fernan Gomez eta Alberto Sordiri omenaldia egingo zaie; Vanessa Redgrave eta Anjelica Hustonek Donostia saria jasoko dute.

Euskarak Zinemaldian duen presentziari gagozkiola, Bagera Donostiako euskaltzaleen elkarteak horren behaketa egingo du. Aurreko urteetan euskararen presentzia eskasa kritikatu du, bai zinemaldiaren egunkarian baita aurkezpen eta film osteko solasaldietan ere. Zinemaldiak argudiatzen du aurkezleak elebidunak direla, eta denbora faltak eragiten duela euskara gutxi erabiltzea. Orobat, «Gara» egunkariak babestuta, bi film emango dira euskarazko azpitituluekin. Aurrekoetan ez dute harrera onegia eduki, nahiz berez, tiradizoa bazuten.

Azken irrika bat. Logikoa da ikusleen eta kritikaren gustuak bat ez etortzea; ez ordea, kritika eta epaimahaiaren arteko desadostasuna film onenak hautatzerakoan. Espero dezagun hortaz, epaimahaiaren erabakian zirkuitulaburrik ez gertatzea aurten; iazko film irabazlea, «El viento se llevo lo que», beste behin oharkabean pasatu baita. Iduri du aurtengo epaimahaia fidatzekoa dela, Bertrand Tavernier buru dutela. Galanek haatik, garbi utzi nahi du epaimahaiari ez diotela presiorik ezarriko film faborito bati saria eman diezaioten ●

◆ BEÑAT DOXANDABARATZ

ALBERTO ELOSEGI

■ Irudian Diego Galan eta Rafael Moneo kuboen arkitektoa.

LITERATURA

Haur eta gazte literatur produkzioak ikaragarri egin du gora azken urteetan. Bertako argitaletxeei Espainiako etxe handiak gehitu zaizkie gainera. Negozio errentagarria denaren seinale. Baina, merkatuak, euskal merkatuak bereziki, bere mugak ditu.

ALBERTO ELOSEGI

HAUR ETA GAZTE LITERATURA MERKATUAREN LEGEPEAN

Bi mende joan dira, Bizenta Mogelek 1804an, bere «Ipuin onac» lanaren argitalpenarekin, euskal haur eta gazte literaturaren historiari hasiera eman zionetik. Ez ziren hastapen horiek oparoegiak izan ordea. 1980a bitarte, haurrentzako euskal liburuen zerrenda ez zen 400 titulutara iristen. Azken hogei urteotan, berriz, 3.000tik gora liburu argitaratu dira esparru honetan. 1994. urtean bakarrik urteko produkzioa 400 aleren inguruan ibili zen. Hori bai, ordutik hona, kopuruak behera egiteko joera hartu du: 1997an 245era jaitsi zen dagoeneko eta azken bi urtetan ez da beheranzko joera hori aldatu.

ALBERTO ELOSEGI

■ Merkatua zabaldu den neurrian, eskaintza ere zabaldu da.

Igoeraren arrazoiak nahiko agerian daude. Alde batetik, Frankismoaren amaierak haur eta gazteentzako liburuen gabezia utzi zuen agerian —1940-1959ko tartean soilik 6 liburu kaleratu zirela ikustea besterik ez dago—. Bestetik, hezkuntzan, euskal ereduan matrikulatzen diren haur kopuruak gora egiten duen neurrian, euskarazko lanen irakurle potentzialen kopurua ere igo egiten da. Egia da, telebista bezalako elementuek irakurzaletasunean eragin negatiboa dutela. Hala ere, haur bakoitzak, ikasketek beharturik, literatur lan kopuru jakin bat irakurtzen —edo, bederen, erosten— du urtero. Aurelio Erdozain Aizkorri argitaletxeko arduradunaren

esanetan, 7 urtetik gorako haurrei zuzenduriko produkzioaren % 80 bide horretatik sartzen da, hots, irakaslearen aukeraren arabera saltzen da.

ESKAERA GORA, ESKAINTZA GORA. Merkatua zabaltzen joan den neurrian, eskaintza ere zabalduz joan da. Eta ez soilik euskal argitaletxeek euren produkzioa handitu dutelako, argitaletxe berriak ere sortu direlako baizik. Testu liburuekin gertatu bezala, sarritan, etxe berri hauek Espainiako argitaletxe indartsuen itzalean jaio dira, hazten ari zen merkatu baten etekinen usainean. Horrela sortu dira azken urteotan, Santillanaren seme den Zubia, Edeberen Giltza edota Mensajeroren Gero azpi-argitaletxea. Joxan Ormazabal Elkarlanean argitaletxeko kidearen esanetan *«konpetentzia edo borroka bat badago. Gu urte luzez aritu gara honetan eta orain argitaletxe indartsuak etorri dira gu baino baliabide handiagoekin»*. Ez dezagun ahaztu, haur eta gazte literaturan baliabideak funtsezkoak direla, bertan garrantzi berezia baitute marrazkiek, paperaren kalitateak, koloreak... eta horrek produktua garestitu egiten du.

1980.etik 1994. urtera 2.785 lan argitaratu ziren. Horietatik, 1.931 itzulpenak ziren eta sor lan berriak 248 besterik ez

Baliabideez gain, produkzio propioa ugaltzeak idazleak ere ugaltzea eskatzen du. Haur eta gazteentzat idazten dutenen kopurua handitu denik ezin ukatu eta, hala ere, itzulpenetara jo da sarri. 1980-1994 urteetan 2.785 lan argitaratu ziren. Horietatik 1.931 itzulpenak izan ziren eta 248 besterik ez kaleratutako sor lan berriak —gainontzeko 606ak berrargitalpenak izan ziren—.

EDIZIO-MUTUAK. Argitalpen garestiak kaleratu ahal izateko edizio-mutuak usu erabiltzen dira gurean. Demagun azal gogorreko eta koloretako irudiz beteriko liburua argitaratu nahi dugula. Aurelio Erdozainen esanetan 10.000 aleko tirada saldu beharko litzateke berau errentagarria izateko eta *«1.000 ale saltzea ere kosta egiten da»*. Hortaz, zer egin? Bada, argitaletxe indartsuek tirada handiko edizio-mutuak, hots, testurik gabeko liburuak egiten dituzte, ondoren, testua hainbat hizkuntzatan sartu eta herrialde ezberdinetan banatzeko. Erdozainen hitzetan *«espainol eta portugesei esker merkaturatu ditzakegu horrelakoak euskaraz»*.

Ibaizabal argitaletxeak haur eta gazteentzat 15 liburu inguru jarriko ditu kalean hasi berri den ikasturtean, Gaztaro, Matxinsalto eta Ekin sailetan banaturik. Haur

HAUR ETA GAZTE LITERATUR PRODUKZIOA XX. MENDEAN



ITZULPEN ZERBITZUA
eskura
SERVICIO DE TRADUCCION
JOSÉ ARANA, 15 BEHEGAINA
20001 DONOSTIA
TELEFONOA: 943 29 18 30
FAXA: 943 27 58 69
eskura@bezeroak.euskaltel.es
Itzulpenak
Testu zuzenketak
Interpretaritza
EUSKARA - GAZTELANIA
GAZTELANIA - EUSKARA
Bezeroen beharretara egokituz,
Ingelesa
Frantsesa
Alemaniera
Italiera
Katalana
Portugesa
Galegoa...
hizkuntzetarako itzulpenak ere eskaintzen ditugu.
1985EAN SORTUA

txikienei zuzenduriko sail berri bat ere jarriko du abian 6 bat titulurekin, Tento izenez, eta Edelvives etxeari erosiko dio sail osoa. Arrazoia garbi bota du Eukene Herrera arduradunak: «*askoz merkeago delako*».

Aizkorri etxea duela bi urte sortu zen. Euskal haur eta gazte literaturak ez omen zuen kolorerik eta xede horrekin ekin zioten lanari. Barne produkzioaz gain —ez dezagun ahaztu Euskadi Saria jaso berri duen Juan Kruz Igerabideren «Jonas eta hozkailu beldurtia» Aizkorrik argitaratua dela—, Aizkorrik Disney etxearen edizio-mutuak erabiltzen ditu estatubatuar erraldoiaren lanak kalitate handiz argitaratzeko.

Elkarlaneanek esparru honetako 25 lan inguru argitaratuko ditu aurtengoan, sail ezberdinetan. Eta orain arte guztiak etxean bertan burututakoak izan dira. Duela gutxi, ordea, Argitaletxe Elkartuak sortu berri dute Katalunia, Aragoi, Galiziako... beste sei argitaletxerekin batera. Bakoitzak lan orijinala jarri eta sei hizkuntzatara itzultzen da, ondoren. Joxan Ormazabalek ekimena oso positibotzat jotzen du. «*Horrekin ez diegu argitaletxe handiei itzalik egiten, baina gu indartu egiten gara eta produktua merkeago egitea lortzen dugu*».

■ Urteotako hazkundearen ondoren, euskal haur literaturaren merkatuak muga jo du.

Haur eta gazte literaturan, jatorrizko euskarazko produkzioa gehiago saltzen da itzulpenak baino

ITZULPENAK BAI ALA EZ? Edizio-mutuetako lanak itzuli egiten dira, noski. Baina, argitaletxeen produkzio propioan ere itzulpenek pisu handia dute. Zenbakietara begiratu besterik ez dago. Elkarlaneanek argitara ematen dituen liburuetatik, beti ere haur eta gazte literaturaz ari garela, erdia baino gehiago itzulpenak dira. Jatorriz euskaraz idatzitakoa ugaltzen ari da proportzioan, baina, oraingoz ez dago euskal idazle nahikorik produkzioa gehiengoan euskarazkoa izateko, eta, batzuren arabera, ezta beharrik ere. Zergatik da hobea bertakoa?

Eukene Herrerak uste du, haur literaturan ulermenak garrantzi berezia duenez, hurbiltasuna ulermenaren mesedetan dela eta bertako idazleak hori eskaini dezakela. Erdozainentzat produkzio propioak bultzatzea, hemengo idazle berriei aukera ematea da, eta positiboa, neurri horretan.

Baina guztiak bat datoz kalitateak ere zer esanik baduela diotenean. Alegia, teorian bederen, ezin emango zaio bertako idazle bati lan kaxkarra argitaratzeko aukera, bazterrean atzerriko lan on bat utzita. Ormazabalen aburuz, oreka bat aurkitu beharko litzateke. Baina, orekaren terminoak ere ez daude garbi. Kalitatea aipatzen da, baina, merkatua ere hor dago. «*Jatorrizko euskarazko produkzioa gehiago saltzen da*». Erdozain eta Herreraren iritzia da. Erdozain urrunago doa: «*Euskal Herriko produkzioa kanpokoaren mailaren azpitik dago, eta kalitate hori baztertu egiten da gehiago saltzen denaren mesedetan. Ez dut esango kalitatea kontutan hartzen ez denik, baina errentagarritasuna bilatzen dugu. Argitaletxe guztiek dugu pekatu hori*».

Badirudi ordea, euskal haur eta gazte literaturaren merkatuak muga jo duela. Produkzioa behera doa eta horretan jardutea ez omen da lehengo pagotxa. Beharbada, horrek kantitateen gainetik kalitatearen irizpidea nagusitzea ekarriko du ●

◆ NAGORE IRAZUSTABARRENA

ALBERTO ELOSEGI

■ Marrazkiek, koloreak... garestitu egiten du haur eta gazteentzako literatur produktua.

irakurle ausartentzat

konponbideak bilatzen dabiltzanentzat
egia borobilek zalantzak sortzen dizkienentzat

elkarri aldizkariaren harpidedun egin zaitez

moztu kupoi hau eta bidali helbide honetara: elkarri, madril etorb., 5 - 20011 donostia

• bai, nire etxean jaso nahi ditut elkarri eta elkarrikasi aldizkariak

☐ 4.000 pta. (urteko kuota) ☐ 1.000 pta. (3 hilabeteko kuota)

izen-abizenak _____ N.A. _____

helbidea _____ herria _____

herrialdea _____ kode postala _____

banku edo aurrezki kutxa _____

kontu zenbakia (20 digito)

Astia Hartuta

LIBURUAK

BAZTANGO KONTUAK

Mariano Izeta

Labayru/Naf. Gob
235 orrialde



Labayru Ikastegiak eta Nafarroako Gobernuak ahozko literatura biltzeko helburuz sortu zen Laratz bildumaren laugarren alea kaleratu berri dute. Oraingoan, Baztan aldeko kontuak bildu nahi izan dituzte eta horretarako bertako idazle eta kazetari ezaguna hautatu dute: Mariano Izeta. Elizondoarrak Baztango berri ematen digu lehenik, sarrera moduan, bertako mugak, toponimia, euskara eta abarren inguruan jardunez. Ondoren, ipuin eta kondairei ekiten die: aldudar eta erratzuarren arteko pasadizoak, Lekauzko konbentukoak, lasterka apustuarenak, Gamio anaien istorioa... Horretaz gain, bertso-kronikei tarte zabala egin die eta atsotitz, esamolde eta asmakizunei ere atal bat eskaini die ●

TANTAK

21. zenbakia

EHU
152 orrialde
2.200 pta. urteko

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkariaren ale berriak, ohi legez, gai desberdinak jorratzen ditu. Lehen hiru gaiek ebaluaketa eta neurketarekin dute zerikusia. Kanpo-ebaluazioa, paper-zorroen bidezko ikaskuntzaren ebaluaketa eta neurketa tresnen euskaratzea dira hain zuzen Alejandro Tiana, Elena Barberá eta Paula Elosuak Alicia Lopezekin batera, hurrenez hurren, landu dituzten gaiak. Iñaki Zabaletak nazionalismoa aztertu du eta Felix Placerrek bazterketa gizarte globalizatuan, beti ere hezkuntzaren ikuspuntutik. Komunikazio-gaitasunaren balorazioari buruz Mikel Prietok idatzi duen artikuluak ematen dio amaiera Tantak sehilabetekariaren azken zenbaki honi ●

AKAPELA

Uhaina/Elkarlanean
270 orrialde
1.045 pta.

Duela hamar urte kaleratu zen lehen aldiz kantu liburu hau, Aturri bildumari hasiera emanez. Ondoren «Xaramela» eta «Kantuz» beste bi liburuak iritsi ziren. Orain, Elkarlaneanek eta Uhainak, Euskal Kultur Erakundearekin batera, hirugarrenez berrargitaratu dute. «Goizian argi astian», «Pintto, pintto», «Izotz ondoko eguzki», «Lau teilatu»... Kantu herrikoi zaharretatik azken urtetako arrakastetara, denetarik bildu dute bertan. Helburua bazkal eta afalostean, jai giroan kantatu ohi direnak hedatzea. Xede horri jarraituz, hitzen eta doinuen egileez gain, kantua kaleratu duen kantari edo taldearen izena ere aipatzen da, baita gitarraz laguntzeko behar diren akordeak ere ●

EGUBERRI ETA GABON IPUINAK

Juan Manuel Etxebarria

Ibaizabal
78 orrialde
895 pta.

Oraindik hilabete batzuk falta dira Eguberrietarako, baina Ibaizabal etxeak, dagoeneko, garai horretako ipuinak bildu ditu gazteei zuzenduriko liburu honetan. Olentzero agertzen da, noski, Gaztaro bilduman kaleratu dituzten zazpi ipuinotan, baina baita lamiak, gizon-sugeak eta bestelako pertsonaiak ere. Testuotan Kristo aurreko zein osteko Gabonetako ohitura eta kontakizunak nahasten dira, beti ere, euskaldunen ohiturak. Idazkera erraza erabili du Juan Manuel Etxebarria egileak eta, gainera, amaieran hiztegi bat ere paratu du irakurleari ulermenean lagungarri gerta dakion. Testuaz gain, marrazkiak ere badira, Inma Mendiolak eginak ●

EUSKALDUNAK, LIBERALAK ETA KOMUNITATE-ZALEAK

Jon Sudupe

Euskaltzaindia/BBK
175 orrialde
855 pta.

Euskaltzaindiak eta BBK Fundazioak eskaintzen duten Mikel Zarate saria irabazi zuen iaz Jon Sudupe azkoitiarrak lan honi esker. Liberalismoa eta komunitarismoaren arteko eztabaida zaharra du oinarri saio honek. Batzuk gizabanakoaren alde eta komunitatearen baloreak defendatzen besteak. Testuinguruaren eta berezitasunaren aldeko aldarrikapenean dago bataren egia. Unibertsaltasunaren, erreflexibotasunaren eta tolerantziaren defentsan, berriz, bestearena.

Mundu guztian zabalduta dagoen eztabaida da eta gurean, Suduperen esanetan, garrantzi berezia duena. Baina bat ez da guztiz ona eta bestea txarra. Horregatik, irtenbidea ere proposatzen du egile azkoitiarrak lan honetan, bien artean dagoen hirugarren bidea ●



■ *Jon Sudupe*

Mikel Zarate sariaren irabazlea

«Integrazioa da gure arazoaren irtenbidea»

Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak» lanean liberal eta komunitaristen arteko eztabaida lantzen duzu. Zertan datza eztabaida hori?

Duela 200 urtetik ematen den eztabaida da liberal eta komunitaristen artekoa. Ilustraziozale eta erromtizismozaleen arteko eztabaida bera da. Lehenek unibertsaltasuna defendatzen zuten, komunitateei garrantzia emanez, eta besteak partikularizazioaren aldekoak ziren, gizabanakoaren aldekoak. Toki guztietan ematen den eztabaida da.

■ **Euskal Herrian ere ematen al da eztabaida hori?**

Euskal Herrian bereziki. XIX. mendean du abiapuntu, liberalen eta karlisten arteko eztabaidetan. Eta azkenean Euskal Herriko arazoak hor du erroa, Justo Garatek esan zuen bezala. Eztabaida hori da egungo eztabaidaren atzean dagoena da. Lizarra-Garazikoak komunitaristak dira eta besteak liberalistak.

■ **Eta irtenbidea non dago?**

Hirugarren bidea, erdibidea, da irtenbidea. Extremismoen garaia pasa da. Orain kontsentsuak, integrazioak ekarriko du irtenbidea. Liberalismoak ez du sentsibilitaterik erakutsi komunitate zentzuarekiko. Liberalismoaren oinarriei sentsibilitate hori erantsi beharko litzaieke, liberalismo komunitarista edo komunitarismo liberalera iristeko. Gure arazoak ere, Euskal Herriko gatazkak hor du irtenbidea.

■ **Euskaltzaindiak eta BBK fundazioak ematen duten 1998ko Mikel Zarate saria jaso zenuen saiakera honekin. Zer esan nahi du horrek zuretzat?**

Nik atsegin pertsonalerako idazten ditut lan hauek, nire irakurketen ondorio dira eta bi urtean behin egiten dut horrelako bat. Baina, bestalde, saiakera, genero bezala, alde batera utzita dagoela uste dut eta pena da. Irun Hiria sariak saio saria kendu egin du. Orain badirudi euskal literaturan dena nobela dela eta saioak ez dira irakurtzen. Eta, nik baino hobeto egingo luketen idazleak badaude ere, ez dira idazten ●

LENTE PROGRESIBOAK
3 punturen arteko distantziarik erosoena

urruti

tarteko distantzia

hurbil

Edozein distantziatara ongi ikus dezazun, MULTIOPTICASen irtenbiderik onena dugu. INDO betaurreko progresiboak. Erosoak eta eraginkorrak. Ikusmen nekatua ahantz dezazun. Gainera, gure MULTIOPTICAS txartelarekin ordainketa hiru hilabete erosotan egin ahal izango duzu inolako gainkargurik gabe. Eta Travel Club puntuak lortu ahal izango dituzu. Dei ezazu 900 34 35 36 telefonora eta informazio gehiago emango dizugu. INDO DISTANTZIA GUZTIAK BETAURREKO BAKARREAN

ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a
Hernani, 4 - DONOSTIA

JON GUREA, PARISEN HATZANA

Juan Karlos del Olmo

Euskaltzaindia/BBK
85 orrialde
570 pta.

Honako lan honek Euskaltzaindiaren eta BBK fundazioaren Toribio Altzaga Antzerki Saria jaso zuen 1998ko edizioan. Lan honen bidez, Jon Mirandek bere buruaz beste egin aurreko ustezko azken orduak berreraiki ditu Barakaldoko itzultzaileak. Modu dramatizatu eta poetikoan kontatzen ditu azken ordu horiek. Miranderen Parisko ganbaran kokatzen da antzezlana eta hainbat pertsonaia izango ditu inguruan. Pertsonaia berezi eta polemikoa genuen Mirande eta Juan Karlos del Olmok konplexutasun hori islatu nahi izan du bere azken ordu dramatikoen kontakizunarekin ●

DISKOAK

AMETS BAT

Petti

Gaztelupeko Hotsak
2.185 pta

Berako kantautorea da Petti, baina Euskal Herriko gainerako kantautoreekin antza handirik ez duen kantautorea. Atzerriko hainbatekin badu antza ordea; bere eraginen artean Tim Bucley, Nick Drake, Nick Cave edo Tom Waits aipatu beharrekoak dira.

«Amets bat» hau bere estreinako lana da, Digi-pack formatoan argitaratu dena. Hamaika kantu bildu ditu orotara diskoan eta hasiera bere jaioterriari eskainitako kantuak ematen dio: «Bera». Ondoren datoz «Perika», «Ilusioa», «Egun bat gehiago», «Askatasunik gabe», «Ezinezkoa da», bere musikaririk maitatuenari eskainitako «Nick Drake» eta beste batzuk.

Blues eta rock estiloetan ederki moldatzen da musikari nafarra eta, hala ere, disko honetan beste bide batzutatik joan da gehiago; diskoaren oinarrian sonoritatea akustikoa da.

Diskoa 1998ko irailean grabatzen hasi eta aurtengo martxoan amaitu zuen. Berako Aduanan burutu zituen grabaketa lanak eta Maikel izan zuen teknikari eta produkzio lanetan. Horrez gain, beste hainbatek kolaboratu du Pettirekin bere lehen disko hau osatzeko orduan: Garbiñe Goia izan du teklatuan; Irazoki anaiak bateria eta baxuan; Kristina Arzallus txeloan; Beñardo Goietchek egin dizkio koruak; eta Fresko izan du klarinetean «Ezinezkoa da» azken aurreko kantan.

Hilaren bukaeran, Iruñean eta Bilbon aurkeztuko du lan hau Pettik ●

URTEETAN EUSKAL HERRIA GURE UHINETAN

Argitalpenak: NAGORE IRAZUSTABARRENA - Agenda: ERIZ ZAPIRAIN

GETXO irailak 17, 18 eta 19
XIII. Habanera eta Itsas-abesti jaialdia
Ostiralean Menorcako Joana Pons amb ses guitarres, larunbatean Madrilgo Eusko Etxea Orfeoia eta igandean Kataluniako L'Espingari-k hartuko dute parte jaialdian.
Areetako Eskoletako Plaza
21:30

GERNIKA irailaren 30era arte
Erakusketa
Ramon Serrasek "Lanak eta egunak" izenburua daraman argazki bilduma du erakusgai.
Euskal Herria Museoa

ZARAUTZ irailaren 26ra arte
Fidel Raso. Ekuador, 1997
Fidel Raso argazkilariak Ekuadorreko "Expreso" egunkarian lanean aritu zen garaian ateratako argazkiak dira erakusketa osatzen dutenak.
Photomuseum
10:00-13:00/16:00-20:00

HAZPARNE irailak 19
Bertso zikiro jatea
Zikiro jatea bertsoz alairuko dute Sustrai Kolina, Amets Arzallus, Xumai Murua eta Eneritz Zabaletak.
13:00

BILBO irailak 16
Nafar gaua
Bilbo Hiria Irratiaren eskutik, Nafarroako Nahi ta nahiez eta Hemendik at taldeek kontzertua eskainiko dute.
Kafe Antzokia
22:00

LEIOA irailaren 30era arte
Arte erakusketa
Ivan Aresti, Maite Puelles eta Ross Urien margolari leioarren arte erakusketa izango da ikusgai.
Leioako AEK euskaltegia

OÑATI irailak 18
Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketa 99
Saio honetan Oñati eta Azpeitia-Landetako taldeak arituko dira. Egun berean Ordizia (Argi Berri elkartea) eta Aian (Kanua jatetxea) ere saioak izango dira.
Pago Uso elkartea

ORDIZIA irailaren 30era arte
Jesus Jauregi artistaren erakusketa
Bilboin jaiotako artistaren lanak daude gozagai.
Barrena Kultur Etxea

HERNANI irailak 19
Euskal Herriko XXII. Marmitako Leihaketa
160 sukaldari, bakoitza bere laguntzailearekin, Euskal Herriko marmitakorik onena nork egingo leihan arituko dira. Epaimahaia sukaldari ospetsuek osatuko dute.
Urbieta etorbidea

IRURITA irailak 18
Garagardo festa
Iruritako gazteek antolatuta VI. Garagardo festa ospatuko da Baztango herri honetan. Garagardoaz gain, kontzertuak eta akanpadarako guneak egongo dira.
19:00

Agendarako deialdiak hogei egun lehenago bidali 37 34 03 faxera

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa fundación

ALBISTEGI BERRIAK

Nabari da zuzendaritza berriaren lehen emaitza: ETB-1eko albistegiak bigarrenaren parean jarri baitira. Hemendik aitzin, euskaraz pentsatu eta egingo dira, beti ere herritarrengandik hurbil. Jaime Otamendi Albistegi eta Kiroletako burua dugu aldaketa horren lemazain.

BITAMINAK ANAIA TXIKIARI

■ Ameriketatik ingelesa eta bertako telebisten sekretuak ikasita itzuli da Otamendi.

Urtetan hankamotz ibili dira euskarazko albistegiak. Deskafeinatuak eta ETB-2koen menpe. Hori dela eta, EITBko zuzendaritza berriak gauzak orekatze bidean jarri ditu. Eta zer hobe horretarako, Jaime Otamendi 32 urteko kazetaria albistegi eta kiroletako buru izendatzea baino. Irratian «Goizean Behin» saioa 13 urtez egin ondoren, iaz dena utzi eta urtebeteko egonaldia egin du Estatu Batuetan ingelesa ikasten eta bidenabar, hango komunikabideen jokamoldeak ikasten. Bere gidaritzapean, albistegi osagarriak eskaini nahi dituzte, ikusle eta katearen hizkuntzari egokituak. Halaxe, betiko aurkezle ezagunak mantenduz, udazken honetan berritasunak aztertu eta probatuko dituzte, ea zerk funtzionatzen duen hobekien. Hasteko, kate bakoitzak itxura ezberdina ukanen du, Carlos Zabala «Arrastalu»ren dekoratu berriei esker, non kristala eta ispiluak nagusi diren. Halaber, albistegi saioetako bat-batekotasuna bultzatu nahian, ETBk SNG izeneko tresna berriak erosi ditu. Satelite bidez irudiak igortzeko aukera ematen duten kamerak izaki, gertaeraren lekuan dagoen kazetariarekin zuzenean egin daiteke bat. Ardura berriarekin gogotsu agertzen zaigu Otamendi: *«Urtetan ahal dutena egin dute informatiboetan, ez da lehenengo aldia gainera halako zer edo zer egiten saiatzen direna; baina ni aurrera begira nago gehiago. Gure erronka momentu honetan albistegiak egiten ditugun hizkuntzan pentsatzea da, batez ere hizkuntzak berak hala eskatzen duelako eta bestetik, zuzentzen ari gatzaizkion merkatuari egokitu beharrean gaudelako. Konparazioa egin, nahiz eta bi katetan antzeko informazioa emango den, euskarazkoak euskaraz pentsatuko dira, hau da, politikoen adierazpenak gazteleraz baldin badaude, horrek ez du islada berbera izango lehenbiziko katean. Gonbidatuekin beste hainbeste gertatuko da, gai batean aditu baten bila hasi behar badugu, komunikatzaile onak bi kateetarako aurkitzen saiatuko gara».*

Beti esan izan da badela tarte bat kazetarientzat albiste dena eta jendea zerk kezkatzen duenaren artean

ZUBILANA HELBURU. Beti esan izan da badela tarte bat kazetarientzat albiste denaren eta jendea benetan zerk kezkatzen duenaren artean. Komunikabideek oro duten kezka hori kontuan hartuko duela diosku Otamendik *«gurean ere hausnarketa hori egin beharra dago, hiritarrek kezkatzen duenari arreta handiagoa jarri behar diogu, kalea askoz gehiago zapalduz; kazetariok politikaren inguruko kontuekin murgilduta bizi baikara, politikarien arteko ika mikak izaten ditugu aipagai, askotan ezer berririk esan gabe. Egia da, tankera horretako informazioari lehentasuna ematen diogu, nahiz eta jendearen albiste egarria bide horretatik ez joan beti. Ahalegin berezia egingo dugu kultura eta gizarte gaiei merezi bezalako presentzia ematen».*

Ikerketen arabera, jendea asper-asper eginda dago albistegietan hainbeste berri txar ikusten. Zernahi gisaz, triskantza eta kontu ilunak nagusi dira oraindik. Hori zergatik ote den galdetuta, Jaimek ez du zalantzarik: *«ingelesez bada horren adierazgarri den esaldi bat: «good news, no news» (berri onak ez dira berriak). Hala ere, berriak aukeratzerakoan nolabaiteko oreka bat gorde behar da; guk behintzat, tankera guztietako berriei egin nahi diogu tarte, are gehiago EITBren nazioarteko hedatzea dela eta».*

Gero eta garrantzi handiagoa hartzen

ari diren deskonexioei gagozkiola, nola egin aztertzen ari dira oraindik, *«Euskal Herria txikia izanda ere, guri lan asko eskatzen digute deskonexioek. Ziurrena, gertuagoko berriekin beste tarte bat osatuko dugu. Iparraldeari dagokionez, 'Iparraldearen orena' saioak jarraituko du, hegoaldekook hango aferak ezagutu ditzagun. Baina horretaz aparte, Iparraldeko ordezkaritza bultzatuko dugu gure albistegietan ere Iparraldeko gertakizunak sartzeko asmoz»* diosku Otamendik.

■ Albistegien itxura eta edukia aldatu arren, oro har, betiko aurkezle ezagunek segitzen dute.

CNN: IKASBIDEA. Esperientzia aberasgarria izan da Estatu Batuetakoa. CNNk Atlantan duen egoitza nagusian hilabeteko trebaldia eginda itzuli da Jaime. Zein ikasbide atera duen galdetuta, berehala erantzuten digu: *«itxura asko gustatu zait, gauzak nola apaindu eta janzten dituzten. Edukiak aldiz, ez zaizkit gehiegi gustatu; nire iritzirako oso arinak dira, erabat horiak, gainera. Sakontze gutxi dago gaietan. Nazioarteko gaiei esaterako ez zaie inolako oihartzunik ematen; hutsaren hurrengoa dira. Dena den, Etxe Zuriak hatzaparra sartzen badu, orduan bai, nazioarteko albistea gai nagusi bilakatzen da. Etxe Zuria non, berria han. Gainontzean, Estatu Batuetatik kanpo gertatzen dena hutsaren hurrengoa da; ez zaie batere interesatzen. Bestalde, forma zaintzeaz gain, enpresak antolatzeko dauzkaten sistemak ere eredugarriak dira»*. Haatik, hango ereduak hartu eta bat-batean hemen jartzeari ezinezko deritzo, *«toki bakoitzak bere nortasuna eta ñabardurak dauzkalako. Gure jokamoldera egokitu beharko litzateke, baita gure hizkuntzara ere. Baina, formak adibidez, hemen aplikatzeko moduko elementuak direla iruditzen zait. Egin kontu: merkatuari arreta gehiago ipintzea, gure burua hobeto saltzen ikastea ere bai. Gure buruari indar gehiago ematean dago koska; estatubatuarrak onenak dira horretan»*. «ABC», «NBC» edo «CBS» Estatu Batuetako kate hertsiak diren bitartean, CNN mundura begira eginda dagoen katea da, irekia, ez du beraz, halako arrakastarik Estatu Batuetan, nahiz kanpora ematen duen proiekzioa arras bestelakoa izan. Otamendiren irudiko *«harritu nauen beste gauza bat egon da, alegia: zeharo kezkatuta daudela jendeari gertuko albisteak emate horrekin. Denak daude konturatuta hain kontinente handia izanik, ahalik eta gertueneko albisteak eman behar dituztela arrakasta izango badute, deskonexio lokalak eta landuz. CNN ere, jomuga 'globalagoa' duen arren, dagoeneko hasia da Hego Amerika, Europa edo Asiarako berariaz prestaturiko programazioa taxutzen. Horretan, gu euskaldunak zorionekoak garela uste dut, elkarrengandik gertu gaudelako. Bestalde, EITBren beste zeregina munduan zehar barreiatua dagoen euskal kolonia horri kate on bat eskaini ahal izatea da. Etxe barrura so ordea, gure erronka bertako albisteak ongi lantzea izango da, atzerriko gaientzat leiho ireki bat edukita, noski»* ●

"Estatu Batuetan albistegien itxura gustatu zait, gauzak nola janzten dituzten. Edukia aldiz..."

◆ BEÑAT DOXANDABARATZ

Txori Batek Esan Digu

■ GOENKALEREN FESTA KURSAALEKO KUBOETAN

Telesaileko 1.000. atalaren kariaz, festa bat antolatu dute urriaren 2rako, larunbata. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du, ETBn laster agertuko diren telefonoetara deituta. Jaiaz landa, Goenkaleko aktoreek antzezleetako bati sari berezia emanen diote. Ez dugu izena aipatuko, gisa horretan omenduak erabateko ezustea jaso dezan ●

■ SUBIJANAREN ITZULERA URRIRAKO

Saioak izen berria hartuta bueltatuko da Pedro Subijana ETB-2ra. Primerako barazki, espezia, arrain eta okelak dituela, tripazorriak dantzan jartzeko moduko errezetak erakutsiko ditu. Bestalde, Donostiako Zinemaldia dela eta, FORTAko (telebista autonomikoen elkartea) ordezkariak biltzarra egitekoak dira ●

■ «EGIN KONTU» MAGAZIN BERRIA HASTEAR

«Sorginaren laratza» ez ezik, bigarren magazin bat ere abiaraziko du ETB-1ek. Gehiegitxo ez ote den zalantza dugu. Kontuak kontu, Pausokaren ekoizpen honek «Egin kontu» du izena eta Ana Isabel Anitua izango dugu aurkezlea. Emisio ordua jakinarazi digute: irailaren hondarrean hasita, astegunetan 16:10etatik 17:45ak arte ●

HERRI IRRATIA

Entzule fidelenak dituen irratiak 1999-2000. denboraldiari ekin dio. Euskal kultura ardatz duen aro berriari hasiera emateko, Aizkorri puntatik egin zuten «Musutruk» saioaren emisioa.

ENTZULE LEIALEN SINTONIA

Duela lau urte COPEtik banatu zirenetik, inork ez zuen harri koskorrik ematen Herri Irratiaren alde. Usteak erdia ustel, hor segitzen baitute, inoiz baino kementsugo. Halaxe, Deustuko Unibertsitateari audientziaren ikerketa bat egin dezala eskatu diote, ez baitira fido CIESek azken neurketan eman datuekin (40.000 entzule inguru), EGMek 72.000 eman dien bitartean. Bide batez, zein den entzuleria eta zein adin talde den nagusi miatuko dute. 2001. urtean gainera, 40 urte beteko dira Loiolako Herri Irratiak lehen emisioa egin zuenetik. Egun, 24 orduz emititzen dute eta Gipuzkoaz landa, Nafarroa eta Iparraldeko zenbait lekutan entzuten ahal da, baita Gasteiz eta Bizkaiko ekialdean ere. Duen entzuleria leial horrekin, badirudi bere lekua baduela, nahiz eta horretarako borroka itzela egin beharko duen.

Dena ongi atera zen, nahiz eta Aizkorriren gainetik hegaldatzekoa zen hegazkinak azkenean huts egin zien.

Gisa horretan, Mariano Ferrerren «Kiosko de la Rosi» saio izarra buru dutela, berrikuntzen artean honako hauek nabarmentzen dira: Carolina Saenz de Bikuña, Iñigo Arbiza eta Iker Zubimendik aurkezten duten «Musutruk»en indartzea: umorea eta lagungiroa, emakumeek egindako tertuliak, zinema kritikak, nazioartea, sexologia, tarota, mendia, gastronomia, eta abar. Asteburu eta jaiegun goizetan berriz, magazine berri bat izango da Xabier Riezuren eskutik. Iluntzean aldiz, Mikel Markez kantariak «Oroimeneko portua» kultur saioa aurkeztuko du. Larunbatetan ere, informatikari buruzko saio bat eginen dute urritik aurrera.

Euskararen presentziak programazioaren herena betetzen du irratian; Saenz de Bikuñaren esanetan, *«guk nahiko genukeena baino leku gutxiago du euskarak. Baina zaila da Euskadi Irratia bitarteko guztiekin hor egonda. Entzule asko galduko genituzke gainera, euskarari tarte handiagoa emango bagenio. Dena den, saiatuko gara tarte hori handitzen»*

BEÑAT DOXANDABARATZ

Aurpegia

Mikel Peruarena

«Gaiak sakonki landuko nituzke»

«Hamaiketoff» magazina egiten du Hernaniko Molotoff irratian

Irrati libreetan esperimentatzeko parada izaten da. Hori da Peruarenak Eismene Bakedanorekin batera egiten duena goizeroko magazinean. Mikelen esanetan, irratiak badauka halako alderdi ezkutu bat: *«Badu bere xarma ilunpetik entzuten dagoen jendeari mezu bat bidaltzeak»*. Irratiak duen gauzarik zailenari gagozkiola, ez du zalantzarik: *«Oso argi dauzkazun ideiak naturaltasunez botatzea, batbatekotausun hori lortzea»*. Irrati handiago batean lan egiteko aukera balu, aprobetxatuko luke, *«azken batean, gutxitan izaten da aukera hori. Hala ere, badakit Molotoffen jarraituko dudala era batera ala bestera»*. Gaurkotasunean oinarria duen irratsaio bat egin nahiko luke: *«Eztabaidak, solasaldiak, gaiak sakonki lantzeko saioak, informatiboak baino gehiago»*

Bagak

GIRALDILLAREN BOSTEKOA, OKAY!

Bostekoa ematean konturatu omen zen Carlos Herrera Giraldilla faltsuak soinean zeraman lemaz. Panpina pixkanaka alboratzeko zalantzan egon bazen ere, azkenean paso egitea erabaki zuen. Hori da lehengo astean RNEko tertulian Carlos Herrerak Carlos Davilari erantzundakoa. Bere odol hotzari esker, bertan zirenen % 10 baino ez zela konturatu; atzerrian oihartzun txikia izan duela, Interneten begiratzea baino ez dagoela. Minutu batean «Tonton Intxaurraga» zenbait aldiz bota eta gero, *«goazen gaiez aldatzera, publizitatea ematen ari gatzaizkie eta»* esan zuen Davila erretxinak

L A N D A R E A K

Irailean gaude, uzta biltzeko garaian, pagotxa eta gozamenaren garaian. Uda lehorraren ondoren, uzta elkorraren zain egon gabe, berde eta hezea dasta dezagun.

BERDEAREN GOZOA

Uztaren eromenaren hilabetea izan ohi da iraila. Neguan, sutondoan, buruan bueltaka erabili, udaberrian lurra prantatu eta erein, udan kontu egin eta eguna mozten eta mamuen gaua luza eta luza hasten den garai honetan uzta bildu eta bildu. Pagotxa eta gozamenaren sasoia da bai hauxe.

Indaba-leka, sagar, artaburu, madari eta abar heltzen edo umatzen ari dira eta ontzeko bidean, ondu artean, sare gainean, mandioan... non edo han jarriko ditugu. Heldua ez baizik eta erabat usteldua dagoenean aho-gozagarriena den mizpira ez bezala badira heldu gabe, berde antzera daudenean gozoagotzat jotzen diren fruitu eta haziak. Erabat umatu gabeko indaba

bezalakorik ez dela esaten dutenak ezagutzen ditut, adibidez. Behin urdaila pirrilaka jartzen omen duten hur berdeak janez bezala gutxitan gozatzen duen bat topatu eta, ahoa urtuz gustura asko arituak gara hur hezearen ezaugarri organoleptiko paregabeetaz hitz egiten. Ez baita azaren azpiko orria, intxaur gero eta pattalagoen aldean, berdea edo lehorra, hurra alde ederrekoa. Sagar barietate batzuk ere erabat helduz gero zakartu eta makaldu egiten dira. Pelestrina adibidez. Berde punttuak aho-sabaiari eransten dion gazi-mikatza paradisuaren ataria baino sotoetako bat da.

Zaharren artean entzuna dut noizbait: «agorra... agorra ederra! baina lehorretik heltzen badio, kontuz!». Aurtengoa lehorretik dihoa ba eta uzta elkortu dezakeenez sutondoari itxaron gabe berdetan, heze eta bixi, dasta ezazu. Denetatik probatu behar omen da mundu honetan eta Donostian ●

JAGOBA ERREKONDO
mandio@redestb.es

O S A S U N A

Neal Borkowski izan da amaren sabelean zegoela ebaketa egin eta onik atera den lehenengo haurra. Hidrozefaliak 2.000 gaixotatik batean eragiten ditu kalteak.

FETUAREN EBAKETA

Medikuek erabaki latza hartu behar izan zuten Neal Borkowski haurra (argazkian) oraindik amaren sabelean zegoela: garunetik likidoa berehala kendu ezean, umeak jaiotzerakoan malformazio larriak eta minusbaliotasun psikiko gogorrak edukiko zituen.

Neal da bere amaren umetokian dagoela hidrozefalia izeneko gaitza konpondu nahian egindako operazio kirurgikoaren ondotik itxuraz bederen onik irtendako aurreneko umea, urte luzez umeei garunean egindako operazio horiek oso ondorio txarrak edukitzen baitzituzten. Vanderbilt Unibertsitateko Joseph Bruner eta Noel

Tulipan doktoreek hartu zuten erabaki mingarri hura: Neal operatu beharra zegoen, bizirik irtetea nahi bazen. Gaitz horrek 2.000 kasutatik batean bakarrik eragiten ditu kalte konponezinak, baina amaren familian ondorio txarrak izan zituzten antzeko kasuak gertatuak ziren.

Bruner eta Tulipanek lehendik ere arantza bikoitza konpontzeko saiatutako teknika bera erabili zuten. Prozedura konplexua fetuaren garezurrean barrena hodi bat sartzearekin hasi zen, uraren koagulua ateratzeko, amaren likido amniotikoarekin nahasiz. Operazioaren bigarren fasea Neal jaio zenean jarri zen abian: une horretan hodia umearen sabelarekin lotu zuten, gorputzak prozesatu ondoren kanporatua izateko ●

◆ JABIER AGIRRE

Astero Euskaraz Bizitzeko

KONPROMISOAREN KOLOREAK DITUGU

(Ezagutzen gaituzu?)

ARGIA jaso nahi dut astero

HARPIDETZA SARIAK (BEZa barne): Hego Euskal Herria: 15.000 pta • Ipar Euskal Herria: 717 libera • Espainia: 15.000 pta • Beste Atzerriak: 19.300 pta • Airez: 30.225 pta

Markatu x batez zure aukera: ❑ **Hilabetez dohainik jaso nahi dut ARGIA berria ezagutzeko**
❑ **Urte osoko harpidetza egin nahi dut. (CD bat opari jasoko duzu)**

Izena:.....1. deitura .....2. deitura:.....
N.A.F./N.I.F.:.....Helbidea: .....
Posta kodea: .....Herria:.....Herrialdea: .....Tel./Faxa:.....

SOILIK URTE OSOKO HARPIDETZA ESKATU DUENAK BETETZEKO:

Ordainketa mota (markatu x batez): Bankuz ❑ Transferentziaz ARGIAren kontura ❑
(Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik)
Banku edo aurrezki kutxa: .....Titularra: .....
Titularraren telefonoa.....Titularraren helbidea:.....

Entitatea ❑❑❑❑ Sukurtsala ❑❑❑❑ K.D ❑❑ Kontu zenbakia ❑❑❑❑❑❑❑❑❑❑

DATA: ***SINADURA:***

Harpidetza-orri hau bete eta bidali helbide honetara:
ARGIA, Harpidetza Saila: Zirkuitu Ibilbidea, 15. pabil. 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) • Tel.: 943 37 15 45 • FAXA: 943 36 10 48 • posta-e: harpide@argia.com • www.argia.com
ARGIAk zure datuak gure arteko harremanetarako soilik erabiliko dituela bermatzen du.

Zuloz betetako Urbasako mendizerra

Urbasa mendilerroa aipatzerakoan, barreiatutako pagadi-baso itzel eta belar finez jantziriko ordoki zabala datorkigu burura. Lautada honen iparralde nahiz hegoaldeko amildegi eta malkar zut harritsuetan, guztiok ibili gara, noiz edo noiz. Urbasa mendizerra karstikoa da eta beraz, urak kare-harrian disoluzioz sortutako formak ugariak dira, dolina, leize eta kobazuloak, esaterako, nonhai topatu ahal izango ditugu. Hala, 250 inguru dira Urbasako mendilerroan katalogatuta dauden barrunbeak.

Gaurkoan bada, sumatuko zenutenez, mendizerra honen lurrazpia arakatzea egokitu zaigu. Horien guztien artean, ordea, zein aukeratu gure haitzuloaren bila abiatzeko? Hautaketa lan nekezaren ostean, ezkutatzen duten altxorrengatik Noriturri, Akuandi eta Kristinoen kobak ezagutzea erabaki dugu, egun bakar batean, ibilbide samur bat eginez hiruak elkar lotuz.

Urbasaren hegoaldean hedatzen den lur zerrenda batera hurbilduko gara aipatu hiru koba horien aurkitzera, Monte de las Limitaciones deritzonera, hain zuzen. Erdi Arotik gaurdaino, Ameskoako bizilagunek, lur eremu honen jabetza dute eta bertako ustiaketa Aristubeltza izeneko biltzarraren bidez kudeatzen dute.

Urbasako mendatea atzean utzi eta Ameskoarantz errepidean behera jaisten hasi eta berehala, bihurgune itxi batean, eskuinera abiatzen den errepidetik barneratu zaitezke Limitaciones delako eremu honetan. Guri gertatu modura, ordea, uda parteko asteburuetan, kontrolik gabeko *dominguero* andana handiak saihestu nahian, biltzarraren erabakiz, baimen berezia izan ezean ezin izango zara autoz bertara barneratu. Mendizaletasunaren ikuspuntutik, jatorragoa den aukera proposatzen dizuegu jarraian: Ameskoagoineko Aranaratxe herritik abiatuko gara aldaian gora —ameskoarrek, Urbasako hegoaldeko isurialdea izendatzeko erabiltzen duten terminoa dugu aldaia—.

Aranaratxeko garbitegi zaharraren aldamenetik igaroz (790 metro), burdinezko langa igaro, ezkerrean San Lorentzo ermitara daraman bidea utzi eta Goneako harrate ingururantz doan pistan gora abiatuko gara, eguneko lehen kobazuloaren bila,



MUNDO SUBTERRANEO

■ Kristinoen koban aurkitu dezakegun altxorra. Errespeta dezagun.

GARDA UNANUE

■ Noriturriko koba ibilbideko lehena izango da.

CAROA UNANUE

Noriturri. Esan, harrate zaharrerako bidea, nahiz igarobidea, egun galduak daudela erabat erabilpen ezagatik. Autoak goialdera igotzea ahalbidetuz, pista zatar eraiki berri batek, sarri gertatu ohi den moduan, bide zahar hauen heriotza ekarri du. Gauza bera esan genezakeen Eulatetik gora datorren pista are erosogoari buruz. Goialdean jada, aipatu beste pistarekin bat egin ostean, ehunen bat metro aitzina egin eta eskuinerantz abiatzen den zidor batek Noriturriko kobaren aho gainetik eramango gaitu. Arretaz begiratu eskuinerantz, bertaratu artean aho beltza ikusi ez arren, kokatua dagoen sakonunea aise antzeman baitaiteke. Noriturriko iturria aurkitzeko gai bazarete, berriz, primeran. Gu ez baikinen gauza izan, udan agortuta egoten baita (976 m).

Aho beltz estuan barrena, orbelez be-

MUNDO SUBTERRANEO

■ Akuandiko koban estalaktita hau bezalakoak eta urazpiko formazio ederrak ikus daitezke.

FITXA TEKNIKOA

Lizarra

OHARRAK
Lehenengo biak ez badira arriskutsuak, hirugarrenean zati zail batzuk daude. Sokarekin asegurazuak igarotzea komeni da. Buruko linternarekin nahikoa da, nahiz eta ez dugun behar bezala koba argiztatu eta baloratuko.

GARAI EGOKIA
Uda-Udazkena

DENBORA
Kobak arakatzea: 7 ordu
Ibilbideak: 3 ordu 30m.

DESNIBELA
300 m

LUZERA
Noriturri 300 m
Kristinoen koba 100 m
Akuandi 500 m
Ibilbidea 8 km

ZAILTASUNA

BIBLIOGRAFIA
- **Grupo Bortiri.** *Andar por las sierras de Urbasa y Andia. Libros Penthalon.*
- *El mundo subterraneo en Euskal Herria. Etor-Ostoa*
- **Mikel Nazabal.** *Urbasa. Entzia. Andia. 1/25000.*

tetako malda apal batek areto zabal batera jaitsiaraziko zaituzte, zailtasun berezirik gabe. Aldaketa handia jasango duzue, bai! Egun-argitik barrunbeko iluntasunera igaroko zarete-eta. Baina aldaketa batez ere hotz-beroan nabarituko duzue, udako bero sargori jasangaitzetik iluntasuneko freskotasun atseginera, kanpoaldeko 30ºtatik barnealdeko 14ºtara igarotzerakoan. Zutik erraz kabitu arren, sabai baxuko aretoan aurrera egin ahala, sabaitik, noizbait, askatutako bloke nahaspila batek bidea oztopatuko dizue. Ez etsi! Arretaz arakatu eta ohartuko zarete, beherantz egiten duen zulotxo batek, inora ez daramala badirudi ere, jarraipena duela. Tentu handiz jaitsi eta Noriturriko altxorra aurkituko duzue, dimentsio ikaragarriak dituen beste areto ilun bat zabalduko zaizue begi erdi itsuen aurrean. Gainerakoa, zuen esku uzten dugu, arretaz arakatu dezazuen, jakinik inguruarekin begirunea izango duzuela.

Kanpoaldean atzera, Kristinoen kobarantz abiatuko gara, hots, eguneko bigarren altxorraren bila. Horretarako, pistara itzuli beharra dugu lehenik, ondoren, Opakuaraino iristen den asfaltozko errepiderantz jarraitzeko —Araba eta Nafarroa arteko

mugan, harri puska itzel batzuek errepide honetatik autoen igarotzea oztopatzen dute—. Errepide alboan kokatutako artzain txabolara iristean, berriz, ezkerrera joko dugu, metro batzutan errepidearekiko paralelo egin eta pagadian bide eginez, Ostolazako zabaldietara abiatzen den bideari helduko diogu, inguru haietan aurkitzen baita Kristinoen koba.

Ez duzue berehala aurkituko, baina kosta ahala kosta, bertara iristeak merezi du, altxor ederra izango baituzue zain. Dolina sakon baten hondoan, harkaitzean landutako eskailera hondatu samar batzuetan behera, fidatzekoa ez dirudien eskuleku baten laguntzaz, barneratu ahal izango zarete kobazuloan, aurrekoan bezala bero aldaketa nabaria jasanez. Uda izan arren, errekasto baten hots amaigabeaz ohartuko zarete berehala. Ez duzue berau amaieraino jarraitu behar, eskuinaldera joz, zertxobait igo, ate eta guzti duen pasabide mehar batetik igaro, aurrera egin eta bat-batean Urbasako erraietan ezkutatzen den lurrazpiko laku batekin egingo duzue topo. Urak, denboraren ezinbesteko laguntzaz eta kare-harriak zeharkatzerakoan jasotako elementuez eraikitako estalaktita, estalagmita, *gourgs* eta bestelako forma karstiko ikusgarriez apaindua, zuek erabakiko duzue zer nolako altxorra aurkitu duzuen oraingoan.

Lakuko ur garbi eta gardenetan bainatzeko aukera izango duzue, baina Urbasako altxorrik preziatuenetakoa aurkitzera ausartzen bazarete, kanpoaldera itzuli eta Akuandiko kobazulora abiatu beharra izango duzue. Etorri bidetik itzuli behar duzue, errepideraino kasik. Alabaina, ezkerraldean agertuko zaizuen bigarren langa gurutzatu eta parean izango duzuen bideari ekin, pagadian barrena, San Lorentzo ermitara bideratuko baizaituzte honek. Lehenago aurkitu ahal izango dugu Akuandi, ordea. Bihurguneak, nabarmen eskuinera jo eta igotzen hasten den une berean, ezkerraldeko sakonunearen hondoan ezkutaturik zain izango duzue Kobaundiko aho estu eta txikia.

Barrunbean barneratzen bazarete, jakin, hiruetan altxorrik ederrena hau izanik, arriskutsuena ere hau dugula. Izadiak ere, ba omen daki altxorrak gordetzen! Sarrerako estugunea gaindituta, harriz betetako malda gogorra topatuko duzue lehenik. Galeria bakarrekoa duzue, eta galtzeko arriskurik ez da batere. Galeriaren erdian, ordea, lubaki baten modura, amildegi sakon eta luze batek, haseran ezkerretik eta ondoren eskuinaldeko malda zail eta umeletan ibiltzea eskatzen du, eta sokaren laguntzarik gabe edo zailduak egon ezean, ez bertaratzea gomendatuko genizueke. Zati arriskutsu horiek gaindituta, harriz harri aurrera egitea besterik ez duzue izango altxorra aurkitzeko: lurrazpiko laku eder bat oraingoan ere, baina aurrekoaren alboan, askoz ere itxura bitxi eta ederragoko forma karstologikoez apaindua. Ikusi, erabaki eta gero hitz egingo dugu hiruetatik ea zein iruditu zaizuen kobazulorik ederrena.

Kobazuloen ibilbide hau amaitzeko, San Lorentzoko ermitara iritsi (998m) eta harratean behera, Aranaratxera itzultzea besterik ez duzue ●

◆ ASIER AGIRRESAROBE

■ Kristinoen kobako estalaktita isotubularrak.

■ Elurraren eta euriaren ibilia 250 barrunbeetan behera

Urbasako mendia Nafarroako mendebaldean dago eta Andia eta inguruko mendiekin unitate hidrogeologiko bera osatzen dute, garrantzi handiko akzidente tektoniko batengatik elkarrengandik bananduak, Lizarraga edo Zunbeltzeko faila. Unitate hidrogeologikoa 420 karratutan hedatzen da, nahiz eta Urbasari dagozkionak 208 karratu izan, Nafarroan. Mendiguneak mendebaldetik jarraipena du eta Arabako aldean Entzia gisa ezagutzen da.

Urbasa, lurrazpiko urtegi baten adibide aparta da, zeinaren oinarri iragazkaitza Kretazikoko margek osatzen duten. Elur eta euri moduan, sarri erori ohi diren prezipitazioek elikatzen dute urtegia eta alboetako amildegietako zenbait iturburutatik naturalki hustutzen, Urederra izanik ikusgarriena. 250 inguru dira Urbasan katalogatutako barrunbeak, bertikalak nahiz horizontalak. Azterketa batek barrunbeen % 75,50 metro baino sakonera gutxiagokoak direla adierazten digu eta gainerakoak 150 metro baino txikiagokoak. Luzera horizontalari dagokionez, % 60,50 metro baino laburragoak dira eta gainerakoak 500 metrotatik ez dira pasatzen ●

CARDA UNANUE

■ Larraona herri inguruan dira bisitatutako hiru kobak.

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN

1.- Nekez aldatzen dena. 2.- Arloa. Toka, zuen. 3.- Usain txarra. Har ezan! 4.- Neba. Letoniako hiriburua. 5.- Har ezak! Ahuntzaren arra. 6.- Sarrera. Uso arra. 7.- Gar. Sortu zintuena. Ardi, hitz elkarketan. 8.- Uranioa. Bete. Sail. 9.- Higuinak. Ikas eta Ari. 10.- Buka. Garoa, iratzea. Sufrea.

GOITIK BEHERA

1.- Libertatea. 2.- Zerua lainoz estali. Amerizioa. 3.- Daude. Bokala. Barazki-mota. 4.- Atsegina. Nahikoa! 5.- Katu txikia. 6.- Lehenengoa. Kontsonantea. Nafarroako urtegia. Modu atzizkia. 7.- Gaueko argia. Bokala. Röntgen. 8.- Titanioa. Hedabide-mota. 9.- Ausartak. 10.- Artzainek etxolara eramaten duten janari-kopurua. Marokoko mendialdea.

Kikeren Umorea

POLIZIAK

Justu, taberna batean harrapatu eta zuzenean ikusi ahal izan zuten Sevillan "giraldillekin" gertatutakoa Naparra eta Donostik. Handik egun batzutara ere, nola ez, Sevillako ikuskizunaz ari dira hizketan biak zubipean:

- Irakurri al duk gaur ere Egunkarian? Errua batzuena dela, errua besteena dela. Horiek seko txoratuta zaudek.

- Bah! Polizien arteko berriketak dituk horiek. Ez zakiat handiagoak nola ez diren gertatzen Donosti.

- Arrazoi duk Naparra. Guk ere, mundua guztia korritu diagu eta ez diagu polizia zentzudunik aurkitu.

- Tira Donosti, ez hadi exajeratua izan. Nik zentzudun bat behintzat ezagutu nian Italian. Kasualitatez, zentzuzko ezer esaten baldin bazian, burua itzuli egiten zian, ea inguruan beste inork esan ote zuen ikusteko.

Letra Zopa

F	A	I	N	A	D	R	E	B	L	A	J	R	D	E	I
S	O	A	G	N	I	E	I	E	S	S	A	M	E	A	L
H	J	A	E	R	E	R	E	U	Z	E	N	L	I	R	A
G	A	M	T	R	N	U	S	H	E	I	Z	A	R	L	B
A	K	E	E	L	K	A	R	L	A	N	E	A	N	S	A
L	I	I	H	A	U	B	N	H	E	R	S	A	E	T	Z
A	N	I	L	R	M	R	E	A	Z	X	T	R	U	D	I
I	R	A	K	P	U	N	Z	E	K	A	R	R	E	P	A
N	K	O	A	L	E	I	M	A	P	N	A	R	U	R	B
T	X	E	M	I	E	N	S	B	E	N	I	T	I	E	I

Aurki itzazu letra zopa honetan zortzi argitaletxeren izenak. Hitzak ezker-eskuin, goitik-behera edo diagonalean azalduko zaizkizu

Aurreko asteko soluzioak

							★	H	★	G	★	G	★	A	★
							G	A	T	I	B	U	A	L	D
							★	R	A	D	A	R	★	A	U
							M	A	R	A	K	A	K	★	K
							★	G	★	T	A	★	A	B	E
★	M	★	H	★	A	I	D	U	R	U	★	E	R	R	A
Z	U	H	A	I	Z	T	I	★	R	A	T	★	R	A	★
★	N	A	R	R	A	S	T	I	A	★	O	T	I	★	O
D	I	M	A	★	L	U	I	S	★	A	R	R	A	I	N
★	T	A	N	T	A	★	A	T	A	R	I	A	★	D	D
B	I	H	A	R	★	O	K	I	N	A	★	T	A	I	A
★	B	I	★	E	L	I	★	L	A	N	D	U	A	★	R
M	A	R	I	N	E	L	A	★	I	A	I	A	★	L	E
★	R	U	★	A	R	O	T	Z	A	★	O	K	I	L	A

L ★ A
B ★ L
E ★ D
K ★ I
E ★ R
A ★ L
K ★ E
K ★ A
O ★ K
L ★ I
A ★ L
K ★ A

Gurutzegrama

Ezker-eskuin: 1. Gaizkileak. 2. Urriak. Sua. 3. Tarot. Etzi. 4. Uka. Arrain. 5. Natura. La. 6. Atila. Ok. I. 7. Zu. Italiar. 8. A. Asaldatu. 9. Lore. Ta. Er. 10. Abeslari. A.

Goitik-behera: 1. Gutunazala. 2. Arakatu. oB. 3. Irrati. Are. 4. Zio. Ulises. 5. Katarata. L. 6. IK. Ra. Alta. 7. L. Er. Oldar. 8. Estalkia. I. 9. Auzia. Ate. 10. Kain. Irura.

U	G	A	O	L	P	I	T	N	O	T	I	R	R	A	X
R	L	S	H	E	L	U	R	A	R	E	I	O	A	K	A
R	E	T	A	I	E	R	L	G	Z	I	N	S	R	T	U
U	O	G	R	R	D	J	A	O	Z	K	T	A	E	E	Z
T	T	O	I	H	A	R	T	Z	A	B	A	L	T	U	Z
I	I	E	T	O	A	S	N	B	T	E	A	R	R	G	A
A	T	N	U	K	L	U	O	R	P	B	A	R	A	K	A
K	Z	A	R	E	K	E	H	L	A	K	A	I	E	T	O
A	T	G	I	R	A	T	Z	Z	A	H	A	B	A	S	E
O	S	A	L	A	B	U	R	U	I	E	N	G	A	T	N

Hitz Gezidunak

Gizona / Ingurabideak — Ardiaren ar / Buztan — Nafarroako herria / Mozkor — Arakatu / Sugetzarra — Eguneroko erosle / 500 — Ukapena / Haizeak

Ohitura / Txorimota — Arrazoi / Azkenekoa

Berriz / Mespretxuzko hitza

Hunoen errege / Baita — Uranioa / Ezer eteteko gailu — Musika nota / Sodioa — Lasaia, zabala

Argazkiko herria / Oin — Gizon izena / Politak — Bokala / Lepo — Sufrea / Ur bihurtu — Denboratarte / Sortu zintuena — Joan nadin / Perukoa

Bokala / Fruitumota — Intsektumota / Amultsu — Errep., gorotza / Edo

Eramaten ninduten / Kai — Bokala / H_2O — Kontsonantea / VII. hil

Altzari handia / Zalantzak

Santua / Ald., gurasso arra — Oxigenoa / Uzkiaren hasieran — Emakume izena / Garoa

Bokala / Infin., ukitu — Emakume izena / Juntagailua — Bokala / Kanpo — Tantalioa / Ikas eta Ari

Arotzaren lanabes / Madarikatu — Zortea / United States — Kasik / Azti ezaguna — Interjekzioa

Denda / Kontsonantea

Iparretarrak — Ikaste — Bokala — Burduntzali

Argazkia: Nafarroa Behereko herria

Denborapasak: LUMA • Umorea: KIKE AMONARRIZ • Komikia: MARKO ARMSPACH

ERROBIKO PIRANJAK

HAMARKADEN GURPILEAN

ELIXABETE GARMENDIA

Milurtekoaren bukaerak lausoturik uzten du hamarkadaren amaiera. Denbora neurtzeko lagin guztiak bezala, konbentzionala da erabat hamarkada, baina oroimenean gordeta dauzkagun kromoak klasifikatzeko baliagarria erabat. Konta litezke hamarkadak orokorrean: 1950ekoa, 1960koa... edo konta litezke norberaren bizitzaren arabera: 20 urte nituenekoa, 30etakoa... Batzuetan kromo orokorrak eta partikularrak ez datoz bat, laburpen kontraesankorrak ematen dituzte. Hamarkada basati baten erdian izan ditzake batek kromo partikularrik ederrenak. Dena den, oroitzapenaren argi itzaletatik, irudi batzuk gailentzen dira, guztiok egutegi antzekoak erabili izan bagenitu bezala urteen joan etorria markatzeko.

Guregana iritsi berri zen «technicolor»ean irudikatzen dut 60ko hamarkada, mantxa kargatu eta artifizialetan, ñabardurei kaso handirik egin gabe, kolorearen leherketa nahikoa balitz bezala. *Nylon*-a eta kardatua, umegoei hortzak zorrozten zizkiguten neska gazteen gona borobil puztuak, autodunen kategoriara igota «seiscientos»arekin, «plan playero»ak eta kanta inozoak. Modeloa Francoren familiak jartzen zuen, hurbilekoak eta bere inguruan zuen tribuak, gerra ondoko protekzionismoan sosak egindakoek, «ecos de la sociedad»en agertzen ziren haiek. Industriari esker soldata orokortuta, aberats berrien hamarkada zen hori, usteak dena baino borobilago egiten zuen munduan. Distira sekula ere ez sobran.

DISTIRA kontuan 80koari eman zion erreleboa 60koak. Orain koloreak are definituago, argazkietan ez ezik bideoan. «Malvaloca»koek, dantzen bidez hamarkada bakoitza erretratatzen zuten ikuskizun hartan, ezin hobeto asmatu zuten: bikotea dantzan, elkarri sekula begiratu ere egin gabe, bakoitza bere baitan, norberaren edertasuna eta perfekzioa bakarrik kontuan. Izan ere, ni-aren erreinua zen hura, dena norberaren loriarako eta besterik ez. Aurreko hamarkadan kolektiboari begira bizi izandakoak, desenkantuaren aitzakian, norberaren oskolean sartu ziren zorionaren bila. Gaztarora iritsi berriei mundua oihan basati modura erakutsi zitzaien, ehiztari depredatzailearena egiteko antzokia. Iruzurra lege, horretarako gai ez zena, gizarajoa-gajoa. Post modernismoaren gidaritzapean balore kontserbadoreak gora, hipokresiaz gainezka. Kokaina diskretoa zen oso, ez zerion kerik, ezta belar usain sarkorrik ere.

PLASTIKOZKO ogitarteko horretan itoa geratu zen 70eko hamarkada. Naifa itxuraz, lorez apaindua toki batzuetan, utopiaz gehienetan. Garaiko gazteek zilegizkoa zuten errebelde izatea. Esan eta egin, salatu eta irauli. Askatasuna egarri, norberaren bizitzan eta taldearenean. Irudimen sortzailea— gogoratu bestela musika— aurreiritziak kanpora, hesiak lurrera. Hazi hori hibernazioan egon zen hurrengo urteetan, lurpean zanpatua. Ernetzeko zantzuak egin zituen ordea mendearen azken hurrengo hamarkadan. Herabe, apurka, kontraesanean, hotsik jo gabe. Zailduta egotearen bentaja nabari zaio ordea. Hogei urte lehenagoko inozentzia sendatuta, hamar urte lehenagoko zinismoa gainditutа. Ez da oso aldarrikapen zalea, prosaiko samarra aukeran, ez dauka 70eko senidearen erromantizismorik, baina sendoagoa ageri da, haren eskarmentuaren jakitun. Hitz bakar batek bil dezake: solidaritatea. Kontzeptua mamitzen eta ontzen doa, eta olioa bezala zabaltzen da, tantaka, apal, gazteriatik gizatalde zabalagoetara.

Bi milagarreneko margarita hostoak aletzen goazen neurrian, desio bat: azken hamarkaden arteko alternantziari ihes egiteko gai izan dadila, bide luzea baitauka oraindik azken urteotan txukuntzen hasitako alorra lantzen ●

"Garaiko gazteek zilegizkoa zuten errebelde izatea. Esan eta egin, salatu eta irauli. Askatasun egarri, norberaren bizitzan eta taldearenean. Irudimen sortzailea —gogoratu bestela musika— aurreiritziak kanpora, hesiak lurrera. Hazi hori hibernazioan egon zen hurrengo urteetan, lurpean zanpatua. Ernetzeko zantzuak egin zituen ordea mendearen azken hamarkadan".

ARGIAren Eskaintzak

Kultura merkeago erosiz, Euskal Herriko Astekaria sendotu

Aukera Berezia Zuretzat

Bidalketa gasturik gabe etxean jasoko duzu

Alfa Arte

EV 014

Godaletak

18700 pta

EV 012

Klip-ontziak

11550 pta

EV 005

5840 pta

Gutunazal-irekitzekoak

Idazmahairako Arte-lanak

EV 009

6335 pta

Papergainekoak

Papergainekoak

EV 010

6335 pta

Brontzezko arte-lanak

EV 007

10785 pta

Txartel euskarriak

EV 013

7250 pta

Post it azpikoak

EV 017



17250 pta

Gutun euskarriak

Jon Ander Egaña

Informazio Edo Argibide Gehiago Nahi Baduzu, Deitu Gure Telfonora
Edo Ondoko Laukia Bete Ondoan, Bidali Gure Helbidera.

ESKAERA: ERREFERENTZIA _____

IZEN-DEITURAK _____

KALEA _____ ZBKIA _____ SOLAIRUA _____

HERRIA _____ TFNOA _____ POSTA KODEA _____

HERRIALDEA _____ HARPIDETZA ZENBAKIA _____

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15, 20160 LASARTE-ORIA Tel.: 943 37 15 45 • FAXA: 943 36 10 48 / 37 34 03 • e-posta: denda@argia.com • www.argia.com

Haranetako zurrunbiloa atzean utzita

Euskal Herriko mendietan barna ihes

joateko aukera emango dizun liburua



- 300 orrialde eta 50 ibilbide Euskal Herriko zazpi probintzietan.
- Paraje ezberdinak, ohiko ibilbide eta zidorretatik at.
- 400dik gora argazki eder.
- Argibide ugariz hornitutako mapa topografikoak.
- Ibilbide bakoitzaren kokapena, zailtasuna, denbora, luzera...
- Orokorrean ibilbideek abiapuntu eta amaiera bera dute, igoerako eta jaitsierako bide ezberdinekin.
- Testu guztiak banan-banan eguneratuak eta berraztertuak.

Liburudendetan salgai
edo ARGIAra deituz

ARGIA